

2014ko AZAROAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **14 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko azaroaren 26an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Irma Domingorena Zampirain and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn.
Bilkura hasita	Gloria Vazquez Herranz and.
Ez da etorri:	M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2014ko urriaren 29koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko urriaren 27tik azaroaren 21era

Segidan, Alkatetzak 2014ko urriaren 27tik azaroaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko urriaren 24tik azaroaren 7ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko urriaren 24tik azaroaren 7ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" ERAKUNDE AUTONOMOIA DESEGITEA

1984ko maiatzaren 31n egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" fundazio publikoa sortzea eta hura arautuko zuten Estatutuak onartzea.

2003ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Udalbatzak behin betiko onartu zituen "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" Erakunde Autonomoaren estatutu berriak. 2003ko maiatzaren 21ean testua osorik argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (94 zk.).

Estatutu horietako 3. artikulua esaten du Erakunde Autonomoak bere gain hartzen dituela Zarauzko Udalaren turismo eta jaietako politikaren baitan jasota dauden helburuak.

2014ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin. Erabaki hori udal antolaketa berriaren baitan hartu zen.

Horiek horrela, eta Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea “ZARAUZKO TURISMO BULEGOA” erakunde autonomoa desegiteari, 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin.

Bigarrena.- Ondorengotza unibertsala berariaz eta formalki onartzea, eta ondorio guztietarako, Tokiko Erakunde Autonomoa desegiten den unean hark dituen eskubide, betebeharrak, kontratu, eskumen eta karga guztiekin, estatutu eratzailen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean udaletxeko iragarki taulan eta web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nahi diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, desegitea behin betiko onartutzat joko da, bestelako akordiorik hartu behar izan gabe.

Laugarrena.- Desegiteko akordioa behin betikoa denean, ondoko jardueren bidez gauzatzea:

- a) Erakunde Autonomoaren kontabilitatea Udalarenean sartzea, hau da, Tokiko Erakunde Autonomo horretako aurrekontuko hartzekodunen eta/edo zordunen saldo guztiak Zarauzko Udalaren Aurrekontuan sartzea. Udalak erabat subrogatuko ditu aitortutako eskubideak (likidatu eta kobratutakoak edo kobratu gabeak) eta hartutako obligazioak (likidatu eta ordaindutakoak edo ordaindu gabeak).

Akordio hau indarrean sartu ondoren Udalak erantzun beharko du arlo honetan sortzen den edozein konturen aurrean, alde batera utzita Tokiko Erakunde Autonomoaren aurrekontua osorik likidatzeko aurrekontuetan eta/edo kontabilitatean egin beharreko mugimenduak, oharrak edo eragiketak.

- b) “Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autonomoan atxikita dauden langileak (gaur egun bertan zerbitzuak egiten dituztenak) Zarauzko Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan sartzea, euren egoera juridikoa eta lortutako eskubideak errespetatuta, eta hori guztia 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Udalbatzak onartutako Giza Baliabideen Planean jasotako aurreikuspenekin bat etorrira.
- c) Udalari itzultzea Udalbatzaren 2003ko apirilaren 30eko akordioaren bidez “Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autonomoari atxikitako ondasunak:

Erakunde autonomoa	Inbentario matrikula	Deskribapena
Turismo Bulegoa	109-00001	Nafarroa 3-5. Behe-solairuko 2 zk. lokala
Turismo Bulegoa	109-00002	Nafarroa 3-5. Behe-solairuko 3 zk. lokala
Turismo Bulegoa	109-10001	Nafarroa 3-5. Orubea

- d) Desegite akordioaren ondorio-egunean indarrean dauden kontratu guztiak subrogatzea.
- e) Udalbatzaren 2004ko abenduaren 29ko erabakiaren bidez sortutako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak aldatzea.

4.- "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOA DESEGITEA

1981eko azaroaren 27an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen "ZARAUZKO KIROLDEGIA" fundazio publikoa sortzea eta hura arautuko zuten Estatutuak onartzea.

2000ko azaroaren 29an egindako bilkuran, Udalbatzak behin betiko onartu zituen "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" Erakunde Autonomoaren estatutu berriak. 2000ko abenduaren 13an testua osorik argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (235 zk.).

Gero, 2001eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen 6, 12.3, 15.2, 16, 17, 18 eta 19 artikulua aldatzea. Aldaketa horiek ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2001eko abuztuaren 22an (160 zk.).

Estatutu horietako 3. artikulua esaten du Erakunde Autonomoaren xedea kirola bere osotasunean sustatzea dela, eta herritar guztiei hainbat kirol modalitate egin eta ikasteko bitartekoak jartzea.

2014ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin. Erabaki hori udal antolaketa berriaren baitan hartu zen.

Horiek horrela, eta Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" Erakunde Autonomoa desegiteari, 2014ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin.

Bigarrena.- Ondorengotza unibertsala berariaz eta formalki onartzea, eta ondorio guztietarako, Tokiko Erakunde Autonomoa desegiten den unean hark dituen eskubide, betebeharrak, kontratu, eskumen eta karga guztiekin, estatutu eratzailen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean udaletxeko iragarki taulan eta web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nahi diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, desegitea behin betiko onartutzat joko da, bestelako akordiorik hartu behar izan gabe.

Laugarrena.- Desegiteko akordioa behin betikoa denean, ondoko jardueren bidez gauzatzea:

1. Erakunde Autonomoaren kontabilitatea Udalarenean sartzea, hau da, Tokiko Erakunde Autonomo horretako aurrekontuko hartzekodunen eta/edo zordunen saldo guztiak Zarauzko Udalaren Aurrekontuan sartzea. Udalak erabat subrogatuko ditu aitortutako eskubideak (likidatu eta kobratutakoak edo kobratu gabeak) eta hartutako obligazioak (likidatu eta ordaindutakoak edo ordaindu gabeak). Akordio hau indarrean sartu ondoren Udalak erantzun beharko du arlo honetan sortzen den edozein konturen aurrean, alde batera utzita Tokiko Erakunde Autonomoaren aurrekontua osorik likidatzeko aurrekontuetan eta /edo kontabilitatean egin beharreko mugimenduak, oharrak edo eragiketak.
2. “Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomoan atxikita dauden langileak (gaur egun bertan zerbitzuak egiten dituztenak) Zarauzko Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan sartzea, euren egoera juridikoa eta lortutako eskubideak errespetatuta, eta hori guztia 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Udalbatzak onartutako Giza Baliabideen Planean jasotako aurreikuspenekin bat etorrira.
3. Udalari itzultzea Udalbatzaren 2003ko apirilaren 30eko akordioaren bidez “Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomoari atxikitako ondasunak:

Erakunde autonomoa	Inbentario matrikula	Deskribapena
Kirol Patronatua	45-00001	Aritzbatalde kiroldegia
Kirol Patronatua	45-10001	Aritzbatalde kiroldegia. Orubea
Kirol Patronatua	70-00001	Asti kirolgunea. Errugbi-zelaia
Kirol Patronatua	70-00002	Asti kirolgunea. Errugbi-zelaiko aldagelak
Kirol Patronatua	70-00003	Asti kirolgunea. Futbol-zelaia
Kirol Patronatua	70-00004	Asti kirolgunea. Futbol-zelaiko aldagelak
Kirol Patronatua	70-00005	Asti kirolgunea. Futbol-zelaiko tribuna
Kirol Patronatua	70-00006	Asti kirolgunea. Asti-txiki futbol-zelaia
Kirol Patronatua	70-00007	Asti kirolgunea. Lursaila

4. Desegite akordioaren ondorio-egunean indarrean dauden kontratu guztiak subrogatzea.
5. Udalbatzaren 2004ko abenduaren 29ko erabakiaren bidez sortutako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak aldatzea.

5.- 2015erako ORDENANTZA FISKALAK. BEHIN BETIKO ONESPENA

Udalbatzarrak, 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran, Udal Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantza Arauemaileak aldatzeko erabakia hartu zuen. Ondorioak, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango zituzten.

Hartutako erabakia eta horretarako ireki den espedientea jendaurrean egon ondoren, epean, honako hauek sinatutako alegazio-idazkiak aurkeztu dira:

- Udal teknikarien proposamenak:
 - Errenta teknikariak honako proposamen hauek aurkezten ditu::

1.- Udal Merkatua: Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen 7. Ordenantza Fiskalaren eranskinaren h) apartatuan arautzen dira Udal Merkatuaren tarifak. Bertan azaltzen dira Lege Zaharren enparantzan jartzen diren sal-postuen tarifak. Sal-postu horiek ez daude araututa Udal Merkatuko Ordenantzan, beraz, tarifak ez dira zuzenak. Udalak baimenak ematen baditu Lege Zaharren enparantzan sal-postuak jartzeko, aplikatu behar zaie dagozkion tarifak 6. Ordenantza Fiskalaren arabera; Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena. Beraz, proposatzen da aipatutako tarifak kentzea

2.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: Etxebizitza erabilera eduki, baina ohiko egoitza ez diren ondasun higiezinak alokatzen diren kasuetan, oso zaila gertatzen da OHZren errekararen salbuespena kudeatzea, gaur egun idatzita dagoen eta aplikatzen den moduan; zergaren zortzapen urtean 9 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzetara aplikatzen zaie (c epigrafea). Kudeaketa errezeko proposatzen da zergaren zortzapenaren aurreko urtean 9 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzetara aplikatzea.

Era berean, errekaragatik salbuespena daude (7. epigrafea) *“Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak”*. Idazketa hori nahasia da zergadunentzat, pentsatzen baitute kontserbazio-egoera txarrean dauden etxebizitzetara ari dela, nahiz eta asmoa, berez, egitura-arrazoiengatik etxebizitza izaera eduki ezin duten ondasun higiezinak salbuestea den. Horregatik, 7. epigrafea beste modu batera idaztea proposatzen da.

3.- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga: Udal Gizarte Zerbitzuek egin duen iradokizun bati erantzuna emanez, proposatzen da 4. Ordenantza Fiskalak, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duena, bere eranskinen IV. apartatuan, salbuespenak arautzen duena, 3. puntuan *“minusbalitu”* hitza ordezkatzeko egokiagoa den *“ezgaitasuna duten pertsonak”* hitzekin.

– Erreklamazio eta iradokizunak

Espedientea jendaurrean egon den bitartean, bi erreklamazio edo iradokizun aurkeztu dira:

1.- Socorro Lopez Villaverde.

Socorro Lopez Villaverde andreak eskatzen du aldatzea 1. Ordenantza Fiskala, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duena. Zehazki, eskatzen du ohiko egoitza ez diren etxebizitzentzako errekararen 3. salbuespena aldatzea, eta salbuespena egotea *“Zergaren zortzapen urtean 6 hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzak”*. Indarrean dagoen Ordenantza Fiskalak alokairua 9 hilabetetik gora izan behar duela dio.

2.- Ana Arostegui Ochandiano.

Ana Arostegui Ochandiano andreak eskatzen du aldatzea 1. Ordenantza Fiskala, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duena. Zehazki, eskatzen du ohiko egoitza ez diren etxebizitzentzako errekararen salbuespenak aldatzea, eta beste kasu bat onartzea errekaragatik ez aplikatzeko: hain zuzen ere energi-kontsumoak eta ur kontsumoak egiaztatzen diren etxebizitzetara.

Alegazioak aztertu ondoren, eta Koordinazio Batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Errenta teknikariak aurkeztutako proposamenak

a) 2. Ordenantza Fiskalaren eranskinaren III. ataleko 3. eta 7. puntuak aldatzea:

3.- Zergaren **sortzapenaren aurreko urtean 9** hilabetetik gora alokatuta egon diren etxebizitzak (soilik alokatutakoak, erabilera-lagapenak ez dira sartzen). Hobaria aplikatzeko ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

1. Hobaria aplikatzeko eskaera.
2. Indarrean dagoen alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatutakoa. Kontratu horretan adierazi beharko du higiezinaren helburua edo erabilera etxebizitzarena dela.
 - Zergaren sortzapen urteko errenten kobrantza-agiriak (banketxeokak).

2015. urtea transizio-garaia izango da, eta tarte horretan onartuko dira bai zortzapen urteko alokairuak eta baita zortzapenaren aurreko urtekoa ere.

Alokairu-kontratu horien berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

7.- Legezko aurri-egoera formalki aitortua duten eraikinetan dauden etxebizitzak.

b) 4. Ordenantza Fiskalaren eranskinaren IV. ataleko 3.1. puntua aldatzea:

3.1. **Ezgaitasuna duten pertsonen** izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean:

a) **Ezgaitasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuak:**

1. Ezgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun murriztuko egoera egiaztatzekoa; biak ere organo eskudunak eginak.
2. Ezgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio baimenaren fotokopia.
3. Ibilgailuaren aseguru polizaren fotokopia. Polizan ohiko gidaria adieraziko da eta bat etorriko da titular ezgaitasuna duten pertsonarekin. Hau da, titular Ezgaitasuna duten pertsonen, indarreko aseguru polizaren bidez, egiaztatu beharko du bera dela ohiko gidaria.
4. Ibilgailuari emango zaion erabileraren zinpeko aitortpena.

b) **Ezgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuak:**

- Ezgaitasuna egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua eta, kasuan kasu, mugikortasun murriztuko egoera egiaztatzekoa; biak ere organo eskudunak eginak.
- Ezgaitasuna duten pertsonen izenean dagoen zirkulazio baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren aseguru polizaren fotokopia, ohiko gidaria adierazten duena.
- Ibilgailua salbuespena aitortu zaion onuraduna garraiatzeko soilik erabiliko dela adierazteko zinpeko aitortpena.

c) 7. Ordenantza Fiskalaren eranskinaren h) epigrafea aldatzea:

h) Udal Merkatua

Tarifak	€
Bankuetako salmenta-postu irekiak, salmenta-postu eta hilabeteko	16,00
Salmenta-postu finkoak, m ² edo frakzioko eta hilabeteko	16,00
Hazien salmenta-postua	35,30

Bigarrena.- Ez onartzea aurkeztutako beste alegazio-proposamen eta erreklamazio guztiak:

- Socorro Lopez Villaverde
- Ana Arostegui Ochandiano

Hirugarrena.- Onartzea indarrean dauden Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoen Ordenantzaren egin beharreko aldaketan behin betiko idazkera. Aldaketak indarrean jarriko dira 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera .

Laugarrena.- Ordenantza Fiskalen aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzekoak, 16.4 artikuluan agintzen duena betetzeko, guztien jakinerako eta aipatutako aginduan aurreikusten diren gainontzeko ondorioetarako.

6.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

a) Enplegua sortzeko eta ekintzailatza bultzatzeko diru-laguntzak (2014)

2014. urtean, ENPLEGUA SORTZEKO ETA EKINTZAILETASUNA BULTZATZEKO PROGRAMARAKO, DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA prestatu ditu Ekonomia departamentuak.

Zarauzko Udalak, bere eskumenen baitan, ekintzailatza eta enpleguaren sorrera sustatzeko asmoz garatzen duen laguntza-multzoa arautzen dute oinarri horiek.

Aurrekoa ikusita, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Enplegua sortzeko eta ekintzailatasuna bultzatzeko 2014. urtean diru-laguntzak emateko OINARRIAK onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntza horiek 2014. urtean emateko DEIALDIA onartzea ondorengo partidatik:

- 1 0001.481.111.00.03 2014 86.000,00 €

Hirugarrena.- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ENPLEGUA SORTU ETA EKINTZAILTZA BULTZATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

2014ko DEIALDIA

ATARIKO KAPITULUA

1. artikulua. Definizioa

Zarauzko Udalak, bere eskumenen baitan, ekintzailtza eta enpleguaren sorrera sustatzeko asmoz garatzen duen laguntza-multzoa arautzen dute oinarri hauek.

2. artikulua. Eremua

Ordenantza hau aplikagarria izango zaie Zarauzko udalerrian enplegua sortzeko egiten diren enpresa-ekimenei, betiere honako araudia betetzen badute.

Diru-laguntza deialdira aurkezten diren enpresek zorrotz bete beharko dituzte indarrean dagoen legeria ekonomia, zerga eta lan kontuetan.

Ordenantza honetan araututako neurrien garapena ondoko programen bitartez gauzatuko da:

- Enpresa-proiektu berrien sustapena.
- Enpleguaren sustapena.
- Egokitzapen-lanak

I KAPITULUA

ENPRESA-PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA

3. artikulua. Xedea

Oinarri hauen xedea da Zarautzen enpresa berriak jartzeko enpresa-ekimenei laguntzea, horretarako zenbait diru-laguntza emanez.

4. artikulua. Onuradunak

Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean eman beharreko alta Zarauzko udalerrian ematea.
- Lantokia Zarauzko udalerrian egotea, eta baita enpresaren egoitza sozial eta fiskala ere.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren hasierako alta aurtengo urtean ematea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzea.
- Zarauzko Udalarekiko zorrik ez izatea.
- Diru-laguntza publikoak lortzeko aukeretatik baztertuta ez egotea.

Laguntza hauek lortzerik ez dute izango ondokoek:

- Enpresa berria abian jarri aurreko 24 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako sustatzaileen enpresek.
- Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresetako lehen mailako ahaideen artean, titularitate aldaketa egon eta hortik sortutako enpresek.
- Hala ere, justifikatutako arrazoiak baldin badaude (adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak), lehen mailako ahaideen artean titulartasun aldaketa duten enpresek ere aukera izango dute diru-laguntza jasotzeko.
- Partaidetza publikoa nagusi duten enpresek.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen denetik, gutxienez, 4 hilabetetan eustea jarduera ekonomikoari.
- Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

6. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza hau bateragarria izango da beste erakundeek emandakoekin.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza kalkulatzeko parametroa ondokoa izango da:

- Irekiera-lizentzia: irekiera-lizentziari dagokion adinako kopurua.

II. KAPITULUA

ENPLEGUAREN SUSTAPENA

7. artikulua. Xedea

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira langileak kontratatzeagatik, ekintzailea bera barne.

Kontratazio berriek 2013an izandako langile kopurua handitu beharko dute.

Kalitatezko enpleguaren sorrera sustatuko da, eta, bereziki, enplegurik gabeko pertsonak kontratatzea bultzatuko da. Horien artean, lehentasuna emango zaie lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektibo hauei: emakumeak, 30 urtetik beherako gazteak, 45 urtetik aurrerakoak, minusbaliotasuna duten pertsonak eta Zarautzen gutxienez 3 urte errolatuta daramatzatenak.

Kontratu berriek indarrean dauden lan-hitzarmen sektorialak bete beharko dituzte.

8. artikulua. Diru-laguntzen hartzaileak

Diru-laguntza hauen hartzaileak izango dira egoera hauetakoren baten dauden enpresak:

- a) Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz entitate juridikoak: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, lantokia Zarauzko udalerrian edukitzea eta lanpostu berriak sortzea 2014ko ekitaldian.
- b) Laguntza hauetatik bazter geratuko dira:
 - Enpresa berria abian jarri aurreko 12 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako sustatzaileen enpresak
 - Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresen titularitate aldaketa hutsetik sortutako enpresak.
 - Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresetan titularitate aldaketa egon eta hortik sortutako enpresak.
 - Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresetako lehen mailako ahaideen artean, titularitate aldaketa egon eta hortik sortutako enpresak.
 - Hala ere, justifikatutako arrazoiak baldin badaude (adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak), lehen mailako ahaideen artean titulartasun aldaketa duten enpresek ere aukera izango dute diru-laguntza jasotzeko
 - Partaidetza publikoa nagusi duten enpresek.

9. artikulua. Eman beharreko laguntzak

Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izaera izango dute.

Diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzei, gutxienez, 4 hilabetetan eutsi beharko zaie, diru-laguntza ematea erabakitzen den unetik zenbatzen hasita.

Gizarte Segurantzaz dagokion Erregimenean alta emandako pertsona berri bakoitzeko oinarria 400,00 €-koa izango da. Kopuru hori honela handitu daiteke:

- 4 hilabete horietatik gora osatzen den hilabete bakoitzeko 100 €-tan igoko da oinarria, gehienez ere 1000 € arte. Kopuru horri %20 gehituko zaio, diruz lagundutako lanpostua ondoko taldeetako pertsonaren batek betetzen badu: emakumeak, 30 urtetik beherako gazteak, 45 urtetik gorako langileak, minusbaliotasuna duten pertsonak eta Zarautzen gutxienez 3 urte errolatuta daramatzatenak. Gehikuntza horiek bateragarriak izango dira.

Kontratua lanaldi partzialekoa bada, diru-laguntza lanaldiarekiko proportzionala izango da.

III. KAPITULUA

EGOKITZAPEN OBRAK

10. artikulua. Xedea

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emango dira jarduerako lokaletan egokitzapen obrak egiteko.

11. artikulua. Diru-laguntzen hartzaileak

Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, lantokia Zarauzko udalerrian edukitzea eta 2014 ekitaldian jarduerako lokaletan egokitzapen obrak egin izana.

12. artikulua. Eman beharreko laguntzak

Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izaera izango dute.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza kalkulatzeko parametroa ondokoa izango da:

- Obra-lizentziak: obra-lizentziari dagokion adinako kopurua. (EIOZ + tasa)

IV. KAPITULUA

PROGRAMA GUZTIEN ARAUAK

13. artikulua. Aurrekontu-kreditua

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoa, gehienez ere, 86.000 eurokoa da, eta aurrekontuko 1 0001.481.111.00.03 2014 partidatik ordainduko da.

14. artikulua. Eskarien aurkezpena eta tramitazioa

Eskaerak egiteko, normalizatutako inprimakiak bete eta Zarauzko Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Etxe Zabala - Kale Nagusia, 29), astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Horretarako epea dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita eta 2014ko abenduaren 15ean amaituko da.

Eskarietan honako zinpeko aitortza hauek ere jasoko dira: helburu beragatik jasotako edota eskatutako beste diru-laguntzen inguruko zinpeko aitortza eta oinarri hauetan aurreikusitako baztertze arrazoietan sartuta ez egotearen aitortza.

Honako agiriak erantsiko dira:

I Kapituluak) Enpresen aldetik:

- IFKren fotokopia konpultsatua.
- Eskatzailearen edo ordezkariaren NANren fotokopia konpultsatua.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altaren fotokopia konpultsatua.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen aitortza.

II Kapituluak) Kontratutako pertsonenak:

- a) IFKren fotokopia konpultsatua
- b) Eskatzailearen edo ordezkariaren NANren fotokopia konpultsatua.
- c) Kontratutako langilearen NANren fotokopia konpultsatua.
- d) Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean emandako altaren fotokopia konpultsatua.
- e) Lanbide bideratutako lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
- f) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen aitortza.

III Kapituluak) Egokitzapen obrak egin dituztenak:

- IFKren fotokopia konpultsatua.
- Eskatzailearen edo ordezkariaren NANren fotokopia konpultsatua.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altaren fotokopia konpultsatua.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izatearen aitortza.
- Udal lizentziaren fotokopia

Eskaerak aurkezteak baimena ematen du eskaerako datuak tratatzeko, eta hala badagokio, baita ere datuak beste Administrazio Publiko edo erakunde batzuekin trukatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

15. artikulua. Instrukzioa eta proposamena

Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzaileak 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira instrukzioa eta proposamena.

Organo eskudunak:

- Instruktoea: Kontu-hartzailea.
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, Ogasun eta Finantza arloko Koordinazio Batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzeei jarraiki.

16. artikulua. Diru-laguntza ematea

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; salbuespena izango da, prozeduran, interesatuek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzera edo kontuan hartzea.

Deialdian esleitutako kreditua ez bada nahikoa baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerei erantzuteko, laguntzak proportzionalki gutxitu egingo dira.

17. artikulua. Bateriaezintasunak

II. Kapitulumko onuradunek ezin izango dute, helburu bererako beste diru-laguntza publikoekin bat eginda, diruz lagundutako kontratuaren urteko soldata-kostuaren %70a gainditu.

18. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzen ordainketa honela egingo dira:

- Diru-laguntza ematen denean %100a ordainduko da.

19. artikulua. Oinarriak ez betetzea

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako diru-laguntzaren zati bat jasota egonez gero, itzuli egin behar du eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

20. artikulua. Araudi aplikagarria

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzena (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

21. artikulua. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

b) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeetara edo epaitegietara joateko garraiorako banakako diru-laguntzak (2014)

2014. urtean, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPOKO ESPETXEETAN DAUDEN PRESOEN SENIDEEI ETA EAETIK KANPOKO EPAITEGIETARA AUZIPETU BEZALA JOAN BEHAR DUTEN ZARAUZTARREI GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK ETA DEIALDIA prestatu ditu Gizarte Zerbitzuetako departamentuak.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar duten zarauztarrei, norgehiagoka araubidez, emango zaizkien banakako diru-laguntzak arautzen dituzte oinarri horiek.

Aurrekoa ikusita, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar duten zarauztarrei garraiorako banakako diru-laguntzak emateko 2014. urterako OINARRI ARAUTZAILEAK onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntza horiek 2014. urtean emateko DEIALDIA onartzea ondorengo partidatik:

– 1 0001.480.111.00.02 2014 6.000,00 €

Hirugarrena.- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPOKO ESPETXEETAN DAUDEN PRESOEN SENIDEEI ETA EAETIK KANPOKO EPAITEGIETARA AUZIPETU BEZALA JOAN BEHAR DUTEN ZARAUZTARREI GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

2014. URTEKO DEIALDIA

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

1. Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 140 zk.)
2. Zarauzko Udaleko Gizarte-Zerbitzuen Departamentutik diru-laguntzak emateko Oinarri Bereziak (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 140 zk.) eta ondorengo aldaketak.
 - 1) Helburua
 - 2) Eskaerak
 - 3) Instrukzioa eta proposamena
 - 4) Hautapen eta balorazio irizpideak
 - 5) Ebazteko eta jakinarazteko epea
 - 6) Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea
 - 7) Hartzailearen ekimenez itzultzea diru-laguntza

- 8) Diru-laguntzaren zenbatekoa
- 9) Zuzkidura eta aurrekontuko partida
- 10) Araudia
- 11) Errekurtsoak

1.- HELBURUA

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar duten zarauztarrei, norgehiagoka araubidez, ematen zaizkien banakako diru-laguntzak arautzea da deialdi honen helburua.

2.- ESKAERAK

Diru-laguntza hauen onuradunak izango dira EAetik kanpoko espetxeetan dauden presoen senide diren zarauztarrak. Lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea
- Seme-alabak
- Gurasoak
- Anai-arrebak

Halaber, EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar den edozein zarauztar.

Preso bakoitzeko onuradun bakarra egongo da. Lehentasun-hurrenkera horretan maila berean dauden bi pertsona edo gehiago badaude, zaharrenak jasoko du diru-laguntza.

Edozein kasutan ere, bai eskatzaileek bai presoek Zarautzen erroldatuta egon beharko dute diru-laguntza eskaera egiten denean.

Eskariak aurkezteak esan nahi du onartu egiten direla deialdi honetan jasotako baldintza guztiak.

Eskabideak Zarauzko Udaletxean aurkeztuko dira, eta I. eranskinean ageri den eredu ofizialari jarraiki egingo dira.

II. eranskineko inprimaki ereduari jarraiki aurkeztuko dira proiektuak.

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

- Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia bat.
- Preso dagoen pertsonarekiko senidetasuna edo harremana erakusten duen ziurtagiria (familia-liburua, izatezko bikote ziurtagiria).
- Bizikidetz-unitateko kide guztien urteko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena edo aitortpenak. Araudi honi dagokionez, eskatzailearen etxebizitzan bizi direnek osatuko dute bizikidetz-unitatea: guraso, ezkontide eta seme-alabek.
- Aitortpena egin ez bada edo egin beharrik ez dagoen kasuetan, egoera hori egiaztatzeko Foru Ogasunak emandako ziurtagiria. Kasu hauetan ondoko dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
 - * Lan bizitzaren txostena.
 - * Besteren konturako langileak: dagokion ekitaldiko nominak edo enpresaren ziurtagiriak, indarrean dagoen lan araudiak eskatutako baldintzak betez.
 - * Erretiratuak edo pentsiodunak oro har, baita lanerako ezintasun egoeran edo balioezintasun egoeran dauden langileak ere: dagokion ekitaldian pentsioaren edo jasotako diru-prestazioen ziurtagiria.
 - * Beren konturako langileak: Gizarte Segurantzari egindako urteko kotizazioaren ziurtagiria, bertan, kuotak kalkulatzeko erabili den urteko oinarria jasoaraziz.
 - * Langabezia egoera, langabetuak: INEMek egindako ziurtagiria. Bertan, enplegu eskatzaile dela adierazteaz gain, jasotako prestazioak edo, hala badagokio, inolako prestaziorik jaso ez izana egiaztatuko da.
 - * Gizarte laguntzak jasotzen dituztenak: jasotako laguntza ekonomikoaren ziurtagiria.
- Aurreikusten diren gastuen aurrekontua. III. eranskina
- Zinpeko aitortpena, adieraziz, ez dela zigortua izan Euskal Administrazio Publikotik diru-laguntzaren bat jaso ondorengo betebeharrak ez betetzeagatik. IV. eranskina.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udal eta bere erakunde autonomoenak beteta dituela egiaztatzeko agiriak.

Betebehar horiek beteta dituela egiaztatu ahal izateko, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskabidean baimena eman ahal izango du, organo emaileak, ziurtagiri telematikoek bidez, zuzenean lor ditzan aipatutako egiaztapenak. Kasu horretan ez ditu horiei dagozkien egiaztapenak ekarri beharko.

Eskaerak eskabide ofizialaren eredia betez egin beharko dira, eta Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira abenduaren 15a baino lehen, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

3.- INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Gizarte Zerbitzuetako teknikaria
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, jendarte politikarako batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzeei jarraiki.

4.- HAUTAPEN ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarrerak izango dira kontuan, honako irizpideak jarraituz:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egin behar duten pertsonentzat, eta, egin behar izan gabe ere, egin dutenentzat, honakoak hartuko dira kontuan: dagokion errenta aitortpenaren zerga-oinarria, aurrezki-oinarria eta oinarri orokorra, lan-etekinei aplikatutako hobariak, eta hala badagokio, egon litezkeen zergarik gabeko errentak, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu behar ez duten pertsonen kasuan, honako diru-sarrerak hartuko dira kontuan:

- Lan-etekinei eta langabezia-prestazioei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru-sarrera gordinen %95.
- Pentsioei eta langabezia-sorospenei eta, halaber, zergarik gabeko dietei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru-sarrera gordinen %100.

Diru-sarreraren haztapena egiteko, bizikidetzaren unitateko kideen kopurua eta diru-sarreraren % 20a gutxienez irabazten duten bizikidetzaren unitateko kideen kopurua izango dira kontuan, formula hau erabiliz:

$$DH = DK \times N \times A$$

DH: diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: diru-sarrera konputagarriak.

N: Haztapan-koefizientea, bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera.

A: Haztapan-koefizientea, diru-sarreraren %20 gutxienez irabazten duten bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera.

N eta A haztapan-koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatu beharrekoak, honako hauek izango dira:

N

1 kide:	1,00
2 kide:	0,95
3 kide:	0,90
4 kide:	0,85
5 kide:	0,75
6 kide:	0,65
7 kide:	0,55
7tik gora:	0,50

A

1 hartzailerik:	1,00
2 hartzailerik:	0,90
3 hartzailerik edo gehiago:	0,85

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko dira eskaerak. Gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. 50 puntura ailegatzen ez diren eskaerak ez dute laguntzarik jasoko.

Diru-sarrera haztatuak

< 20.000 €:	Gehienez 100 puntu
20.001€ - 30.000€:	Gehienez 90 puntu
30.001€ - 40.000€:	Gehienez 70 puntu
40.001€ - 50.000€:	Gehienez 50 puntu

5.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez 3 hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

Ebazpenak administrazio bidea amaituko du.

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Udalak emandako diru-laguntzen argitalpena egingo du 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERA JUSTIFIKATZEA

Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu egin beharko du berak, edo oinarri berezietako 5. eranskinetik 2. artikuluan agertzen diren onuradunen batek, benetan bisitatu dutela preso dagoen pertsona.

Horretarako, espetxeak egindako ziurtagiria aurkeztuko du onuradunak, eta bertan agertuko da benetan zenbat bisita egin dituen onuradunak.

Bestalde, zinpeko adierazpen izaera duen inprimaki bat emango die Udalak eskatzaile guztiei, eta betetakoan, frogagiri moduan onartu ahal da aurrekoaren orde, diru-laguntza hauen xede diren bisita-kopuru benetakoa kontuan izanik.

Lehen adierazitakoa hala izanda ere, espetxeak egindako ziurtagiria nahiz bisita egin izanaren zinpeko adierazpenaren orde, zuzenbidean baliozkoa den beste edozein agiri aurkeztu ahal izango da, baldin eta benetan egindako bisita-kopurua egiaztatzen badute.

7.-HARTZAILEAREN EKIMENEZ ITZULTZEA DIRU-LAGUNTZA

Diru-laguntzaren onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du diru-laguntza, Udalari erabaki horren berri eman ez eta dagokion diru-sarrera 2095.5076.41.1060000246 kontuan eginez.

8.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez izapidetuko da.

Eskaera bakoitzerako diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da 3.500 eurotik gorakoa izan.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, baldin eta dagoen aurrekontu-kontsignazioak azken eskaeraren bat (edo batzuk) partzialki bakarrik estal bidezake, eta, horrelakoetan, eskaera hori hautatutako eskaeren artean sartuko da.

Aipatutako murrizketa hori, portzentajeetan egingo da, betiere eskaera bakoitzak lortutako puntuen arabera. Hau da, murrizketa minimoa puntu gehien lortu duenari aplikatuko zaio eta gainerakoei portzentualki puntu bat gehituko zaie puntu gehien lortu duen eskaeraren beherako puntu bakoitzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz baldintza guztiak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, norgehiagokaren prozedurak duen lehen tasun-ordena ez da aplikatu beharko.

9.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 6.000 eurokoa da, 1 0001.480.111.00.02 2014 partidaren kontura.

10.- ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azariaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzena (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko GAO, 140 zk.) eta Gizarte Zerbitzuen Departamentutik diru-laguntzak emateko oinarri bereziak (2014ko irailaren 1eko GAO, 164. zk.).

11.- ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

c) Zarauzko Kirol Patronatua erakunde autonomoaren diru-laguntzak (2013)

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen; eta testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak diru-laguntzak emateko OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoari zegozkionak. Horien testu osoa ere 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Orain, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoak oinarri haiek berrikusi ditu, eta idazkera berria eman die. Helburua da kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarauzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, diru-laguntzak emateko prozedura arautzea.

Aurrekoa ikusita, eta «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoko Kontseilu Nagusiak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- «ZARAUZKO KIROL PATRONATUA» erakunde autonomoak 2013. urtean kirol arloan diru-laguntzak emateko OINARRI BEREZIAK onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntza horiek 2013. urtean emateko deialdia onartzea ondorengo partidetatik:

1 0101.471 452.03.01 2015 Eskolazkanpoko ekintzak	39.600,00 €
10101.481.452.03.02 2015 Kirol egitasmoak orokorrean	33.950,00 €

Hirugarrena.- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ZARAUZKO KIROL PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOAK 2013. URTEAN DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRI BEREZIAK

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da 2013. urtean kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarauzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, diru-laguntzak emateko prozedura arautzea. Hortaz, artikuluko hauen bidez Patronatuak orokorrean emango dituen diru-laguntzak arautuko dira, eta eranskinen bidez, berriz, diru-laguntza lerro bakoitzaren alderdi bereziak. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntza lerroak honakoak dira:

- 1.- Ikastetxeei diru-laguntzak.
- 2.- Kirol-klub eta elkarteei diru-laguntzak.

2. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte:

Diru-laguntza hauen onuradun izaera izango du diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota diru-laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun ezin izango dira izan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

Pertsonak edo erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete, onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordezkari herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitortpenarenak aurkez daitezke.

Diru-laguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ez dira aurkeztu beharrik izango, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badió ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak diru-laguntzen organo kudeatzaileari emateko.

3. ESKAERAK

1. Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Zuberoa kalea 20 z/g) aurkeztu behar dira, diru-laguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan, agiri hauekin batera:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Orokorrean (Zuberoa kalea z/g) eskuratu daiteke.
- b) Dagokion deialdian diru-laguntza mota bakoitzerako eskatzen diren agiriak.
- c) Nortasunaren egiaztageria (NAN, eraketaren eskriturak –dagokion erregistroan inskribatutakoak–, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen frogageria; edo bestela, zinpeko aitortpena ere aurkez daiteke, adierazteko betebeharrak horiek beteta dituela. Interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- f) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- g) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

2. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan diru-laguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), b), e), f) eta g) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

3. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin bada, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4. Halaber, eskaerak aurkez daitezke 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

5. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

4. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideekin bat etorritik. Prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

5. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATZEA

1. Diru-laguntza lerro bakoitzeko oinarriek, eranskinen arabera, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko ekarpen propio bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako ekarpen propioa jardueran izandako gainerako gastuen modura egiaztatuko beharko da.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. Diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo errekursoekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

6. IZAPIDETZEA

1. Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena honako organo hauek dute:

- a) Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
- b) Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizios, datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko behar diren ekintza guztiak, horien arabera ebazpen-proposamena gauzatzeko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera izapidetze faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak diru-laguntza jasotzeko onuradun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean ezarritako balioeste-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoiatutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesduneri jakinaraziko zaie.

Prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesduneri 10 eguneko epea eskainiko zaie entzunaldiaren izapidean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7. EBAZPENA

1. Ebazpena Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakartzari dagokio.

2. Diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaile berezietan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira, diru-laguntzen emakida arautzen duten irizpide objektiboen arabera, hartuko den ebazpenaren oinarriak.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu diru-laguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak, eta diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

4. Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozeduraren baitan gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta jakinarazpen hori lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenekin bat etorriz egingo da. Horrez gain, emandako diru-laguntzak Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira.

8. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Diru-laguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Patronatuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez bada diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da.

Bestalde, diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Oinarriek aurreikusitakoarekin bat etorriz, baldin eta deialdi bakoitzean hala ezartzen bada.

Diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen, baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera, eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

9. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- a) Diru-laguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- b) Organo emailearen edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betebeharrak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta diru-laguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean.
- Zarauzko Kirol Patronatuko organo eskudunak, diru-laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.

- Herri Administrazioei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru-laguntzak, baldin eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien diru-laguntzak.

Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoaren bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztatpena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeke, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

- f) Hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- g) Organo emaileari jakinarazi, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioarteko zein nazioartekotatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- h) Diru-laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- i) Ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.
- j) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, jasota geratu beharko dira Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntza bidezko lankidetzak.
- k) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- l) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- m) Pertsona onuradunak aplikatzekeoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

10. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Arau orokor gisa, eta dagokion eranskinean beste formula bat ezartzen ez bada, oinarri hauek araututako diru-laguntzak emango dira, aurretik dagozkion administrazio-izapideak egin eta gero, gastua justifikatzeko frogagiriak aurkeztu ondoren.

11. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta oinarri hauetako eranskinetan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta urteko deialdietan ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

12. PUBLIZITATEA

Emandako diru-laguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Bestalde, diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du euskaraz, eranskin bakoitzean zehazten den moduan.

13. DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo diru-laguntza ematean ezarritako betebeharretakoren bat bete ezean, diru-laguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, diru-laguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango da eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkatatuz.
- b) Diru-laguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- c) Jasotako diru-laguntza zuritzeko betebeharra ez betetzea, edo zuritzea behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan.
- d) Diru-laguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak jartzeko betebeharra ez betetzea.
- e) Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularrak diren ikustea, edo xede berarekin beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek (estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek) emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.
- f) Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea; edota onuradunek diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua gauzatzeko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka, edo bestelako herri administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazioko edo nazioartekoaren diru-laguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emakida egiteko ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru-kopurua.

Bi herri-erakunderen edo gehiagoren diru-laguntzak emanak direnean, eta puntu honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

14. DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administratzaileek, edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenek, baldin eta hautsitako obligazioak betetzeko beren egitekoak egin ez badituzte, beraiek hartutako erabakiekin urratzeak gerta badaitezke, edota beren mendekoek hartutakoak onartzen badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legezko ordezkariak dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legezko edo estatutuetao xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

15. ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

1. ERANSKINA: DIRU-LAGUNTZAK IKASTETXEEL, ESKOLA-KIROLAREN KUDEAKETARAKO ETA ARRETARAKO EGITURA ESPEZIFIKOAK GARATZEKO

1. HELBURUA

Eranskin honen helburua da Zarauzko ikastetxeek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek honetarako erabiliko dira: eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzeko asmoarekin, izaera egonkorreko egitura espezifikoak sortu eta garatzeko.

2. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Ikastetxe onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirolari arreta eskaintzeko egitura beharrezkoa sortzeko; egitura hori nahikoa izango da, jarduerak egitean sortzen diren koordinazio beharrei eta behar tekniko-hezitzaileei erantzuteko. Gainera, egitura horren barruan, eskola-kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastetxeak zehaztuko ditu bai koordinatzaile horren eta eskola-kiroleko beharrezko teknikarien arteko harremanak, bai zuzendaritzaren, irakasleen (batez ere soinketakoak) eta guraso-elkarteko ordezkarien arteko harremanak. Horrela lortuko da jarduera horiek ikastetxeko hezkuntza proiektuan ongi txertatzea.
- b) Egitura honetan sartutako eskola-kiroleko teknikariak –bai koordinatzailea bera, bai zehazki funtzio tekniko-hezitzaileak betetzen dituztenak– ikastetxearen mende egongo dira, eta ikastetxea bera soilik arduratuko da horien izendapenaz. Horrela bermatuko da teknikarien gaitasun egokia: bai alderdi tekniko-hezitzailean, bai eskola-kirolaren hezkuntza planteamenduekin lotutako gaietan.
- c) Eskola-kiroleko teknikari horiek prestakuntza eta teknifikazio jardueretan parte har dezaten bultzatuko du ikastetxeak, bai eskolan bertan egiten direnetan, bai herri mailan antolatutakoetan.
- d) Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirola kudeatzeko herri mailako egituretan parte hartzeko; egitura horren sorrera eta garapena Udalak bultzatuko ditu.
- e) Ikastetxeak egingo du ikasturte bakoitzean eskola-kirolean gauzatuko diren jardueren programa. Programa horretan jarduera guztiak sartuko dira, alde batera utzita fisikoki non garatuko diren (ikastetxean bertan, kirol elkartean...), zein urtealditan egingo diren (eskola garaian edo oporretan) edo jarduera horien helburuak zeintzuk diren (sustapena edo lehiaketa). Jardueren programa egiteko kontuan hartuko dira, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak adierazitako jarraibideak; bestetik, Udaleko kirol-politikaren interesak; eta azkenik, ikastetxearen berezko helburuak; eta hori guztia herriko beste ikastetxeekin koordinatuta egingo da.
- f) Ikastetxeak konpromisoa hartzen du, benjamin eta alebin kategorietan, kirol izaera hutseko prestakuntza eta aisialdiko lehiaketa-jardueren programa espezifikoa egiteko, bat etorritik indarrean dagoen araudiarekin eta “Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programaren” jarraibideekin.
- g) Eskola-kirolaren baitan jarritako helburu hezitzaileak betetzen direla zainduko du ikastetxeak, eta ikasle guztiei aukera emango die jarduera anitzetan parte hartzeko, betiere helburu horiek beteko direla bermatuta.
- h) Herri mailan eskola-kiroleko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren kirol instalazioak jarriko ditu ikastetxe bakoitzak.
- i) Ikastetxeak herriko kirol-kluben lankidetzat bultzatuko du. Horren arabera, kirol elkarrekin zerbitzu teknikoek parte hartuko dute ikasle txikiak kirola egiten direnean, betiere ikastetxeak jarritako helburu hezitzaileekin bat etorritik. Era berean, ikastetxeak bideak irekiko ditu, adin jakinetan eta kirol-modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek, eskolatze-aldia bukatuta gero ere, kirola praktika dezaten, xedea errendimendua izan ala aisialdia izan.

3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Hiru kategoriatan banatuko da ikasturte bakoitzeko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa:

- Benjamin kategorია
- Alebin kategorია
- Infantil kategorია

Kategorien arteko banaketa honakoaren arabera egingo da: hiru kategorietan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, kategorია bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.

Kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak zatitu egingo dira ikastetxeei kategoria bakoitzean esleitutako guztizko puntuazioarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek kategoria bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori ikastetxeak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Balorazioko adierazleak eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

- a) Benjamin kategoria: zentroan matrikulatutako benjamin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- b) Alebin kategoria: zentroan matrikulatutako alebin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- c) Infantil kategoria: kategoria honetara bideratutako kopurua ondorengo bi ataletan banatuko da, ondoren adierazten diren portzentajeak kontuan hartuta:
 - Koordinazio atala: % 58
 - Atal tekniko-hezitzailea: % 42

Koordinazio atala honela baloratuko da: zentroan matrikulatutako kategoria infantileko ikasle bakoitzeko 1 puntu.

Atal tekniko-hezitzailea honela baloratuko da: kategoria infantileko talde federatu bakoitzeko 1 puntu (hor sartzen dira klub federatuekin egindako hitzarmenen xede diren taldeak ere). Pilota taldeak 0,5 punturekin baloratuko dira.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriarekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren deialdian ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jardueraren memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
 - b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - c) Diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
 - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

2. ERANSKINA: ZARAUZKO KIROL-KLUBEN ETA ELKARTEEN EGITURA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. HELBURUA

Eranskin honen helburua da Zarauzko kirol-klub eta elkarteek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira.

Diru-laguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Diru-laguntza horiek lortzeko aukera izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirol-klub eta elkarteek: egoitza soziala Zarauzko udalerrian dutenak eta jarduera nagusia bertan garatzen dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik)

- a) Indarrean dagoen legediaren arabera eraruta egotea eta Kirol Erakundeen eta Elkartearen Erregistroan (Eusko Jaurlaritzan) inskribatuta egotea.
- b) Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- c) Egoitza Zarautzen edukitzea, eta bere jarduera nagusia ere bertan garatzea (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).
- d) Gutxienez 25 federatu-lizentzia izatea taldeko kiroletan, edo gutxienez 15 federatu-lizentzia banakako kirol arloren batean.

d) puntuan jarritako baldintza ez da bete beharrik izango ondorengo kasu hauetakoren batean:

1. Zarautzen gutxiengoak egiten duen kirol-modalitate batean aritzen den kluba bada.
2. Emakumeen kirolean aritzen den kluba bada.
3. Herri kirolen batean aritzen den kluba bada.

Ezin izango dituzte *ohiko jarduerak* ataleko diru-laguntzak eskatu, bazkide edo kirolariaren urteko kuota 600,00 eurotik gorakoa duten kirol-klubek eta kirol-taldeek.

3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

a) Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko diru-laguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritik:

- Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- Taldeen partaidetza eremua: % 20
- Atal kopurua: % 3
- Eliteko lizentzien kopurua: % 5
- Teknikarien titulazioak: % 5
- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
- Aparteko joan-etorriak: % 5
- UDA kanpainan jarduerak antolatzea: % 7

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazlearen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

- 1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko (elite kirolekoak izan ezik):

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroletako lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kiroletakoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izanez gero.

Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

2.- Puntu bat eliteko kirolean federatutako lizentzia bakoitzeko.

Oinarri hauen ondorioetarako eliteko kiroltzat hartuko da, bere kirol-modalitatean, kategoria absolutuan, mailarik gorenean parte hartzen duen taldea; edo goreneko bi mailatan, baldin txapelketa estatu mailakoa bada eta kirol-jarduera hori gutxienez goreneko lau mailatan egituratuta badago. Banakako kirol-modalitateetan eliteko kirolaritzat hartuko da estatu edo goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzen duena, baldin txapelketok kategoria absolutukoak badira eta partaidetza askekoak ez badira.

3.- Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

4.- Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, frogatzen bada kirol-teknikariak euskarako honako titulazioren bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

5.- Klubaren kirol atal bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita:

5 puntu bakoitzeko, eta 10 puntu baldin atalak gizonetako eta emakumezko kirolariak baditu (kirol-ataltzat soilik hartuko da kirol-modalitate aitortuekin bat datozenak eta gutxienez federatutako 10 kirolari dituztenak).

6.- Kirol-teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzeagatik:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak.

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Oinarri hauen ondorioetarako, taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua, kasu bakoitzean, Xedapen Gehigarri honetan ezarritakoa izango da.

- 1.- FUTBOLA: 16 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 2.- ARETO FUTBOLA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 3.- SASKIBALLOIA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 4.- ESKUBALLOIA: 14 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 5.- ERRUGBIA: 20 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 6.- BOLEBOLA: 12 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria
- 7.- BEISBOLA/SOFTBOLA: 18 jokalaria + entrenatzailea + ordezkarria

“Lurralde-eremuaren” atalean, taldeko modalitatetzat hartuko dira banakako kiroltako kirolariak, baldin gutxienez 10 eguneko txapelketa ofizialeko egutegian parte hartzen badute eta ekipo bakoitzeko gutxienez 3 kirolariko ekipoak osatzen badituzte. Kasu horretan, ekipo modura kontatzen diren lizentziak ez dira banakakotzat hartuko. Puntuazioa emateko, txapelketa-egun gehienak egingo dituzten txapelketen eremua hartuko da.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren deialdian ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jardueraren memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
 - b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - c) Diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
 - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI 2013. URTERAKO DIRU-LAGUNTZAK, NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ, EMATEKO DEIALDIA

1.- ARAUDIA

Diru-laguntza deialdi hau honakoek arautzen dute: abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak (azaroaren 18ko BOE); Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008ko uztailaren 22koa, 140 zk.); eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoak diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emateko Oinarri Bereziak. Azken horien barruan sartuta dago deialdi hau.

2.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko ikastetxeek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek honetarako erabiliko dira: eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzeko asmoarekin, izaera egonkorreko egitura espezifikokoak sortu eta garatzeko, 2013-2014 ikasturtean.

3.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzen zenbateko osoa: 39.600,00 euro.

Diru-laguntzak honako aurrekontu kredituei egotzen zaizkie:

- 1 0101.471.452.03.01 2014 partida "Eskolazkanpoko ekintzak": 39.600,00

4.- EMAKIDAREN ARAUBIDEA

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emango dira.

5.- DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Zarautzen kokatuta dauden eta Lehen Hezkuntzako eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan eskolak ematen dituzten ikastetxeetako pertsona fisiko edo juridiko titularrek, baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean ez badaude.

Baldintza horiek betetzen dituztela frogatzeko, behar bezala betetako eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utzi dituzten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

6.- ORGANO ESKUDUNAK

Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena honako organo hauek dute:

1. Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
2. Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.
3. Ebazpena: Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakaria.

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epea izango dute eskatzaileek beraien eskaerak aurkezteko.

Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Aritzatalde Udal Kiroldegia, Zuberoa kalea z.g.) aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Eskatzen diren agiritakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta gauzatuko da lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru laguntzak Zarauzko Udalaren web gunean argitaratzea baztertu gabe.

9.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Egin beharreko jardueraren memoria.

10.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Hiru kategoriatan banatuko da ikasturte bakoitzeko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa:

- Benjamin kategoria
- Alebin kategoria
- Infantil kategoria

Kategorien arteko banaketa honakoaren arabera egingo da: hiru kategorietan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, kategoria bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.

Kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak zatitu egingo dira ikastetxeei kategoria bakoitzean esleitutako guztizko puntuazioarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira–. Horrela kalkulatu da puntu batek kategoria bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori ikastetxeak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Balorazioko adierazleak eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

- a) Benjamin kategoria: zentroan matrikulatutako benjamin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- b) Alebin kategoria: zentroan matrikulatutako alebin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.

c) Infantil kategoria: kategoria honetara bideratutako kopurua ondorengo bi ataletan banatuko da, ondoren adierazten diren portzentajeak kontuan hartuta:

- Koordinazio atala: % 58
- Atal tekniko-hezitzailea: % 42

Koordinazio atala honela baloratuko da: zentroan matrikulatutako kategoria infantileko ikasle bakoitzeko 1 puntu.

Atal tekniko-hezitzailea honela baloratuko da: kategoria infantileko talde federatu bakoitzeko 1 puntu (hor sartzen dira klub federatuekin egindako hitzarmenen xede diren taldeak ere). Pilota taldeak 0,5 punturekin baloratuko dira.

11.- PUBLIZITATEA

Prozedura honen baitako egintzak Zarauzko Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

12.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa egingo da Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarri Berezietan ezarritakoari jarraiki, eta emakida jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Diru-laguntza eman deneko jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean egin beharreko justifikazio mota zein modalitatearen bidez justifikatu beharko den.

ZARAUZKO UDALERRIKO KIROL KLUB ETA ELKARTEEI 2013. URTERAKO DIRU-LAGUNTZAK, NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ, EMATEKO DEIALDIA

1.- ARAUDIA

Diru-laguntza deialdi hau honakoek arautzen dute: abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak (azaroaren 18ko BOE); Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008ko uztailaren 22koa, 140 zk.); eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoak diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emateko Oinarri Bereziak. Azken horien barruan sartuta dago deialdi hau.

2.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko kirol klub eta elkarteek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira eta 2013 urterako izango dira (2012-2013 denboraldirako, kirol denboraldia urte naturalarekin bat ez datorren kiroletan).

Diru-laguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

3.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzen zenbateko osoa: 33.950,00 euro.

Diru-laguntzak honako aurrekontu kredituei egozten zaizkie:

- 1 0101.481.452.03.02 2014 partida "Kirol egitasmoak orokorrean": 33.950,00

4.- EMAKIDAREN ARAUBIDEA

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emango dira.

5.- DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Zarautzen errotuta dauden eta jarduera nagusia bertan garatzen duten kirol klub eta elkarteek (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik), baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean ez badaude.

Baldintza horiek betetzen dituztela frogatzeko, behar bezala betetako eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Laguntza hau lehen aldiz eskatzen dutenek Kirol Erakundeen eta Elkarteen Erregistroan (Eusko Jaurlaritzan) inskribatuta daudela frogatzeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

6.- ORGANOSKUDUNAK

Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena honako organo hauek dute:

1. Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
2. Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.
3. Ebazpena: Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakaria.

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hilabeteko epea izango dute eskatzaileek beren eskaerak aurkezteko.

Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Aritzatalde Udal Kiroldegia, Zuberoa kalea z.g.) aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Eskatzen diren agiritakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontaktzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta gauzatuko da lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru laguntzak Zarauzko Udalaren web gunean argitaratzea baztertu gabe.

9.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Laguntza hau lehen aldiz eskatzen dutenek Kirol Erakundeen eta Elkarteen Erregistroan (Eusko Jaurlaritzan) inskribatuta daudela frogatzeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.
- Egin beharreko jardueraren memoria.

10.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

a) Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko diru-laguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritik:

- Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- Taldeen partaidetza eremua: % 20
- Atal kopurua: % 3
- Eliteko lizentzien kopurua: % 5
- Teknikarien titulazioak: % 5
- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
- Aparteko joan-etorriak: % 5
- UDA kanpainan jarduerak antolatzea: % 7

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin – puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazlearen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko (elite kirolekoak izan ezik):

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroletako lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kiroletakoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izanez gero.

Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzaz-hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

2.- Puntu bat eliteko kirolean federatutako lizentzia bakoitzeko.

Oinarri hauen ondorioetarako eliteko kiroltzat hartuko da, bere kirol-modalitatean, kategoria absolutuan, mailarik gorenean parte hartzen duen taldea; edo goreneko bi mailatan, baldin txapelketa estatu mailakoa bada eta kirol-jarduera hori gutxienez goreneko lau mailatan egituratuta badago. Banakako kirol-modalitateetan eliteko kirolaritzat hartuko da estatu edo goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzen duena, baldin txapelketok kategoria absolutukoak badira eta partaidetza askekoak ez badira.

3.- Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

4.- Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, frogatzen bada kirol-teknikariak euskarako honako titulazioen bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

5.- Klubaren kirol atal bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita:

5 puntu bakoitzeko, eta 10 puntu baldin atalak gizonezko eta emakumezko kirolariak baditu (kirol-ataltzat soilik hartuko da kirol-modalitate aitortuekin bat datozenak eta gutxienez federatutako 10 kirolari dituztenak).

6.- Kirol-teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzeagatik:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak.

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua kasu bakoitzean Oinarri Arautzaile hauetako II. eranskineko Xedapen Gehigarrian ezarritakoa izango da.

11.- PUBLIZITATEA

Prozedura honen baitako egintzak Zarauzko Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

12.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa egingo da Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarri Bereziatan ezarritakoari jarraiki, eta emakida jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Diru-laguntza eman deneko jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean egin beharreko justifikazio mota zein modalitatearen bidez justifikatu beharko den.

d) Zarauzko Kirol Patronatua erakunde autonomoaren diru-laguntzak (2014)

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen; eta testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak diru-laguntzak emateko OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoari zegozkionak. Horien testu osoa ere 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Orain, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoak oinarri haiek berrikusi ditu, eta idazkera berria eman die. Helburua da kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarauzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, diru-laguntzak emateko prozedura arautzea.

Aurrekoa ikusita, eta «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoko Kontseilu Nagusiak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- «ZARAUZKO KIROL PATRONATUA» erakunde autonomoak 2014. urtean kirol arloan diru-laguntzak emateko OINARRI BEREZIAK onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntza horiek 2014. urtean emateko deialdia onartzea ondorengo partidetatik:

1 0101.471 452.03.01 2014 Eskolazkanpoko ekintzak	39.600,00 €
10101.481.452.03.02 2014 Kirol egitasmoak orokorrean	33.950,00 €

Hirugarrena.- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ZARAUZKO KIROL PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOAK 2014. URTEAN DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO OINARRI BEREZIAK

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da 2014. urtean kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarauzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, diru-laguntzak emateko prozedura arautzea. Hortaz, artikuluko hauen bidez Patronatuak orokorrean emango dituen diru-laguntzak arautuko dira, eta eranskinen bidez, berriz, diru-laguntza lerro bakoitzaren alderdi bereziak. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntza lerroak honakoak dira:

- 1.- Ikastetxeei diru-laguntzak.
- 2.- Kirol-klub eta elkarteei diru-laguntzak.

2. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoen eskatu ahal izango dituzte:

Diru-laguntza hauen onuradun izaera izango du diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota diru-laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun ezin izango dira izan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

Pertsonak edo erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete, onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordean herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitorpenarenak aurkez daitezke.

Diru-laguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ez dira aurkeztu beharrik izango, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badio ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak diru-laguntzen organo kudeatzaileari emateko.

3. ESKAERAK

1. Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Zuberoa kalea 20 z/g) aurkeztu behar dira, diru-laguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan, agiri hauekin batera:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Orokorrean (Zuberoa kalea z/g) eskuratu daiteke.
- b) Dagokion deialdian diru-laguntza mota bakoitzerako eskatzen diren agiriak.
- c) Nortasunaren egiaztagiria (NAN, eraketaren eskriturak –dagokion erregistroan inskribatutakoak–, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen frogagiria; edo bestela, zinpeko aitorpena ere aurkez daiteke, adierazteko betebeharrak horiek beteta dituela. Interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- f) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera
- g) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

2. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan diru-laguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), b), e), f) eta g) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

3. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin bada, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4. Halaber, eskaerak aurkez daitezke 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

5. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

4. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideekin bat etorriz. Prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko

den deialdiaren bitartez.

5. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATZEA

1. Diru-laguntza lerro bakoitzeko oinarriek, eranskinen arabera, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko ekarpen propio bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako ekarpen propioa jardueran izandako gainerako gastuen modura egiaztatu beharko da.
2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.
3. Diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo errekurtoekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

6. IZAPIDETZEA

1. Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena honako organo hauek dute:
 - Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
 - Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.
2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatze behar diren ekintza guztiak, horien arabera ebazpen-proposamena gauzatzeko.
3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera izapidetze faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak diru-laguntza jasotzeko onuradun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.
4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean ezarritako balioeste-irizpideen arabera.
5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.
6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesdunei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzunaldiaren izapidean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7. EBAZPENA

1. Ebazpena Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakartzari dagokio.
2. Diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaile berezietan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira, diru-laguntzen emakida arautzen duten irizpide objektiboaren arabera, hartuko den ebazpenaren oinarriak.
3. Diru-laguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu diru-laguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak, eta diru-laguntza lerro bakoitzaren berriazko oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.
4. Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.
5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozeduraren baitan gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta jakinarazpen hori lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenekin bat etorriz egingo da. Horrez gain, emandako diru-laguntzak Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira.

8. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Diru-laguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Patronatuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez bada diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da.

Bestalde, diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Oinarriek aurreikusitakoarekin bat etorriz, baldin eta deialdi bakoitzean hala ezartzen bada.

Diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen, baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera, eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

9. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- a) Diru-laguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- b) Organo emailearen edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betebeharrak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta diru-laguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarri.
- e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean.
- Zarauzko Kirol Patronatuko organo eskudunak, diru-laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.
- Herri Administrazioei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru-laguntzak, baldin eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien diru-laguntzak.

Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoaren bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeke, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

- f) Hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- g) Organo emaileari jakinarazi, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioarteko zein nazioartekotatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

- h) Diru-laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- i) Ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.
- j) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, jasota geratu beharko dira Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntza bidezko lankidetzan.
- k) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- l) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- m) Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

10. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Arau orokor gisa, eta dagokion eranskinean beste formula bat ezartzen ez bada, oinarri hauek araututako diru-laguntzak emango dira, aurretik dagozkion administrazio-izapideak egin eta gero, gastua justifikatzeko frogagiriak aurkeztu ondoren.

11. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta oinarri hauetako eranskinetan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta urteko deialdietan ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

12. PUBLIZITATEA

Emandako diru-laguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Bestalde, diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du euskaraz, eranskin bakoitzean zehazten den moduan.

13. DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo diru-laguntza ematean ezarritako betebeharretakoren bat bete ezean, diru-laguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, diru-laguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango da eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkatutuz.
- b) Diru-laguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- c) Jasotako diru-laguntza zurrizko betebeharra ez betetzea, edo zurrizko behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzailetan.
- d) Diru-laguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak jartzeko betebeharra ez betetzea.
- e) Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jarduerari aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularak diren ikustea, edo xede berarekin beste

herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek (estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek) emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.

- f) Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea; edota onuradunek diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten bada helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua gauzatzeko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka, edo bestelako herri administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazioko edo nazioartekoek diru-laguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eramane beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emakida egiteko ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru-kopurua.

Bi herri-erakunderen edo gehiagoren diru-laguntzak emanak direnean, eta puntu honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

14. DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administratzaileek, edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, baldin eta hautsitako obligazioak betetzeko beren egitekoak egin ez badituzte, beraiek hartutako erabakiekin urratzeak gerta badaitezke, edota beren mendeak hartutakoak onartzen badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legezko ordezkariak dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legezko edo estatutuetao xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

15. ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurrekusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

1. ERANSKINA: DIRU-LAGUNTZAK IKASTETXEEL, ESKOLA-KIROLAREN KUDEAKETARAKO ETA ARRETARAKO EGITURA ESPEZIFIKOAK GARATZEKO

1. HELBURUA

Eranskin honen helburua da Zarauzko ikastetxeek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek honetarako erabiliko dira: eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzeko asmoarekin, izaera egonkorreko egitura espezifikokoak sortu eta garatzeko.

2. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Ikastetxe onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirolari arreta eskaintzeko egitura beharrezkoa sortzeko; egitura hori nahikoa izango da, jarduerak egitean sortzen diren koordinazio beharrei eta behar tekniko-hezitzaileei erantzuteko. Gainera, egitura horren barruan, eskola-kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastetxeak zehaztuko ditu bai koordinatzaile horren eta eskola-kiroleko beharrezko teknikarien arteko harremanak, bai zuzendaritzaren, irakasleen (batez ere soinketakoak) eta guraso-elkarteko ordezkarien arteko harremanak. Horrela lortuko da jarduera horiek ikastetxeko hezkuntza proiektuan ongi txertatzea.
- b) Egitura honetan sartutako eskola-kiroleko teknikariak -bai koordinatzailea bera, bai zehazki funtzio tekniko-hezitzaileak betetzen dituztenak- ikastetxearen mende egongo dira, eta ikastetxea bera soilik arduratuko da horien izendapenez. Horrela bermatuko da teknikarien gaitasun egokia: bai alderdi tekniko-hezitzailean, bai eskola-kirolaren hezkuntza planteamenduekin lotutako gaietan.

- c) Eskola-kiroleko teknikari horiek prestakuntza eta teknifikazio jardueretan parte har dezaten bultzatuko du ikastetxeak, bai eskolan bertan egiten direnetan, bai herri mailan antolatutakoetan.
- d) Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirola kudeatzeko herri mailako egituretan parte hartzeko; egitura horren sorrera eta garapena Udalak bultzatuko ditu.
- e) Ikastetxeak egingo du ikasturte bakoitzean eskola-kirolean gauzatuko diren jardueren programa. Programa horretan jarduera guztiak sartuko dira, alde batera utzita fisikoki non garatuko diren (ikastetxean bertan, kirol elkarteetan...), zein urtealditan egingo diren (eskola garaian edo oporretan) edo jarduera horien helburuak zeintzuk diren (sustapena edo lehiaketa). Jardueren programa egiteko kontuan hartuko dira, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak adierazitako jarraibideak; bestetik, Udaleko kirol-politikaren interesak; eta azkenik, ikastetxearen berezko helburuak; eta hori guztia herriko beste ikastetxeekin koordinatuta egingo da.
- f) Ikastetxeak konpromisoa hartzen du, benjamin eta alebin kategorietan, kirol izaera hutseko prestakuntza eta aisialdiko lehiaketa-jardueren programa espezifikoak egiteko, bat etorritik indarrean dagoen araudiarekin eta "Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programaren" jarraibideekin.
- g) Eskola-kirolaren baitan jarritako helburu hezitzaileak betetzen direla zainduko du ikastetxeak, eta ikasle guztiei aukera emango die jarduera anitzetan parte hartzeko, betiere helburu horiek beteko direla bermatuta.
- h) Herri mailan eskola-kiroleko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren kirol instalazioak jarriko ditu ikastetxe bakoitzak.
- i) Ikastetxeak herriko kirol-kluben lankidetzat bultzatuko du. Horren arabera, kirol elkarteetako zerbitzu teknikoek parte hartuko dute ikasle txikiak kirola egiten hasten direnean, betiere ikastetxeak jarritako helburu hezitzaileekin bat etorritik. Era berean, ikastetxeak bideak irekiko ditu, adin jakinetan eta kirol-modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek, eskolatze-aldia bukatuta gero ere, kirola praktika dezaten, xedea errendimendua izan ala aisialdia izan.

3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Hiru kategoriatan banatuko da ikasturte bakoitzeko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa:

- Benjamin kategoria
- Alebin kategoria
- Infantil kategoria

Kategorien arteko banaketa honakoaren arabera egingo da: hiru kategorietan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, kategoria bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.

Kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak zatitu egingo dira ikastetxeei kategoria bakoitzean esleitutako guztizko puntuazioarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira–. Horrela kalkulatu da puntu batek kategoria bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori ikastetxeak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Balorazioko adierazleak eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

- a) Benjamin kategoria: zentroan matrikulatutako benjamin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- b) Alebin kategoria: zentroan matrikulatutako alebin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- c) Infantil kategoria: kategoria honetara bideratutako kopurua ondorengo bi ataletan banatuko da, ondoren adierazten diren portzentajeak kontuan hartuta:
 - Koordinazio atala: % 58
 - Atal tekniko-hezitzailea: % 42

Koordinazio atala honela baloratuko da: zentroan matrikulatutako kategoria infantileko ikasle bakoitzeko 1 puntu.

Atal tekniko-hezitzailea honela baloratuko da: kategoria infantileko talde federatu bakoitzeko 1 puntu (hor sartzen dira klub federatuekin egindako hitzarmenen xede diren taldeak ere). Pilota taldeak 0,5 punturekin baloratuko dira.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren deialdian ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
 - b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
 - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

2. ERANSKINA: ZARAUZKO KIROL-KLUBEN ETA ELKARTEEN EGITURA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. HELBURUA

Eranskin honen helburua da Zarauzko kirol-klub eta elkarteek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira.

Diru-laguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Diru-laguntza horiek lortzeko aukera izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirol-klub eta elkarteek: egoitza soziala Zarauzko udalerrian dutenak eta jarduera nagusia bertan garatzen dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik)

- a) Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Kirol Erakundeen eta Elkarten Erregistroan (Eusko Jaurlaritzan) inskribatuta egotea.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.

c) Egoitza Zarautzen edukitzea, eta bere jarduera nagusia ere bertan garatzea (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).

d) Gutxienez 25 federatu-lizentzia izatea taldeko kiroletan, edo gutxienez 15 federatu-lizentzia banakako kirol arloren batean.

d) puntu jarritako baldintza ez da bete beharrik izango ondorengo kasu hauetakoren batean:

- Zarautzen gutxiengoak egiten duen kirol-modalitate batean aritzen den kluba bada.
- Emakumeen kirolean aritzen den kluba bada.
- Herri kirolen batean aritzen den kluba bada.

Ezin izango dituzte *ohiko jarduerak* ataleko diru-laguntzak eskatu, bazkide edo kirolariaren urteko kuota 600,00 eurotik gorakoa duten kirol-klubek eta kirol-taldeek.

3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

a) Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko diru-laguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritik:

- Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- Taldeen partaidetza eremua: % 20
- Atal kopurua: % 3
- Eliteko lizentzien kopurua: % 5
- Teknikarien titulazioak: % 5
- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
- Aparteko joan-etorriak: % 5
- UDA kanpainan jarduerak antolatzea: % 7

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin —puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko (elite kirolekoak izan ezik):

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroletako lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kiroletakoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izanez gero.

Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzaren hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

2.- Puntu bat eliteko kirolean federatutako lizentzia bakoitzeko.

Oinarri hauen ondorioetarako eliteko kiroltzat hartuko da, bere kirol-modalitatean, kategoria absolutuan, mailarik gorenean parte hartzen duen taldea; edo goreneko bi mailatan, baldin txapelketa estatu mailakoa bada eta kirol-jarduera hori gutxienez goreneko lau mailatan egituratuta badago. Banakako kirol-modalitateetan eliteko kirolaritzat

hartuko da estatu edo goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzen duena, baldin txapelketok kategoría absolutukoak badira eta partaidetza askekoak ez badira.

3.- Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

4.- Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, frogatzen bada kirol-teknikariak euskarako honako titulazioren bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

5.- Klubaren kirol atal bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita:

5 puntu bakoitzeko, eta 10 puntu baldin atalak gizonezko eta emakumezko kirolariak baditu (kirol-ataltzat soilik hartuko da kirol-modalitate aitortuekin bat datozenak eta gutxienez federatutako 10 kirolari dituztenak).

6.- Kirol-teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzeagatik:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak.

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Oinarri hauen ondorioetarako, taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua, kasu bakoitzean, Xedapen Gehigarri honetan ezarritakoa izango da.

- 1.- FUTBOLA: 16 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 2.- ARETO FUTBOLA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 3.- SASKIBALOA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 4.- ESKUBALOA: 14 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 5.- ERRUGBIA: 20 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 6.- BOLEIBOLA: 12 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 7.- BEISBOLA/SOFTBOLA: 18 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria

“Lurralde-eremuaren” atalean, taldeko modalitatetzat hartuko dira banakako kiroletako kirolariak, baldin gutxienez 10 eguneko txapelketa ofizialeko egutegian parte hartzen badute eta ekipo bakoitzeko gutxienez 3 kirolariko ekipoak osatzen badituzte. Kasu horretan, ekipo modura kontatzen diren lizentziak ez dira banakakotzat hartuko. Puntuazioa emateko, txapelketa-egun gehienak egingo dituzten txapelketen eremua hartuko da.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren deialdian ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
 - gastuaren frogagiriak ekarrita
 - ikuskariaren txostena ekarrita
 - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
 - b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
 - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

ZARAUZKO UDALERRIKO IKASTETXEEI 2014RAKO DIRU-LAGUNTZAK, NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ, EMATEKO DEIALDIA

1.- ARAUDIA

Diru-laguntza deialdi hau honakoek arautzen dute: abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak (azaroaren 18ko BOE); Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008ko uztailaren 22koa, 140 zk.); eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoak diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emateko Oinarri Bereziak. Azken horien barruan sartuta dago deialdi hau.

2.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko ikastetxeek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek honetarako erabiliko dira: eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzeko asmoarekin, izaera egonkorreko egitura espezifikoa sortu eta garatzeko, 2013-2014 ikasturtean.

3.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzen zenbateko osoa: 39.600,00 euro.

Diru-laguntzak honako aurrekontu kredituei egozten zaizkie:

- 1 0101.471.452.03.01 2014 partida "Eskolazkanpoko ekintzak": 39.600,00

4.- EMAKIDAREN ARAUBIDEA

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emango dira.

5.- DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Zarautzen kokatuta dauden eta Lehen Hezkuntzako eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan eskolak ematen dituzten ikastetxeetako pertsona fisiko edo juridiko titularrek, baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean ez badaude.

Baldintza horiek betetzen dituztela frogatzeko, behar bezala betetako eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

6.- ORGANO ESKUDUNAK

Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena honako organo hauek dute:

1. Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
2. Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.
3. Ebazpena: Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakaria.

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epea izango dute eskatzaileek beraien eskaerak aurkezteko.

Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Aritzatalde Udal Kiroldegia, Zuberoa kalea z.g.) aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Eskatzen diren agiritakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta gauzatuko da lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru laguntzak Zarauzko Udalaren web gunean argitaratzea baztertu gabe.

9.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Egin beharreko jardueraren memoria.

10.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Hiru kategoriatan banatuko da ikasturte bakoitzeko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa:

- Benjamin kategoria
- Alebin kategoria
- Infantil kategoria

Kategorien arteko banaketa honakoaren arabera egingo da: hiru kategorietan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, kategoria bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.

Kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak zatitu egingo dira ikastetxeei kategoria bakoitzean esleitutako guztizko puntuazioarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek kategoria bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori ikastetxeak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Balorazioko adierazleak eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

- a) Benjamin kategoria: zentroan matrikulatutako benjamin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- b) Alebin kategoria: zentroan matrikulatutako alebin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- c) Infantil kategoria: kategoria honetara bideratutako kopurua ondorengo bi ataletan banatuko da, ondoren adierazten diren portzentajeak kontuan hartuta:
 - Koordinazio atala: % 58
 - Atal tekniko-hezitzailea: % 42

Koordinazio atala honela baloratuko da: zentroan matrikulatutako kategoria infantileko ikasle bakoitzeko 1 puntu.

Atal tekniko-hezitzailea honela baloratuko da: kategoria infantileko talde federatu bakoitzeko 1 puntu (hor sartzen dira klub federatuekin egindako hitzarmenen xede diren taldeak ere). Pilota taldeak 0,5 punturekin baloratuko dira.

11.- PUBLIZITATEA

Prozedura honen baitako egintzak Zarauzko Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

12.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa egingo da Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarri Bereziatan ezarritakoari jarraiki, eta emakida jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Diru-laguntza eman deneko jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean egin beharreko justifikazio mota zein modalitatearen bidez justifikatu beharko den.

ZARAUZKO UDALERRIKO KIROL KLUB ETA ELKARTEEI 2014RAKO DIRU-LAGUNTZAK, NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ, EMATEKO DEIALDIA

1.- ARAUDIA

Diru-laguntza deialdi hau honakoek arautzen dute: abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak (azaroaren 18ko BOE); Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008ko uztailaren 22koa, 140 zk.); eta Zarauzko Kirol Patronatua Erakunde Autonomoak diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emateko Oinarri Bereziak. Azken horien barruan sartuta dago deialdi hau.

2.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko kirol klub eta elkarteek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira eta 2014 urterako izango dira (2012-2013 denboraldirako, kirol denboraldia urte naturalarekin bat ez datorren kiroletan).

Diru-laguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

3.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Diru-laguntzen zenbateko osoa: 33.950,00 euro.

Diru-laguntzak honako aurrekontu kredituei egozten zaizkie:

- 1 0101.481.452.03.02 2014 partida "Kirol egitasmoak orokorrean": 33.950,00

4.- EMAKIDAREN ARAUBIDEA

Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emango dira.

5.- DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Zarautzen errotuta dauden eta jarduera nagusia bertan garatzen duten kirol klub eta elkarteek (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik), baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean ez badaude.

Baldintza horiek betetzen dituztela frogatzeko, behar bezala betetako eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utz ditzaten.
- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala bada, gogio, aitortpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.

- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Laguntza hau lehen aldiz eskatzen dutenek Kirol Erakundeen eta Elkartearen Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta daudela frogatzeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

6.- ORGANOA ESKUDUNAK

Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena honako organoa hauek dute:

1. Izapidetzea (instrukzio-organoa): Kiroldegiko zuzendaria.
2. Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiko kideek osatua.
3. Ebazpena: Zarauzko Kirol Patronatuko Lehendakaria.

7.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epea izango dute eskatzaileek beren eskaerak aurkezteko.

Eskaerak Zarauzko Kirol Patronatuaren Erregistro Nagusian (Aritzabalde Udal Kiroldegia, Zuberoa kalea z.g.) aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin bada, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta gauzatuko da lege horretako 59. artikuluan jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru laguntzak Zarauzko Udalaren web gunean argitaratzea baztertu gabe.

9.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriaz gain, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Horren gainean, interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezaketek, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarauzko Kirol Patronatuaren esku utzi ditzaten.

- Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena. Ezintasun egoerak, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusitakoak izango dira.
- Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki kutxa batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.
- Laguntza hau lehen aldiz eskatzen dutenek Kirol Erakundeen eta Elkarten Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta daudela frogatzeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.
- Egin beharreko jardueraren memoria.

10.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

a) Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko diru-laguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritz:

- Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- Taldeen partaidetza eremua: % 20
- Atal kopurua: % 3
- Eliteko lizentzien kopurua: % 5
- Teknikarien titulazioak: % 5
- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
- Aparteko joan-etorriak: % 5
- UDA kanpainan jarduerak antolatzea: % 7

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin —puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazlearen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko (elite kirolekoak izan ezik):

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroletako lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kiroletakoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izanez gero.

Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzat: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

2.- Puntu bat eliteko kirolean federatutako lizentzia bakoitzeko.

Oinarri hauen ondorioetarako eliteko kiroltzat hartuko da, bere kirol-modalitatean, kategoria absolutuan, mailarik gorenean parte hartzen duen taldea; edo goreneko bi mailatan, baldin txapelketa estatu mailakoa bada eta kirol-jarduera hori gutxienez goreneko lau mailatan egituratuta badago. Banakako kirol-modalitateetan eliteko kirolaritzat hartuko da estatu edo goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzen duena, baldin txapelketok kategoria absolutukoak badira eta partaidetza askekoak ez badira.

3.- Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

4.- Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, frogatzen bada kirol-teknikariak euskarako honako titulazioten bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

5.- Klubaren kirol atal bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita:

5 puntu bakoitzeko, eta 10 puntu baldin atalak gizonezko eta emakumezko kirolariak baditu (kirol-ataltzat soilik hartuko da kirol-modalitate aitortuekin bat datozenak eta gutxienez federatutako 10 kirolari dituztenak).

6.- Kirol-teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzeagatik:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak.

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua kasu bakoitzean Oinarri Arautzaile hauetako II. eranskineko Xedapen Gehigarrian ezarritakoa izango da.

11.- PUBLIZITATEA

Prozedura honen baitako egintzak Zarauzko Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

12.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa egingo da Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Zarauzko Kirol Patronatuaren diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarri Bereziatan ezarritakoari jarraiki, eta emakida jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Diru-laguntza eman deneko jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean egin beharreko justifikazio mota zein modalitatearen bidez justifikatu beharko den.

7.- "CINE MODELO" IZENEN ONDASUN HIGIEZINA EROSTEKO AUKERAREN ESKUBIDEA ERABILTZEA

2014ko maiatzaren 20an, José Miguel Zubillaga e hijos sozietateak eta Zarauzko Udalak bien artean sinatutako alokairu-kontratua aldatzea hitzartu zuten eta bertan Udalaren aldeko erosketa-aukeraren eskubide bat sartzea

Une honetan Zarauzko Udalak eskubide hori erabili nahi du.

Horiek horrela, eta 2014ko azaroaren 13an egindako bileran Kultura Ereduaren informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Zarauzko Udalak kontratu horretan deskribatutako finkak erosteko aukeraren eskubidea erabiltzea.

Bigarrena.- Modu frogagarrian komunikatuko dio errentatzaileari erosteko aukeraren eskubidea erabiltzeko asmoa duela. Errentariak erosteko aukera erabiltzeko asmoa duela adierazteko jakinarazpen frogagarria egiten duenetik, gehienez ere 3 hilabeteko epea egongo da salerosketaren eskritura publikoa formalizatzeko. Alderdi saltzaileak ez ditu hitz emandako finkak besterenduko edo inolako titulu edo kontzepturen izenean kargatuko, harik eta hitzartutako salerosketa-eskritura egiten den artean.

Hirugarrena.- Finkak karga eta zorrik gabe entregatuko dira, eta zerga eta ariel guztiak eta, gonez gero, komunitate-gastuak ere ordainduta dituela.

Salerosketaren prezioa guztira 1.480.658 eurokoa izango da (zergak sartu gabe). Dena den prezio horretatik kendu egingo dira 2014an errenta moduan ordaindutako 30.000 euroak. Ondorioz, Zarauzko Udalak ordaintzeko edukiko duen zenbatekoa 1.450.658 eurokoa izango da.

Kopuru horren ordainketa, osorik, atzeratuta geratuko da, eta urteko % 2,5eko interesa sortuko du. Alderdi erosleak saltzaileari gehienez ere 4 urterokotan ordainduko dizkio ordaintzeko gelditu den atzeratutako zenbatekoa eta horrek sortzen dituen interesak, honakoaren arabera:

URTEA	Printzipala	Interesak	Urteko kuota guztira	Ordaindu gabe
2015	349.344,38€	36.266,45€	385.610,83€	1.101.313,62€
2016	358.077,99€	27.532,84€	385.610,83€	743.235,63€
2017	367.029,94€	18.580,89€	385.610,83€	376.205,69€
2018	376.205,69€	9.405,14€	385.610,83€	---
GUZTIRA	1.450.658,00€	91.785,32€	1.542.443,32 €	

Urte bakoitzeko kuotaren ordainketa aldi bakar batean egingo da, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, kopurua BBVA banketxeko 0182 1539 1 5 0010939507 kontu korrontean sartuta. Banketxeko agiriak ordainagiri formal modura balioko du. Aurreneko urteko kuota –385.610,83 €– eskritura publikoa formalizatzen denean ordainduko da.

Zarauzko Udalak aurreratu ahal izango du ordaindu gabe daukan printzipalaren kopuru osoa edo zati bat. Kasu horretan berriz kalkulatu dira artean ordaintzeko gelditzen diren urteko kuotak (printzipala eta interesak).

Eskritura publikoa sinatzen denetik aurrera Zarauzko Udalak bere gain hartuko du finkaren jabetza, zeina okupatu eta erabili ahalko duen berezko eskubidez.

Ondorengo gastuak alderdi eroslearen gain eta kontura izango dira:

- Salerosketako eskritura publikokoak eta eskriturak Jabetzaren Erregistroan inskribatzekoak.
- Ondare-transmisioen zerga eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

Laugarrena.- Honako aurrekontu-kreditua onartzea 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetan urte anitzeko gastuari aurre egiteko:

2015. urtean	Konpromiso-kreditua	385.610,83 €
2016. urtean	Konpromiso-kreditua	385.610,83 €
2017. urtean	Konpromiso-kreditua	385.610,83 €
2018. urtean	Konpromiso-kreditua	385.610,83 €

8.- 2015rako AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK

(2014 ZZZZ 0042 espedientea)

2002an, Eusko Jaurlaritzak 2/2000 Legea (turismo ibilgailuetan eskainitako hiriko eta hiri arteko garraioa arautzen duena) garatzen duen Erregelamendua onartu zuen. Lege horrek ezarritakoaren argitara, ARAUBIDE BEREZIKO EREMUA eratu zen Urola Kostan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia biltzen dituen. Hori guztia egin da, Lurralde Antolamendu eta Garapenerako Foru Diputatuaren aginduaren bidez (487/05 Foru Agindua, GAO 180 zk., 2005-09-22).

Urola Kostako Udal Elkarteak aurtengo irailaren 23ko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 10.048 zk.) Udal honi jakinarazi dionez, Taxiaren Eskualdeko Batzordeak erabaki du 2015erako taxien tarifei gehikuntzarik ez eskatzea eta 2014ean onartu ziren prezioak mantentzea; eta, bide batez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa bidali du, Udalbatza honek onar dezan.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, batzorde horrek aurkeztutako "Auto-taxiaren idatzia 2015eko tarifei buruz" kontuan izanik, Udalerri ereduaren eta lurralde antolaketaren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- 2015. urterako Zarauzko AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HIRI-TARIFAK onartzea, ondoren zehazten denaren arabera:

TARIFA	Abiasaria	Ibilitako km-ko	Itxoite-ordua
1*	5,2286 euro	1,1158 euro	21,3091 euro
2**	6,2240 euro	1,7796 euro	34,7829 euro

Gutxieneko tarifen barne hartuta daude 1,5 Km-ko ibilbidea egitea edo 5 minutuz itxopen egotea.

- (*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara.
- (**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, gaueko 22,00etatik goizeko 07,00etara. Era berean, 2. tarifa hau goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara aplikatuko da, igandeetan, dagokion autonomia- eta toki-arauegian zehaztutako jaiegunetan eta larunbatetan, eta baita abenduaren 24 eta 31n ere.

Bigarrena.- Akordio hau Urola Kostako Udal Elkarteari bidaltzea, arauzko izapideak bete ditzan.

Une honetan **Isidor Larrañaga** jauna bilkutatik joan da.

9.- ZARAUZKO UDAL MERKATUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

Udalbatzarrak, 2009ko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran, ZARAUZKO UDAL MERKATUA ARAUTZEKO ORDENANTZA onartu zuen, eta testu osoa urte bereko otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (25 zk.) argitaratu zen.

Merkatuak bere jardura mantendu eta merkataritza-gune dinamiko bat izaten jarrai dezan, gunea berriz arautu eta bultzatu beharra dago. Horrekin batera, hutsik dauden lokalei irtenbideak eman nahi zaizkie.

Horiek horrela, eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak, 2014ko azaroaren 18an aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen. Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDAL MERKATUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN aldaketari, zehazten den moduan:

- 2., 3., 8., 9., 11., 12., 18., 28. eta 41. artikulua aldatzea
- Xedapen gehigarri bat sartzea

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

IDAZKERA BERRIA

2. artikulua

Honakoak Udaltzaren eskumenekoak izango dira; dena den, bete organo bati eskuordetzan eman ahal izango dizkio, a) eta b) ataletan xedatutakoak izan ezik:

- c) Ordenantza hau onartu, aldatu edo indargabetzea.
- d) Merkatua aldatu, kendu edo sortzea.
- e) Arau-hauste oso larrien ondoriozko zehapenak ezartzea.

Honakoak Alkatetzaren eskumenekoak dira; dena den, zerbitzuaren zinegotzi arduradunari edo Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzan eman ahal izango dizkio:

- d) Merkatuko zerbitzuaren zuzendaritza, sustapena eta ikuskapena.
- e) Salmenta-postuak esleitzea, emakida bidez.
- f) Ordutegi komertzialak finkatzea, Merkatua jendeari irekitzea, salgaien zamalanetako ordutegia jartzea; eta hori guztia emakidadunei entzun ondoren.
- g) Merkatu barruko gaiak erabakitzea: garbitasun araubidea, zabor-bilketa, apaingarriak eta beste batzuk.
- h) Ordenantza honetako 17. eta 18. artikuluetan aurreikusitako salmenta-postuen subrogazioa, heriotzaren ondoriozko eskualdatzea eta elkartrukea baimentzea.
- i) Arau-hauste oso larriei buruzko zehapenak proposatzea, eta arau-hauste arin eta larrien zehapenak ezartzea.
- j) Ordenantza honek espresuki jarritako gainerakoak.

3. artikulua

Udalak Merkatuan egingo duen esku-hartze administratiboak honakoak bermatuko ditu: salmentan jarritako gaien kalitatea eta saltzaileen lehia askea.

8. artikulua.-

h) **BESTE ERABILERA BATZUK:** edozein merkataritza-jarduera baimendu ahal izango da, betiere eragin kaltegarriarik ez badie sortzen gainontzeko postuei, eta bermatzen bada postua prestatua dagoela jarduera zehatz hura burutzeko.

9. artikulua.-

Salmenta-postu EZ-FINKOAK EDO IREKIAK: bakoitzaren uztakoak diren nekazaritza-produktuak saltzeko izango dira. Banku jarraituetan lore eta landareak ere saldu ahal izango dira, baldin inguruko postuekiko higie eta garbitasun baldintzak betetzen badira.

Alkatetzaren eskumenekoa izango da salmenta-postu irekien kopurua, modalitatea, kokapena eta neurriak mugatzea, betiere kontuan izanda Merkatuaren azalera osoa eta herritarren hornidura beharrak.

Saltzaile edo sozietate batek gehienez hiru salmenta-postu ez-finko edo ireki okupatu ahal izango ditu.

Salmenta-postu irekien kopurua, kokapena eta neurriak Ordenantza honetako II. eranskinean jasota daude, bai eta Udal Zerbitzu Teknikoek baimendutako planoak ere.

11. artikulua.-

Emakida edo baimen administratiboaren izaera edukiko du salmenta-postuen esleipenak, eta titularrak ez du jabetza lortuko, baizik eta okupazioko eskubide erreal bat.

Pertsona juridikoek ezingo dute beste salmenta-postu finko baten titulartasuna eskuratu, baldin bere bazkideetako bat beste postu bateko titularra bada eta bertako kapital soziala osatzen duten akzioen eta parte-hartzeen % 25 baino gehiago berea badu; ezta beste salmenta-postu batzuetako titular diren pertsona fisikoek ere, baldin pertsona juridiko bateko bazkide badira eta bazkide horrek kapital sozialaren % 25 berea badu.

Salbuespen modura, baldin eta postu finkoetako bat hutsik badago, jada lehendik postu bat duen pertsonaren eskaerak onartu ahal izango dira. Bigarren postu hori ezin izango da lehenengoaren biltegi bezala erabili, hau da, jendaurreko zerbitzua ere eman beharko du.

Salmenta-postu finko bateko titularrak ezingo du postu ez-finko bat okupatu.

12. artikulua.-

Salmenta-postu finko edo itxiak enkante edo lehiaketa ireki bidez esleituko dira, eta esleitzen direnetik gehienez ere 25 urteko epealdirako emango dira.

Enkantearen prozedura erabiliko da, baldin esleitu beharreko salmenta-postuak, salduko dituen produktuen arabera, kategoria zehaztuta badu.

Lehiaketaren prozedura erabiliko da, baldin esleitu beharreko salmenta-postuak kategoria zehaztu gabe badu. Kasu horietan esleipena emateko organo eskudunak, eskaintza ekonomikoaz gain, lehiatzaileak saldu nahi dituen produktuak baloratuko ditu, kontuan hartuta herritarrentzako produktuak izan dezakeen interes edo behar handiago edo txikiagoa.

Bi kasuetan esleipendunak esleipenaren prezioa aldi batean ordainduko du, Ordenantza Fiskalarekin bat etorritik erabilera eskubideak kitatzeko, eta Ordenantza honetako V. Kapituluko II. Tituluan deskribatutako dokumentazio teknikoa ekarriko du.

Hutsik dauden salmenta-postu finko edo itxiak, egoera horretan dauden artean, ohiz kanpo eta aldi baterako esleitu ahal izango zaizkie hala eskatzen dutenei, harik eta, Ordenantza honetan aurreikusitako prozedurei jarraiki, esleitzen diren arte. Emakida mugatu hauetan ordenantza fiskalek jasotako hileroko ordainarazpena igorriko da.

Hutsik dauden postuak esleitzeko egiten diren prozeduretan, lehentasuna izango dute urte osoko emakidak eskatzen dituzten jarduerak.

18. artikulua

Alkatetzak onartu beharko du salmenta-postua okupatzeko eskubideari uko egitea, baina aurrez interesdunak Udal ogasunarekin dituen betebeharrak bete dituen frogatuko da, bai eta salmenta-postua kontserbazio-egoera onean dagoen ere.

Salmenta-postua berriz ere martxan jartzeko konponketak egin behar badira, horiek uko-egileak ordainduko ditu.

28. artikulua.-

Udal Merkatuak honakoak izango ditu bere baitan: komun publikoak, guztien biltegia, aldagelak, instalazioen gelak eta lehen solairuko espazioak.

Lehen solairuko biltegia Udalak soilik erabiltzekoa da. Behe-solairuko biltegia eta aldagelak postu guztien esleipendunek (ireki eta itxitakoek) erabili ahal izango dituzte.

Biltegiaren eta aldagelaren funtzionamendua Alkatetzaren dekretu bidez arautuko da.

Elementu finkoekin okupazioa egin ahal izateko dagokion baimena jaso beharko da, eta elementuak okupatzen duen azalera postuaren azalera bezala hartuko da, tasak likidatzeko garaian.

41. artikulua.-

Salmenta-postu finkoetako fatxaden eta errotuluaren tratamendua. Jarduerari lotutako altzari osagarriak:

1 Fatxaden tratamendua

Postu bakoitzeko egokitze-lanek ez dute eraginik izango bere fatxadako neurrietan, materialetan eta elementu iraunkorren egiturazko izaeran, eta ezingo da horren gainean inolako elementurik jarri.

2 Errotuluak

Ez dira baimenduko errotulu keinukariak, dardarkariak edo mugikorak, ez eta uniformetasuna hautsi eta, horien argitasunagatik, gogaikarriak edo Merkatuko beste dendarientzat kaltegarriak izan daitezkeenak.

Errotuluak ezingo dira fatxadarekiko perpendikular jarri, eta gehienez ere 0,25 metro irtengo dira fatxadatik.

3 Altzari osagarriak:

Dagokion baimena eman ahal izango da bezeroentzako mahai eta aulkiak jartzeko postu finkoetan, betiere irisgarritasuna eta Ordenantza honetan jasotako arauak eta helburuak betetzen direla bermatzen bada. Okupatzen den azalera postutik kanpo geratzen bada, ordenantza fiskalek beladoreentzat aurreikusitako tasak aplikatuko dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.-

II. eranskinaren planoaren epigrafea baliogabe geratzen da. Epigrafean, postu finko bakoitzari dagokion jarduera jasotzen zen.

10.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA. HASIERAKO ONESPENA

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredia eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilia.

Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Hernani, Arrasate, Errenteria, Eibar eta Zarautz udalerrietako hiri-autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko eragilea eta Oiartzungo hiri-autobusa. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratuaren txartela erabil dezakete ordaintzeko.

Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako taldeko garraio publikoa erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema bihurtzea eta taldeko garraio publikoaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia delarik iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea.

Tarifa bateratuaren ondorioa den Gipuzkoako bidaiarien garraio publikoaren esparru berrian egiaztatu ahal izan da beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartzea eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoar guztiak eskubide eta betebeharrak izan ditzaten, garraioaren eskumena norena den edo zerbitzua nork ematen duen alde batera utzita. Halaber, zerbitzua ematen duten garraio-eragile guztiak zerbitzu hori emango dute arau-esparru bakar baten barruan.

Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die eragileei.

Araudi hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko taldeko garraio publikoan tarifa-sistema bateratua ezartzeko 2013ko irailaren 25an Udalak sinatutako lankidetza hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.

2014ko azaroaren 6an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Asanblada Orokorrak ahobatez onartu zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendu proposamena eta berau bidaltzea kontsorziatutako Udalei, barne-izapideak abian jarri eta onartua izateko.

Hau guztia dela eta, Zarauzko Udaleko Udaltzari Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua onartzea dagokio, bere eskuduntza eta lurralde esparruan.

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematea era bateratu eta homogeen arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten pertsoneri eta zerbitzua ematen duten eragileei.

Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute.

2014ko azaroaren 17an proposamenaren alderdi juridikoei buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak egindako proposamena eta Udalerri ereduaren eta lurralde antolaketaren Batzordea egindako informazio batzordeak irizpidea eman ondoren, Udaltzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari, Zarauzko Udaleko eskuduntza eta lurralde esparruan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun baliouduneko epean, interesdunek iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Onartzea informazio publikoaren fasean jasotako alegazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren baitan erregelamendu proposamena landu duen lan-taldeak modu bateratuan informatzea.

Laugarrena.- 2014ko abenduaren 4an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren hasierako onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea.

Bosgarrena.- Iradokizunik aurkeztu ezean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

Seigarrena.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua behin betiko onartu denean:

- a) Harmonizazio-erregelamendua kontraesaten duten xedapenak indargabetzea.
- b) Garraio-zerbitzuaren tarifa-erregulazioa egokitzea, Ordenantza Fiskaletan aparteko errenergua arautzeko.
- c) Indarrean dagoen bidaiarien hiriko garraio-zerbitzu publikoaren emakidaren kontratua aldatzea erregelamendura egokitzeko.
- d) ZARAUZKO HIRUBUSA, S.L, emakidadun empresari jakinaraztea harmonizazio-erregelamenduaren onarpena eta indarrean sartzeko data, berau zabaltzeko eta konpainien barne-araudiak araudi-bateratuarekin bat ez datozela ziurtatzeko.
- e) Onartzea Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren alde egindako kudeaketa-gomendioa ondorengo jardueretan:
 - Tarifa-izaerako aparteko errenergua kobratzeko izapideetan.
 - Irisgarritasun unibertsala behar bezala betetzeko zaintza-lanetan.
 - Ibilgailuetako soinudun mekanismoak aktibatuzko beharrezkoak diren mandoen erosketan eta banaketan.
 - Harmonizazio-erregelamenduan jasotako arau-urratzeek eragindako zehapen-espedienteen izapidetza.
- f) Emakida-kontratu berrietan harmonizazio-erregelamendua derrigorrez betetzeko beharra jasotzea.

- g) Ez eguneratzea aparteko errekarguaren zenbatekoa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrekin bat etorri gabe.
- h) Harmonizazio-erregelamenduaren aldaketak onartzea, soilik Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorra aurrez hala erabaki badu.
- i) Udaltzak harmonizazio-erregelamenduaren behin betiko onarpenari buruz erabakitakoa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari jakinaraztea, erabakia hartu eta biharamunean.”

GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA.

ZIOEN AZALPENA

I. Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektibo kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia, Irun eta Errenteriako udalek, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, SAK, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzak 2012ko otsailaren 20an sinatutako lankidetzarako protokolo orokorrean, Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzea sustatzeko lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen.

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako lurraldeko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredu eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilita arrakastaz garaturik.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein garraio-eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilia.

Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten garraio-eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernani udalerrietako hiri-barneko autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko garraio-eragilea eta Oiartzungo hiri-barneko autobusa. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratua erabil dezakete garraio-zerbitzua erabiltzeko ordainketa-baliabide moduan.

Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako garraio publiko kolektiboan erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema bihurtzea, erraz ulertzeko moduko eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutako tarifa-sistema bat ezartzea, eta garraio publiko kolektiboaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia delarik iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea.

II. Tarifa-sistema bateratuaren ondorioa den garraio publikoaren ingurune berria aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartu eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoarrek eskubide eta betebeharrak izan ditzaten, garraioaren eskumena duen titularra edo zerbitzua ematen duena edozein dela ere. Halaber, garraio-eragile guztiek arau-esparru bakar baten barruan emango dute zerbitzua. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die aipatutako eragileei.

Erregelamendu hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako kontsurtziokideak diren erakundeek sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da erakunde horiek konpromisoa hartzen dutela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzua publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-eragileei.

III. Garraio publikoaren jarduera herritarren zerbitzura bideratuta egon behar da, zerbitzu erregular, maiztasuneko, puntuala, azkarra, autobus-aldaketa ahalbidetzen duena, eroso eta segurua eskaintzea lortzeko, informazioa formatu egokietan eskaintzen duena, guztientzako diseinuaren printzipioak markatutako arauei jarraituz, eta zerbitzuaren egoera zehatzen arabera egokiena dena.

Gipuzkoako gizartearen bilakaeraren ondorioz, eskakizun berriak sortu dira garraio publikoko zerbitzuan: irisgarritasun unibertsalari eta mugikortasun murriztuari lotutakoak, haur-kotxe eta -aulkiak sartzeko modua antolatzekeo beharra, bizikletak edo etxeke animaliak sartzeko baimentzeko aukera, biztanle-dentsitate txikiari edo eskaera-maila baxuari erantzuna emateko zerbitzuak, bakar batzuk adieraztearren. Eskaera horiei erantzuna eman nahi diegu Erregelamendu honetako artikuluen bidez, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek apustu argi bat eginda, pertsona guztiek garraio publikoa erabiltzea ahalbidetzen duen zerbitzu unibertsala sustatzeko, denok ibilgailu pribatua erabili behar izan gabe dugun mugikortasunerako eskubidea erabiliz.

Mugikortasuna oinarritzko eskubidea da herritar guztientzat, eta zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria, ingurune abegitsuan eskainia eta guztientzat seguru eta eroso izateak eragina du gizarte osoaren bizi-kalitatean. Diseinu unibertsala onuragarria da adin guztietako eta gaitasun guztietako pertsona guztientzat.

Erregelamendu honen xedea da garraio-zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria izango dela bermatzea, pertsonen mugikortasun-arazoak, zentzumen-komunikaziorako arazoak, pertzepzio-arazoak zein dibertsitate kognitibo edo mentaleko arazoak izan edo ez.

Garraio publikoaren bidez mugikortasun irisgarria bermatzeko oinarria bidaiarien mugikortasun-kateko espazio eta une bakoitzean ezartzen diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak eta zehaztasunak lortu eta betetzea da, eta kate hori honela eratuta dago: azpiegitura edo instalazio finkoak (adibidez, geltokiak edo markesinak), ibilgailuak, bien arteko lotura, informazio-, seinaleztapen- eta orientazio-sistemak, eta, azkenik, berez zerbitzua dena ematea.

IV. Erregelamendua, bestalde, honela egituratuta dago: Atariko Titulua eta bost titulu gehiago, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

V. Erregelamenduan berariaz jaso nahi izan dugu irisgarritasun unibertsalari buruzko berariazko titulu bat, I. Titulua, hain zuzen ere, eta bertan bereizi egin dira irisgarritasun unibertsalaren eta mugikortasun murriztuaren kontzeptuak.

Ildo horretan, erregelamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sensoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

Egungo gizartean, bizi-itzaropena handituz doa etengabe, eta hala, pertsona ugari istripu edo gaixotasunen ondorioz murriztua dute mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, eta halaber, pertsona ugari, egoeraren arabera, mugikortasun mugatua dute. Gizartea bera da garraioan irisgarritasun-baldintzen hobekuntza eskatzen duena, horrek pertsona horien eta, oro har, gizartearen bizi-kalitate hobea ekarriko baitu.

8. artikuluan, erabiltzaileen bizitzan norberaren egoera iraunkorraren edo behin-behinekoaren arabera mugikortasun murriztuko pertsonatzat hartzen diren pertsona multzoen zerrenda bat jaso dugu. Artikuluaren barruan, desgaitasunaren legezko definizioa gaindituta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak sartu dira, eta lehentasunerako araubide argia ezarri da erreserbatutako espazio eta eserlekuetan. Halaber, ibilgailuetan sartzeko lehentasun-araubidea ezarri da, eta, hala, erabiltzaileen zein gidarien arau-hauste bezala tipifikatu da mugikortasun murriztua duten pertsonen erreserbatutako plaza horiek okupatzen ez uztea.

Ildo berean, aurretiazko erreserbarako araubide bat ezarri da ibilbide luzeko bidaietan, aulki gurgildunean lekualdatu behar diren pertsonentzat, eta, hala, zerbitzuaren titularra den administrazioak ordezkotako garraioa bermatuko dio erabiltzaileari, aurretiazko erreserba egin eta gero, erreserbatutako plaza edo espazioaren eskaerari garraio-enpresa eragileak erantzun ezin dionean.

Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonen gastu gehigarria izaten dutela jakinda -zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute-, berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute, itsuen eta aulki gurgildunean lekualdatzen diren pertsonen laguntzaileentzat, eta, hala, doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positibozko neurri horren bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira.

Erregelamenduan arabera, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek sustatuko dute garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei zuzentzen dieten informazioa formatu egokietan eskaintzea, pertsona guztientzat irisgarri eta ulerterrazak izan daitezzen, irisgarritasun kognitiboaren ildoetara jarraituz. Halaber, arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan, komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko, eta dena pixkanaka-pixkanaka, gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta.

Azkenik, aurreikuspen bat sartu da, alegia, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek autobusetako eta, hala badagokio, geltokietako gailu akustikoak aktibatze beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa sustatzea, hala eskatzen duten pertsonen artean.

II. Tituluan, garraio-zerbitzua erabiltzean bidaiariek dituzten eskubide eta betebeharrak buruzkoan, erabiltzaileen interes askotarikoak kontuan hartu nahi izan dira, bizitza pertsonal eta profesionalaren beharrei erantzun ahal izateko.

Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoarekin bat, erabiltzaileen hizkuntz eskubideak ere kontuan hartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, eta eskubide horiek bermatu egin behar dituzte bai zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, bai garraio-enpresa eragileek.

Erregelamenduen bidez, haur txikiak dituzten familien betebeharrak erantzun nahi zaie, familia-bizitza eta bizitza profesionala bateratzeko zailtasun handiak dituztenean. Era horretan, ahalbidetu egin da heldu batek 5 urteko behararako 4 adingaberekin batera bidaiatzea eta adin horretatik aurrerako haurrek bakarrik bidaiatu ahal izatea, guraso edo tutoreek horretarako baimena ematen badiete. Nolanahi ere, ohiz kanpoko edozein egoera edo adingabeenganako arretarik eza hautemanaz gero, gidariek horretarako gaitutako mekanismoak erabili ahal izango dituzte. Neurri horien bidez, familia eta lanbidea bateratzeko erraztasunak eman nahi dira eta, halaber, udalerriri txikietan orokorra den jardun bat islatzea, izan ere, bertan, hiri-barneko garraioa ikastetxeetara joateko ohiko bitartekoa da.

Garraio iraunkorra eta modu-arterekotasuna sustatzeko xedez, bizikletak eramaten dituzten pertsonak sartu ahal izango dira dituzten ezaugarrien arabera hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, zerbitzuaren egoera kontuan hartuta, eta lurraldeko goi-eremuetako linea eta geltokietan. Hala eta guztiz ere, herritarrei alde aurretik iragarrita, zerbitzuaren titularrak den administrazioak mugak jarri ahal izango ditu, egun jakin batzuetan edo ekitaldi jakinak daudenean.

Ildo horretan, halaber, tolestutako bizikletak eskuko fardel edo ekipajetat hartuko dira, ondorio guztietarako.

Erabiltzaileak izan daitezkeen pertsonen dibertsitatea errespetatzeko, eta Europako gainerako herrialdeetan zein Estatuko beste hiri batzuetan dauden azken joerekin bat, baimendu ahal izango da etxeko animaliek lagunduta doazen pertsonen bidaiatzea. Maskota-kopurua, eta bereziki txakur-kopurua, etengabe eta biztanleriaren adina igotzearekin batera handitzen ari dela jakitun izanik, garraio-zerbitzuaren titularrak diren administrazioek txakur eta katuek eramatea baimentzeko apustua egin dute, eta kasu zehatz batzuetan, tamaina txikiko beste animalien bat ere bai.

Hala eta guztiz ere, hainbat baldintza ezarri dira etxeko animaliak garraiatzeko, gainerako erabiltzaileen konfort- eta erosotasun-baldintzak errespetatu eta animalien ardura dutenek erantzun dezaten animaliek sor ditzaketen kalte edo bestelako gorabeheren aurrean.

Zerbitzua normaltasunez emateko orduan, erabiltzaileen interes kontrajarriak zailtasunak edo haserrealdiak sor ditzaketela jakinda, erregelamenduen bidez gidarien irudia nabarmendu nahi izan da, eta, hala, gidariaren irizpidea izango da nagusitzen dena erabiltzaileen artean edo erabiltzaileen eta garraio-enpresa eragileetako langileen artean desadostasunak gertatuz gero.

III. Tituluan, garraio-enpresa eragileen betebeharrak jaso dira. Berrito ere pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko helburuaz, erregelamenduen bidez ezarri da zerbitzua emateari buruzko informazio guztiak modu irisgarrian eskaintzeko betebeharrak; hala ere, betebeharrak hori arian-arian beteko da, gaiaren konplexutasun teknikoa kontuan hartuta.

IV. Tituluan, garraio-tituluar buruzkoan, Gipuzkoan 2013ko martxoaren 4an ezarri ziren tarifa bateratuen ondorioa den egoera berriari erantzuna emateko, txartela sartu da tarifa-sistema bateratuko tituluen barruan, eta tarifa-izaerako aparteko errekaru bat sortzea aurreikusitako da. Txartel pertsonalizatuak behar bezala ez erabiltzeagatik jarriko diren zigorren araubidea ezarri da, eta berariaz bidaltzen da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak onartu eta 2014ko apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratua kontratatze eta erabiltzeko Baldintza Orokorretara.

V. Tituluan, erregelamendu honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik ezarriko den zehapen-araubidea aurreikusitako da.

Amaitzeko, erregelamenduan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan jarraipen-batzorde bat sortzea erabaki da, honela osatuta egongo dena: kontsultatzaileak diren administrazioen ordezkariak, garraio-

enpresen ordezkariak, eta mugikortasuna mugatua duten edo bestelako mugaketa psikiko edo sentsoriala duten pertsonen alde lan egiten duten elkarteen ordezkariak. Kontsulta-izaera izango duen batzorde horrek erregelamendu hau bete eta garatuko dela zainduko du, eta, egokia bada, Gipuzkoako gizartearen eskakizunei behar bezala erantzun ahal izateko testuak behar dituen aldaketak proposatuko ditu.

Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Erregelamenduaren xedea eta erregelamendua ezartzeko eremua

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.

Erregelamendu hau ezargarrria izango zaie adierazitako garraio publikoko zerbitzua erabiltzen dituzten pertsoneri eta zerbitzu hori ematen duten garraio-enpresa eragileei.

2. artikulua. Zerbitzuaren izaera publikoa

Bidaiarien garraio-zerbitzua izaera publikokoa da, eta, hortaz, garraioa erabiltzeko eskubidea izango dute hala nahi duten pertsona guztiak, erregelamendu honetan eta errepideko bidaiarien garraioari buruz indarrean dagoen legeria ezargarrrian erabiltzaileentzat jasotako baldintzak eta betebeharrak muga bakarrek direla.

Garraio-zerbitzuaren titularrak den administrazioak eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu pixkanaka-pixkanaka pertsona guztien irisgarritasun eta mugikortasuna bermatzeko.

3. artikulua. Definizioak

Hona hemen kontzeptu batzuen definizioa, erregelamendu honen eraginetarako:

Bidaiaria: Erregelamendu honetan arautzen den garraio-zerbitzu publikoaren erabiltzaile guztiak. Pertsona bat definizio honen barruan sartuko da aldez aurretik tiketa erosten duen unetik edo zerbitzuaren titularrak den administrazio publikoak finkatutako geltokiren batean zerbitzuaren erabilera eskatzen ari den unetik, lekualdatzen ari denean eta aipatutako administrazioak ere finkatutako beste geltoki batean ibilgailu horretatik jaitsi arte.

Adingabea: bost urtetik beherako bidaiaria.

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra: garraio publiko erregularrak, iraunkorrek edo aldi baterakoak, eta erabilera orokorrekoak honako hauek dira: administrazio publiko eskudun batek ezarritakoak diren eta eskaera orokorrari erantzutera zuzentzen direnak, errepideetan ibiltzen diren ibilgailuen bitartez. Zerbitzu horiek eskaerari egokitutako garraio-zerbitzu moduan konfiguratuta egon daitezke, edo ez.

Ibilbide luzeko zerbitzua: zerbitzu publikoko linea, III. mailako autokarren bidez ematen dena; autokar horiek egokituta daude bidaiariak eserita garraiatzeko, eta ez dituzte inolaz ere zutik doazen bidaiariak garraiatzen. Ibilgailu horiek maletategia izango dute, fardelak eta ekipajea, haur-kotxe eta -aulkiak, bizikletak eta etxeko animaliak garraiatzeko.

Ibilgailua: Errepide bidezko pertsonen garraio kolektiborako garraio bide homologatua. Hau da: autokar edo autobusa, minibus edo mikrobusa eta taxibus.

Geltokia: administrazio publiko eskudunak bide publikoan egokitutako espazioa, garraio publikoko ibilgailuak geratzeko eta bidaiariak itxaroteko; bertan, halaber, bidaiariak ibilgailuetara igo eta bertatik jaisten dira.

Geltokiak bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ditu, administrazio publiko eskudunak emandako ezaugarri berezien arabera: markesina, informatzeko elementuak, eserlekuak, etab.

Bizikleta: bi gurpildun zikloa, gainean doan pertsonak pedalen bidez sortutako muskulu-energiak bakarrik edo bereziki bultzatuta mugitzen dena.

Irisgarritasun unibertsala: Ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek zein objektu, tresna, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona guztiak segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoen eta naturalenean horiek ulertu, erabili eta eskuratu ahal izateko. Berekin du "diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren" estrategia, eta ulertu behar da egin behar diren zentzuzko doikuntzak egingo direla.

Garraio kolektiboko sistemek irisgarritasun unibertsalaren diseinu-jarraibideak bete behar dituzte, erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsonari egokia den zerbitzua eskaini ahal izateko, giza aniztasuna eta horren arabera eskakizunak kontuan hartuta; eskakizun horiek, hain zuzen ere, garraio modu bakoitzeko diseinu irisgarritarako zehaztasun tekniko multzo batean eta horien arteko elkarrekintzan gorpuzten dira.

Mugikortasun murriztua duten pertsonak: aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak dira, eta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

Plataforma: autobusean gainerako espazioak baino gardenagoa dena; bertara, zuzenean iristen da kanpotik, eta eusteko elementuak edota eserleku bereziak ditu, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren edo mugikortasun murriztua duten gainerako pertsonak, haur-kotxe eta -aulkiak, eta fardel jakin batzuk garraiatzeko.

4. artikulua. *Zerbitzuaren eskumena, antolakuntza eta ustiapena*

Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregular bakoitzean eskumena duen administrazio publikoa da zerbitzua ezartzen duena, eta, halaber, horren titularra da, bidaiarien errepide bidezko garraioari buruz indarrean dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein, hedaduraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezargaria den araudiaren arabera.

Administrazio publiko horrek erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua antolatu eta planifikatuko du, bai linea, ibilbide, geltoki eta ordutegi dagokienez, bai bere eskumenekoa den garraio horrekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, eta halaber, berariaz pertsona guztien irisgarritasun unibertsala bermatzen duten sistema eta elementu guztiei dagokienez, hala nola: inklinatzeko sistemak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta txirrin egokituak.

Administrazio publiko horrek, era berean, zerbitzua kudeatzeko modalitatea definituko du, eta, antolamendu juridikoan aurreikusitakoa betez, garraio-zerbitzu publikoa ustiatu eta bidaiariei eskainiko dien erakunde eragilea hautatuko du.

I. TITULUA. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

5. artikulua. *Esparru juridiko arautzailea*

Garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ezargaria den indarreko legerian, eta, nolana ere, emakida-tituluan edo zerbitzuaren ustiapena egiteko emandako agirian jasota dagoen garraio publikoetako irisgarritasun unibertsalari buruzko araudia betetzera.

6. artikulua. *Irisgarritasuna sustatzen duten elementuak*

1. Ibilgailuak irisgarritasun-sistemez hornituta egongo dira. Aipatutako sistemak erabilgarri eta aktibagarri egongo dira beti, horretarako ezarritako gailuen bitartez, adibidez urrutiko kontrolen bitartez.

2. Ibilgailuek dituzten ezaugarrien arabera, sartu-irteteko sistema hauek eduki beharko dituzte:

- Inklinatzeko sistemak zoru baxuko autobusetan. Sistema horiek beti erabili beharko dira, ezaugarri orografikoek galarazten ez duten bitartean hala ahalbidetzen badute, mugikortasun murriztua duten bidaiariak igo eta jaisteko.
- Arrapalak zoru baxuko autobusetan, aulki gurpildunetan mugitzen diren pertsonak ez ezik, mugitzeko material ortoprotesikoa (taka-takak, makuluak, etab.) behar duten bidaiariek ere erabili ahal izateko.
- Plataforma jasotzaileak zoru altuko autobusetan. Aulki gurpildunetan mugitzen diren bidaiariek sartu-irteteko erabiliko dira.

3. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak deitzeko txirrinak zein ohartzeko sistemak ulertu eta erabiltzea errazteko piktogramak eta bestelako elementuak jartzea sustatuko du, eta, halaber, geltokietan informazio eskuragarria ematea. Ohartzeko sistema horiek ozentasun eta soinu egokiak izango dituzte, gidatzen duen langileari eragozpenik ez sortzeko modukoak.

4. Zerbitzuaren titularra den administrazioak, halaber, ibilgailu eta geltokietan informazioa eskuragarri izatea, eta arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko.

5. Ikusteko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzeko, ibilgailuek seinale argidun eta akustikoak izango dituzte sartzeko ateetan, kirrinkari edo deigarriegiak ez direnak, ateen kokapena erraz aurkitzeko. Era berean, geldialdia eskatu dela bisualki eta soinuaren bidez informatuko da, eta funtzionamenduan mantenduko da ibilbide osoan.
6. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du autobusetako irisgarritasunerako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa, hala eskatzen duten pertsonen artean.

7. artikulua. *Irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea*

Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu garraio-sistema une bakoitzean dauden irisgarritasun- eta mugikortasun-beharretara pixkanaka egokitzeko.

Halaber, garraio-enpresa eragileetako langileei egokia den prestakuntza ematea sustatuko du, mugikortasun murriztua duten bidaiarien beharrei erantzutearren.

8. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien definizioa*

Jarraian adierazitako pertsonak hartuko dira mugikortasun murriztua duten bidaiaritzat -besteak beste ibilgailuen barruan erreserbatutako plazak eta espazioak erabiltzeko xedez-:

- Aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak.
- Zentzumen-zailtasunak (ikusmena, entzumena, mintzamina) eta adimen-zailtasunak dituzten edo garraio-zerbitzu arrunta erabiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak.
- Alderdi antropometrikoak direla kausa, maniobratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, eta, hala, espazio guztietara iristeko edo eserlekuak erabiltzeko gaitasun mugatua dutenak.
- Bihotzeko gaixotasunak edo arnasa-eritasunak nahiz mugitzeko zailtasuna sortzen dieten bestelako gaixotasunak dituzten pertsonak.
- Adin handikoak direlako lekualdatzeko arazoak dituzten edo autonomiaz lekualdatu ezin diren pertsonak.
- Haurdun dauden emakumeak edo adingabeekin doazen pertsonak.
- Gorputz-adar immobilizatu edo igeltsatuta dauzkaten edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonak.
- Mugikortasun funtzionalik ez duten eta lekualdatzeko arazoak dituzten pertsonak.
- Oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak.

9. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu-irtetea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu eta irteteko orduan, segurtasun osoa bermatu beharko da, ezargarria den araudiaren arabera.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartzeko mailara igo ezin direnean, horren berri emango diote ahoz gidatzen duen langileari, eta gidariak egokiak diren baliabideak erabiliko ditu bidaiari horiek autobusean sartzeko. Halaber, hitz egiteko mugatuta dauden bidaiariak keinu bidez adieraziko diote gidatzen duen langileari.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartu eta bertatik jaitsi ahal izango dira erabiltzen erosoan zaien eta esfortzu fisikorik txikiena egitera behartzen dituen atea erabilita.

Mugikortasun murriztua duten bidaiarien aulki gurpildunak sartu eta irteteko, horretarako gaituta dagoen atea erabiliko da, inklinatzeko sistemari eta sartzeko arrapalari edo plataforma jasotzaileari eragin eta gero, eta ibilgailuaren martxaren noranzkoa kontuan hartuta, aurrerantz edo atzerantz begira kokatuko dira, kasuaren arabera, eta balazta jarrita.

Autobusei dagokienez, oro har, aulki gurpildun homologatuetan lekualdatzen diren bi pertsona, gehienez ere, sartu ahal izango dira aldi berean ibilgailuan, irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoaren arabera.

Aulki gurpilduntan lekualdatzen diren pertsonak lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, haur-kotxe eta -aulkien edo bizikleten aurretik, betiere horiek jadanik ibilgailuaren barruan ez badaude.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako elementu lagungarriak edo eustekoak, hala nola taka-takak, behar bezala lotuta egongo dira bidaiatu bitartean. Elementu lagungarriak eramaten dituen pertsona izango da objektuek pertsoneri edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

10. artikulua. *Ibilgailuan erreserbatuta dauden eserlekuak eta espazioak*

Bidaiariak, lehentasunik gabe, askatasunez erabili ahal izango dituzte ibilgailuko eserlekuak, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat berariaz erreserbatutakoak salbu. Erabiltzaileek ezin izango dute inolaz ere eserita bidaiatzeko eskakizuna egin –eskubide hori izango baitute soilik bete gabeko eserlekuak badaude–, ibilbide luzeko zerbitzua ematen duten autobusetan izan ezik.

Autobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonak lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurgildunetarako bi espazio eta lau eserleku erreserbatuko dira gutxienez, 12 metro arteko luzera duten autobusak direnean, eta sei eserleku, 18 metroko luzera duten autobus artikulatuak direnean. Eserleku horiek sartu-irteteko ateetatik hurbil egongo dira, behar bezala seinaleztatuta eta balidatzaileak, txirrinak eta geldialdi-seinaleak irisgarri izateko moduan.

Mikrobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonak lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurgildunetarako espazio bat eta bi eserleku erreserbatuko dira gutxienez.

Gainerako erabiltzaileek okupatu ahal izango dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak, betiere pertsona horiek ibilgailuan ez badaude edo, ibilbidean, eserleku horiek eskatzen ez badituzte. Eserleketan mugikortasun murriztua duen pertsonaren bati plaza uzten ez dioten bidaiariak eserita badaude, gidariak eskatuko die eserleku erreserbatu horiek erabili behar dituzten bidaiariei uzteko.

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, eserleku zenbakidunen arabera salmenta-zerbitzua ematen duten garraio-enpresa eragileak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako plazak erabiltzaileen eskura jarri ahal izango dituzte, bakar-bakarrik, gainerako plazak jadanik erosi direnean.

Aipatutako zerbitzuetan, bidaiariak errespetatu beharko dute esleitu zaien plaza, tiketean adierazita dagoena. Nolanahi ere, garraio-enpresa eragileak langileek plazaren esleipena aldatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean.

Zutik bidaiatzerik onartzen ez den zerbitzuetan, alderdi antropometrikoak direla kausa –aldi baterako edo behin-betikoak izan–, erosotasun- eta segurtasun-baldintza orokorretan lekualdatzeko espazio gehigarria behar duten bidaiariak zerbitzua ematen duen enpresari egoera horren berri eman ahal izango diote, bidaia hasi baino 30 minutu lehenago gutxienez. Modu horretan, garraio-enpresa eragileak erreserbatu ahal izango ditu pertsona horiek bidaiatzeko beharrezkoak diren plazak.

11. artikulua. *Ibilgailuan espazio erreserbatuak eza*

Ibilbide luzeko zerbitzuetan, garraio-enpresa eragileak zerbitzua antolatuta ahal izateko, aulki gurgildunetan lekualdatuta eta espazio erreserbatu baten erabilera bermatu nahi duten mugikortasun murriztutako bidaiariak enpresa eragileari horren berri eman beharko diote ibilgailua irteteko finkatutako dataren aurreko laneguneko 18:00ak baino lehen.

Aipatutako erreserba egin bada eta egitean emandako zenbakiaren bidez egiaztatu bada, eta hala ere garraio-enpresa eragileak ezin badu erreserbatutako plaza edo espazioa eskaini bidaia egiteko orduan, horren ordezko garraio-bide bat emango du, eta horren kostua zerbitzuaren titularra den administrazioak hartuko du bere gain.

Espazio erreserbatua behar duen mugikortasun murriztutako bidaiariak artikulua honetako lehenengo paragrafoan araututa dagoen erreserba egin ez badu eta ibilgailuan bidaiari horrentzat espazio erabilgarririk ez badago, baldintza egokietan artatua izan daitekeen lehenengo zerbitzura bideratu ahal izango da.

12. artikulua. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea*

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaian ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita.

Nolanahi ere, itsuak eta aulki gurgildunetan lekualdatzen diren pertsonak lagunduta egon ahal izango dira eurek aukeratutako pertsona batek, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da.

Aulki gurgilduna erabiltzen duen bidaiariak hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidariaren irizpidea nagusituko da “in situ”, eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.

II. TITULUA. GARRAIO-ZERBITZUA ERABILTZEAN BIDAIARIEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA. Bidaiarien eskubideak

13. artikulua. Bidaiarien eskubideak

1. Bidaiariak, erregelamendu honen ezarpen-eremuaren barruan dauden enpresa eragileek emandako garraio-zerbitzuaren jasotzaileak izanik, garraioari buruzko araudi orokorrean ezarritako eta, berariaz, kapitulu honetan zein erregelamendu honetako gainerako xedapenetan eta ezargarriak diren gainontzeko araudietan adierazitako eskubideen titularrak izango dira.

2. Bereziki, honakoak dira bidaiarien eskubideak:

1. Garraiatuak izatea, eta horretarako behar den eskakizun bakarra baliozkoa den eta, hala badagokio, behar bezala balidatuta dagoen garraio-titulua eramatea. Bidaiariak une bakoitzean indarrean dauden garraio-tituluen artean aukeratu ahal izango dute, indarrean dauden tarifen arabera eta betiere erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betez. Garraiatuak izateko eskubidea erabiltzeko baldintza aukeratutako zerbitzuan plazak egotea da.
2. Oro har ezarritako eta programatutako zerbitzu-eskaintzaren baldintzetan garraiatuak izatea, irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
3. Autobus, autokar, mikrobus, minibus eta taxibusen zirkulazioari atxikitako derrigorrezko aseguruaren estalpean garraiatuak izatea, egokiak diren homologazio-arauak betetzen dituzten ibilgailuetan, eta behar bezala prestatuta dauden langileek gidatuak, horretarako gaitzen dituen administrazio-baimena dutela.
4. Zerbitzuan dauden tarifa, funtzionamendu eta baldintza zein gorabeherei buruzko informazioa jasotzea, beti irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera.
5. Laguntza-txakurrek lagunduta joatea, animalia horiei ezargarri zaien indarreko legerian ezarritakoari jarraituz.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan informazioa erabili eta jasotzea.
7. Garraio-enpresa eragileetako langileengandik tratu zuzena jasotzea. Langileek erantzun beharko diete erabiltzaileek zerbitzuarekin zerikusia duten gaietan egiten dituzten laguntza- eta informazio-eskaerei.
8. Ibilgailuan sartzea beren fardel edo ekipajea aldean dutela, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
9. Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea, prestazio horren truke errekar guririk ordaindu gabe, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
10. Bizikletak eramatea, prestazio horren truke errekar guririk ordaindu gabe. Bizikletak barruan edo maletategian soilik eramango dira, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, eta aurretiaz zehaztuko diren linea, geltoki eta ordutegietan, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.
11. Ibilgailuetan sartzea etxeko animaliek lagunduta, prestazio horren truke inolako errekar guririk ordaindu gabe, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
12. Garraio-enpresa eragileen ibilgailu guztietan nahiz instalazio finkoetan, une bakoitzean indarrean dagoen erreklamazio-orria eskatu eta eskuratzea, zerbitzua ematearekin zerikusia duen edozein erreklamazio jarri ahal izateko.
13. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea, zerbitzua eten egiten bada.
14. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea garraio-tiketa alde aurretik erosi denean, betiere erabiltzailea zerbitzua ematen duen enpresa eragilearen leihatilara bertaratzen bada zerbitzua irten baino 10 minutu lehenago gutxienez, eta dena erregelamendu honetako 22. eta 41. artikuluetan jasotakoaren arabera.
15. Gorabeheraren baten ondorioz ibilgailua baztertu behar bada, bidaia linea berean edo, ezinezkoa bada, antzeko ibilbidea duen beste linea batean jarraitzea. Bidaiariak ez dute ordezko ibilbide hori ordaintzeko beharrik izango, eta irisgarritasun-baldintza egokiak eskainiko zaizkie.

16. Ibilgailuetan aurkitzen diren objektu galduak berreskuratzea, objektu horien jabetza edo edukitza legitimoa egiaztatu eta gero. Objektu horiek garraio-entresa eragileen bulegoetan edo objektu galduen udal-bulegoetan entregatuko dira, garraio-entresa eragileetako langileek aurkitutako egoera berean.

Objektu galduak aurkitu eta bi urtetan egongo dira haien jabetza egiaztatzen duten pertsonen eskura; aldi hori igaro eta gero, objektuak aurkitu zituen erabiltzaileari itzuliko zaizkio edo, ezinezkoa bada, objektuez arduratu zen garraio-entresa eragileko langileari. Ibilgailu batean objekturen bat galdu duela uste duen edozein bidaiari harremanetan jarri ahal izango da zerbitzua ematen duen garraio-entresa eragilearekin, objektua berreskuratzeke.

14. artikulua. *Garraioaren baldintzak*

Erabiltzaileek eskubidea izango dute zerbitzuaren titularraren den administrazioak zerbitzua emateko ezarritako eskaintza-baldintzetan garraiatuak izateko.

15. artikulua. *Informazioa*

Zerbitzuaren titularraren den administrazioak zainduko du pertsona guztiak zerbitzu horren ezaugarri, baldintza, funtzionamendu eta tarifei buruzko edo bestelako gorabehera, kexa, iradokizun edo erreklamazioei buruzko informazioa pixkanaka jaso edo kontsultatzeko aukera izatea, edozein formatu irisgarritan, jatorria eta euskarria zein den ere.

Adierazitako formatu irisgarri eta hautazko horiek honakoak izan daitezke, besteak beste: karaktere handiak, hizkera erraza, braille, teknologia moldagarriaren bidezko komunikazio elektronikoa irisgarriak eta audio-zintak edo antzekoak.

Hautazko formatuetako informazio hori ibilgailuetan, instalazio finkoetan, geltokietan, web orrialdeetan edo beste edozein tokitan eman beharko da.

Zerbitzuaren titularraren den administrazioak sustatuko du erabiltzaileei ematen zaien informazioa euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere etengabe ematea, garraio-zerbitzua erabiltzen duten atzerritarren eskaerei erantzutearren.

16. artikulua. *Hizkuntza-politika*

1. Kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz, eta jarraitutasunez, bertan jasotakoaren arabera, bidaiariak, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, hizkuntza-eskubide hauek izango dituzte:

- a) Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntza ofizialean artatua izateko.
- b) Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematen dituzten entresa eragileekin eta entresa horien establezimenduekin harremanetan jartzeko orduan, hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea; zerbitzu horietan ari diren langileak bidaiariak artatzeko moduan egon beharko dira, erabiltzen duten hizkuntza ofiziala edozein dela ere.
- c) Aukeratzeko duten hizkuntza ofizialean, garraio-zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- d) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan erreklamazioak egiteko eskubidea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Kontsumitzaileen Estatutuari jarraituz, bidaiariarekin harremanetan jartzeko orduan, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuta egongo da honakoetan:

- a) Gipuzkoako lurralde-eremuko establezimenduetan, idazkun, ohar eta, oro har, jendeari zuzendutako komunikazioetan.
- b) Bidaiariak betetzeko prestatu diren inprimaki edo eredu ofizialetan.
- c) Atxikipen-kontratu, klausula-ereduak dituzten kontratu, kontratu arautu, baldintza orokor eta kontratu horiei lotutako edo kontratuak gauzatzearren ondoriozko dokumentuetan, betiere bidaiariak berariaz aukeratzeko ez badu hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea.
- d) Bidaiariak berariaz zuzendutako komunikazioak eta, halaber, fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak bi hizkuntzatan idatziko dira, betiere bidaiariak berariaz aukeratzeko ez badu bi hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea.
- e) Bidaiariak zuzendutako garraio-zerbitzuen eskaintza, sustapen eta publizitatean, erabilitako euskarriak edozein izanda ere.

3. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileek artikulua honetako 1. eta 2. idatzi-zatietan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

17. artikulua. *Adintxikikoak garraiatzea*

1. Adingabeek doan bidaiatuko dute; hala ere, doaneko tiketa izenekoa eduki beharko dute, plazak zenbatzeko eta trafikoari buruzko legeriak ezarritako derrigorrezko aseguruaren estaldura izateko xedez.

Adingabearen adinaren inguruan desadostasunak gertatuz gero, gidariaren irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatuta eta gero.

Adingabeak, une oro, beren segurtasunaren erantzule den pertsona batek lagunduta joan beharko dira.

Heldu bat gehienez ere lau adingabek lagunduta egon ahal izango da.

2. 5 eta 18 urte bitarteko bidaiariak ibilgailuan sartzen badira beren segurtasunaren erantzulea den pertsona heldu baten laguntzarik gabe eta tarifa-sistema bateratuko txartel pertsonalizatua (MUGI txartela) eramaten badute, gurasoek edo tutoreek baimendutako adingabetzat hartuko dira ondorio guztietarako, eta, hortaz, euren erantzukizunpean bidaiatuko dute.
3. Talde antolatuan 5 eta 10 urte bitarteko 5 adingabek baino gehiagok bidaiatzen badute (udalekuak, kanpamenduak, etab.), derrigorrezkoa izango da gutxienez bigarren laguntzaile heldu bat egotea adin horretako 10 lagun arte, eta beste laguntzaile bat gehiago lehenengoak gainditzen dituzten 15 laguneko, ezargarria den indarreko legerian xedatutakoari jarraituz.

18. artikulua. *Fardelak eta ekipajea*

1. Bidaiariak, lekualdatzen direnean, pakete edo objektu txikiak edo gainerako eskuko fardelak eramateko eskubidea izango dute, betiere gainerako bidaiariei eragozpenik edo arriskurik sortzen ez badiete eta ibilgailuan dauden plazak murrizten ez badituzte.

Oro har, ez da onartuko bidaiariak 100 x 60 x 25 cm-ko neurria gainditzen duten fardel, ekipaje edo bidaia-maletarik eramatea.

Zutik doazen bidaiariak onartzen diren garraibideetan, fardel edo ekipaje onargarriak izango dira eskuarki erabili eta onartzen direnak, hala nola erosketako orgak, tolestuta dauden bizikleta tolesgarriak, haur-kotxe eta -aulki tolestuak edo antzekoak, aurreko paragrafoan adierazitako neurriez bestelakoak izan ditzaketenak, dituzten ezaugarrien arabera.

Nolanahi ere, bidaiariak behar bezala heldu beharko die sartzen dituen fardelei eta ekipajeari, ibilgailura igotzen den unetik hasi eta bertatik irten den arte.

Ibilgailuko sarrera eta irteeretan, ibiltzeko zonetan, erreserbatutako espazioetan edo gelditzeko orduan eragozpenak sortzen dituzten objektu edo fardelak ezingo dira inolaz ere lurrean utzi.

Maletategia duten ibilgailuetan, nahitaezkoa izango da toki hori erabiltzea ibilgailuaren barruan fardelak uzteko erreserbatutako espazioarenak (barruko erretiluak) baino neurri handiagoak dituzten fardelak uzteko, eta doakoa izango da garraio-titulua duen bidaiari bakoitzeko 15 kilo gainditzen ez dituzten ekipajeak garraiatzea.

Fardela edo ekipajea behar bezala paketatuta egongo da ibilgailuko maletategian gordetzeko, hau da, bidaia egitean ekipajearen edukia maletategian barreiatzea edo gainerako fardelak kaltetzea saihesteko moduan.

Istripuen edo bestelako kausen ondorioz ekipajeek kalteak edo galerak pairatzen dituztenean, zerbitzu publikoa ematen duten enpresa eragileen erantzukizuna bidaiarien eskubideei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakora mugatuko da, betiere bidaiarientzat berariaz zenbateko handiagoak edo baldintza hobek adosten ez badira.

Eskuko fardelak daramatzen bidaiariari egokituko zaio ekipaje hori zaintzea, eta, ondorioz, bidaiari horren kontura izango dira ibilgailuaren barruan egon bitartean ekipajeak paira edo sor ditzakeen kalteak, betiere garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna frogatzen ez bada. Frogatuz gero, ezargarriak izango dira indarrean dagoen legeriak ekipajei dagokienez xedatzen dituen mugak.

2. Zutik bidaiatzea dagoen ibilgailuetan, bidaiariak eskubidea izango dute kirola egin eta aisialdian erabiltzen diren objektu edo fardelak edo horien antzekoak direnak eta bigarren paragrafoan aurreikusitako neurriak gainditzen dituztenak eramateko (adibidez, surfeko oholak, eskiak, musika-tresnak edota antzekoak), betiere horretarako nahiko espazioa badago, aulki gurpildunak edo kotxe edo haur-aulkiak uzteko erreserbatutako espaziora iristea eragozten ez badute, eta igarotzeko eta sartu-irteteko lekuetan trabarik egiten ez badute, eta halaber, pertsona bakar batek

garraiatzeko modukoak badira, bi metroko garaiera gainditzen ez badute, eta dagokien zorroak babestuta badaude. Espazio nahikoaren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.

Fardela daraman bidaiariak bertikalean mantenduko du, gainerako bidaiariei eragozpenik sortu gabe edota bidaiarien zirkulazioan trabarik egin gabe, bai sartu eta irtetean, bai ibilgailuaren barruan.

Maletategia duten ibilgailuetan, objektu horiek bertan utziko dira, zorroan behar bezala sartuta.

Fardelak eramaten dituen pertsona izango da adierazitako objektuek pertsoneri edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

19. artikulua. *Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea*

Haur-kotxe eta -aulki irekiak onartuak izango dira ibilgailuetan, ibilgailuen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Kotxea edo aulkia plataforman utziko da, eta gainerako bidaiariei igarotzea oztopatu gabe kokatuko da. Kotxe edo aulki irekiak lotu beharko dira eta balazta ipinita edukiko dute; adingabea ibilgailua doan martxaren kontrako noranzkora begira egongo da. Kotxea edo aulkia daraman pertsonaren ardura izango da behar bezala kokatzea eta lotzea, adingabearen eta gainerako bidaiarien segurtasuna bermatzeko moduan. Nolanahi ere, kotxea edo aulkia daraman pertsona kotxearen edo aulkiaren ondoan egon beharko da, eta une oro helduko dio.

Kotxeak eta aulkiak zenbatzeko xedez, haur-kotxe edo aulki bikoitzak edo handiagoak (bikientzat, edo hirukientzat) bi balira bezala zenbatu ahal izango dira, ibilgailuan dagoen espazioaren arabera.

Gehienez ere bi kotxe edota aulki ireki eraman ahal izango dira 18 metro arteko ibilgailuetan, eta bakar bat ibilgailu txiki edo mikrobusetan, betiere aulki gurpildunean lekualdatzen den pertsonarik ez badago ibilgailuan.

Ahal dela, haur-kotxe eta -aulki irekiak ibilgailuan sartuko dira horretarako gaituta dagoen atetik, aulki gurpildunak igotzeko arrapalari eragin gabe, baina bai ibilgailua inklinatzeko sistemari.

Ibilgailuan haur-kotxe edo -aulkia daramatela sartzten diren bidaiariek, edonola ere, errespetatu beharko dute aulki gurpildunetan lekualdatzen diren erabiltzaileek ibilgailuan sartzeko eta plataforman haientzat dagoen espazioa okupatzeko duten lehentasuna. Haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute, bakar-bakarrik, jadanik ibilgailuaren barruan badaude.

Adingabea garraiatzen ez duten haur-kotxe edo -aulkiak tolestuta eraman beharko dira. Ez da onartuko kotxe do aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean. Ahal dela, aurreko atetik sartuko dira kotxe edo aulki tolestua daramaten bidaiariak.

Maletategia duten ibilgailuetan, haur-kotxe edo -aulkiak nahitaez sartu beharko dira bertan.

Ez da errekargurik ordainduko haur-kotxe edo -aulkia eramateagatik, erregelamendu honetako 13.9. artikuluan jasotakoaren arabera.

20. artikulua. *Bizikletak eramatea*

1. Bizikletak onartuko dira, bakar-bakarrik, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, Administrazio bakoitzak bere eskuduntza pean dauden zerbitzuetarako aurrez zehazten dituen linea, geltoki eta ordutegietan.

Behar bezala adieraziko da zer geltoki eta lineatan baimenduta dagoen bizikletak daramatzaten pertsonak ibilgailuetan sartzea, eta baita horretarako dauden geldialdi-ordutegiak ere, egokia bada.

Maletategia duten autobusetan, bizikletak bertan utziko dira, dagokien zorroak babestuta.

Pertsona bakoitzeko bizikleta bat bakarrik onartuko da. Ibilgailuan, gehienez ere bi bizikleta eraman ahal izango dira aldi berean. Nolanahi ere, aulki gurpildunean lekualdatzen diren pertsonak edo haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, bizikleten aurretik, eta ibilgailuak aulki gurpildunean edo haur-kotxe edo -aulkian doan pertsonaren bat garraiatzen duenean ezin izango da bizikletarik sartu. Aitzitik, ibilgailuak bizikleta bat bakarrik garraiatzen badu, aulki gurpildun edo haur-kotxe edo -aulki bat sartu ahal izango da.

Edonola ere, bizikletak erdiko atetik sartuko dira, eta plataforman kokatuko dira; bizikleta daraman pertsonak egoki helduko dio, eta beti geratuko da bizikletaren ondoan.

2. Bizikleta tolestuak ibilgailu guztien barruan onartuko dira, ekipajea balira bezala, erregelamendu honetako 18. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Bizikleta mota hori guztiz tolestuta egon beharko da erabiltzailea ibilgailuan sartzen den unean.

3. Ez da errekar guririk ordainduko bizikleta eramateagatik, ez kabinan, ez maletategian, erregelamendu honetako 13.10. artikuluan jasotakoaren arabera.

4. Bizikleta eramaten duen pertsona izango da adierazitako objektuak pertsoneri edo ondasunei sor diezazkiekeen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada.

21. artikulua. *Etxeko animaliak eramatea*

Baimendutako etxeko animaliak onartuko dira ibilgailuen barruan, bakar-bakarrik, autobusen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean, eta erregelamendu honetako eranskinean zehazten diren linea, geltoki eta ordutegietan.

Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak, eta animalia-espezieak eta beren ezaugarriak aipatutako eranskinean adierazitakoak izango dira.

Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolana ere, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Animaliek bidaiatu beharko dute beren ekintzen erantzulea den pertsona batek lagunduta.
- b) Animaliak, ahal dela, kaiola edo homologatuta dagoen ontzi itxi batean eraman beharko dira, zaintzailearen ondoko eserlekurik okupatu gabe, eta animalia eramanaren usainak edo egiten duen zaratak eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.
- c) Maletategia duten ibilgailuetan, animaliak derrigorrez garraiatu beharko dira bertan, kaiola edo homologatuta dagoen eta gorotza gorde eta ateratzea ahalbidetzen duen gailua duen ontzi itxi baten barruan.
- d) Ontzietan garraiatzen ez diren zakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute, betiere baldintza hauek betetzen badira: animalien ezaugarriek egokitutako uhal batez lotuta egon behar dira, une oro zaintzailearekin ukipen fisikoa mantendu behar dute, muturrekoa jarrita eraman behar dute, baimendutako albitari batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat eraman behar dira, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako higie- eta osasun-egoeran zein segurtasun-baldintzetan egon behar dira. Gidariak animalia eramanaren osasun-txartela eskatu ahal izango du, gutxienezko higie- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela sumatzen duenean edo animaliarekin zerikusia duen edozein eztabaida gertatzen denean.
Nolana ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsoneri edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.
- e) Animaliek ezin izango dute inolaz ere gaueko zerbitzuetan bidaiatu, eta autobusean bustita edo araldian daudenean sartu.
- f) Pertsona bakoitzeko animalia bat bakarrik onartuko da.
- g) Ibilgailuan, gehienez ere bi animalia eraman ahal izango dira aldi berean.
- h) Animalia eramaten duena erantzulea izango da animaliak sor ditzakeen kalteen aurrean, betiere hirugarren baten edo garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna egiaztatzen ez bada.
- i) Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zarategatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko betebeharra izango dute.

Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan.

22. artikulua. *Ibilbideak etetea eta aldatzea*

Oro har, obrak, jaiak, ekitaldi bereziak eta abar direla kausa ibilbidea aldatu edo zerbitzua aldi baterako eteten bada, jendearen jakinaren gainean jarri beharko da behar adinako aurrerapenez, eta horretarako garraio-enpresa eragilearen informazio-zutoinak, markesinak eta web orrialdeak erabiliko dira, edo ibilgailuak berak. Informazio hori gorabehera bakoitzaren garrantziaren arabera antolatuko da, eta ahal dela eragindako pertsona gehienei emango zaie horren berri, informazioa eragindako geltoki eta lineetan jarrita.

Tiketaren zenbatekoa itzuliko da, bakar-bakarrik, zerbitzu bat hasi baino lehen eteten bada. Ez da ulertuko zerbitzua eten dela edozein linea ohiko ibilbidetik desbideratzea, edo zerbitzua hasi eta gero gelditzea, garraio-enpresa eragilearenaren borondatezkoak ez diren ezinbesteko arrazoiengatik.

Ibilgailua matxuratu delako zerbitzua eteten bada, zerbitzua ematen duen enpresak prestatu duen eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen beste ibilgailu bat erabili ahal izango dute bertan doazen pertsonak, garraio-titulu bera erabilita eta gidariaren jarraibideen arabera.

Bidaia osatzeko, garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ahalik eta azkarren ibilgailu bat jartzera, eta, egokia bada, matxuratutako ibilgailua dagoen lekutik hurbilen kokatutako basetik ekarriko du berehala, betiere hurrengo zerbitzua ordezko ibilgailua baino lehenago iristeko moduan bada eta bete gabeko plazak baditu. Hori dena irisgarritasun-baldintza egokietan egingo da.

Bidaiariak tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea erabiltzeko, baliozko garraio-titulua aurkeztu beharko dute, behar bezala balidatua, hala badagokio.

23. artikulua. *Atzerakoak ematea*

Tiketa ibilgailuaren barruan erosten bada, bidaiariak atzerakoak, diru xehean edo diru-paperean, jasotzeko eskubidea izango dute, 20 euro arte, erregelamendu honetako 45. artikuluan xedatutakoari utzi gabe.

Erabiltzaileak diru xeherik ez duelako bidaia ordaindu ezin badu eta ibilgailua martxan jarri bada, hurrengo geltokian jaitsi beharko da ibilgailutik.

II. KAPITULUA. Bidaiariak bete beharreko baldintza orokorrak

24. artikulua. *Bidaiarien betebeharrak*

Bidaiariak betebeharrak hauek izango dituzte beti:

- a) Baliozko garraio-titulua eramatea, eta, tarifa-sistema bateratuari dagokionez, behar bezala balidatua, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera; bidaiariak garraio-titulua gorde beharko du ibilbide osoan, eta zerbitzua ematen duen enpresako langileen eskura zein zerbitzuaren titularra den administrazioko ikuskatzaileen eskura.
- b) Garraio-enpresa eragileetako langileen jarraibideak betetzea, zerbitzuari eta horren gorabeherei lotutako gaitan.
- c) Instalazio eta ibilgailuetan agerian jarritako horma-irudi edo gomendioetan jasotakoa errespetatzea, eta ez egitea gainerako bidaiarientzat edo garraio-enpresako langileentzat eragozpena den edozein ekintza.
- d) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak eta espazioak errespetatzea.
- e) Ibilgailuetan sartzeari horretarako dauden ateetatik, eta ibilgailuen barruan gainerako bidaiarien zirkulazioa erraztea. Halaber, tiketa erosi edo garraio-txartela balidatu eta gero, irteteko ateetatik hurbil kokatutako dira ahal dela, ibilgailuan sartu nahi duten pertsonen sarbidea utzita.
- f) Ibilgailura igotzea geltokian geldirik dagoenean, bakoitzari dagokion txanda errespetatuz, geltokira iritsi diren ordenaren arabera.
- g) Ibilgailutik jaistea finkatutako geltokietan, era ordenatuan, eta beti linea-amaierako geltokian.
- h) Ibilgailua gelditzeko eskaera behar adinako aurrerapenez egitea, bertatik irten edo bertan sartzeko.
- i) Segurtasun-uhalak nahitaez erabiltzea, uhalaz hornituta dauden ibilgailuetan, betiere, bideko segurtasunari buruzko araudiari jarraituz, bidaiariak salbuetsita ez badaude.
- j) Eserleku osagarriak tolestea hala behar denean, adibidez, pertsonak igaro eta mugitzea zein horien erosotasuna galarazten dituzten jende-pilaketak daudenean.
- k) Higiene- eta osasun-egoera gainerako bidaiariei edo gidariei kutsatu edo eragozpenik sortzeko arriskuan (adibidez, usainengatik) ez jartzeko modukoa izatea.
- l) Zerbitzuak, ibilgailuak eta geltokiak gaizki erabiltzearen ondorioz edo ondasunak gaizki kokatzaren ondorioz, zerbitzuari atxikitako elementuetan edo gainerako bidaiariei sortutako kalteen aurrean erantzutea.
- m) Bidaiarien artean, zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik eztabaida sortuz gero (leihoak ireki eta ixtea, aire girotuko gailuen funtzionamendua, etxeko animaliak sartzeari, etab.), gidarien irizpideak lehentasuna duela onartzea.

25. artikulua. *Debekuak erabiltzaileentzat*

- a) Ibilgailura igotzea, gidariak ohartarazi duenean ibilgailua guztiz okupatuta dagoela.
- b) Bidaiatzeko prestatuta ez dauden lekuetan bidaiatzea.
- c) Erregelamendu honetako 18. artikuluan adierazitako ez bestelako fardelak eramatea.
- d) Hainbat objektu eramatea, adibidez, beren izaera dela kausa, bidaiariei zuzenean edo zeharka, edo kanpoko alderdiekin batera, eragozpenak sor diezazkieketen objektuak, eta pertsonen osotasun fisikoa edo osasuna arriskuan jarri nahiz ibilgailuan edo garraio-zerbitzuan kalteak sor ditzaketanak.
Bereziki debekatuta dago materia leherkorrak, sukoiak, korrosiboak, erradioaktiboak, pozoitsuak, toxikoak, kutsagarriak edo antzekoak sartzeari edota garraiatzea.
- e) Ibilgailuan arriskutsuak izan daitezkeen animaliekin sartzeari.
- f) Ibilgailuan patinak ipinita sartzeari.
- g) Ibilgailuen barrualde edo kanpoaldean edo geltokietan idatzi, margotu, zikindu edo hondatzea edozein modutan.
- h) Paskinak, liburuxkak eta edozein propaganda edo publizitate mota banatzea ibilgailuen barruan.

- i) Ibilgailuen barruan eskean aritzea.
- j) Irratiak, soinua erreproduzitzeko edo komunikatzeko gailuak, gailu elektronikoak edo antzekoak erabiltzea beste bidaiariek edo gidariak entzuteko modukoa den eta gogaikarria izan daitekeen bolumena dutenean. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.
- k) Nabarmen hordituta edo estupezazienteen eraginpean sartzea, zerbitzuaren ohiko funtzionamendua galarazteko moduan.
- l) Ibilgailuen barruan erretzea eta droga toxikoak, estupezazientek edo edari alkoholodunak kontsumitzea.
- m) Ibilgailuaren barruan edozein elikagai edo edari jan eta edatea, lekuan ohikoak direnak izan ezik, ibilgailuetako segurtasun- edo garbitasun-egoeraren aldaketa edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sor ditzaketenean.
- n) Ibilgailuko leihatiletatik objektuak jaurtitzea edo gorputz-atalak ateratzea.
- o) Gidariekin hitz egitea, zerbitzuarekin zerikusia duten beharreetatik ez bada; edo, justifikatutako kausarik gabe, ibilgailua martxan dagoela gidatzean arreta galarazi edo eragozpenak sortzen dituen edozein ekintza burutzea.
- p) Ibilgailutik jaiste edo bertara igotzea finkatutako geltokietatik kanpo edo ibilgailua mugitzen ari dela, justifikatutako kausarik gabe.
- q) Zutik bidaiatzea horretarako berariaz jarrita dauden segurtasun-gailuei behar bezala helduta edo lotuta egon gabe.
- r) Ibilgailuaren barruan, ibilgailua zirkulatzen ari dela barra edo heldulekuei behar bezala heldu gabe ibiltzea, balaztatu behar denean edo trafikoaren ondorioz edozein gorabehera gertatzen denean norberaren edo gainerako erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jarritz.
- s) Ibilgailuan dagoen edozein segurtasun- edo laguntza-mekanismo justifikatutako kausarik gabe erabiltzea.
- t) Ateak ireki eta ixteko mekanismoak manipulatzeko edo indarrez erabiltzea.

Goian jasotako xedapenak urratzen dituen edonori ibilgailuan sartzeko debekatuko zaio, edo, bidezkoa bada, ibilgailutik irteteko aginduko zaio, tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubiderik gabe.

Gidariak ibilgailuan sartu nahi duten eta erregelamendu honetan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez duten pertsonen jakinaraziko die bertan sartzeko debekatua dutela, eta baldintzak bete ala bidaiatzeko asmoa alde batera uzteko eskatuko die. Berdin jokatuko du gorabehera gertatzen bada pertsona ibilgailuaren barruan dagoela; horrelakoetan, erregelamenduan ezarritakoa betetzeko eskatuko dio, edo, hala egiten ez bada, hurrengo geltokian ibilgailutik jaisteko.

Erabiltzaileak bere jokaera mantentzen badu eta gidariaren eskaerari jaramonik egiten ez badiu, gidariak berehala emango die horren berri ikuskapen-zerbitzuei edo agintaritzaren agenteei, garraio-enpresa eragilearen langilearen oharpenen kasurik ez egiteagatik salaketa jar dezaten, edota, bestela, aurpegiaritutako egintzagatik egokia den salaketa jar dezaten.

III. TITULUA. GARRAIO-ENPRESA ERAGILEEN BETEBEHARRAK

26. artikulua. Informazioa

Garraio-enpresa eragilea arduratuko da garraio-zerbitzua emateak dituen ezaugarriak eta zerbitzuaren garapenean eragina duten gorabeherei buruzko informazioa emateaz. Informazio hori pertsona guztiek eskuratzeko moduan eskaini beharko da.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazioak, bakoitzaren eskumenen eremuan, zaindu egingo dute betebeharrak hori pixkanaka gara dadin.

Ibilgailuetan, une oro indarrean dauden tarifak ikusgai egongo dira, eta, era berean, erregelamendu honetan baliozko garraio-titulurik ez duen edo behar bezala balidatuta ez daukaten bidaiarientzat aurreikusita dagoen tarifaren aparteko erreklamo adieraziko da.

Halaber, erregelamendu honetako xedapenen laburpen bat jarriko da ibilgailuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratua kontratatze edo erabiltzeko Baldintza Orokorren laburpenarekin batera.

Horrez gain, garraio-enpresa eragileek erabiltzaileari jakinaraziko diete erreklamazio-liburua edota erreklamazio-orriak badaudela.

27. artikulua. Geldialdiak

Geldialdiak terminalak edo eskatutakoak izan daitezke.

Lineako geldialdi terminalak, edo ibilbidearen bukaerakoak, derrigorrezkoak izango dira, eta ordutegiak erregularizatzeko baliatuko dira.

Eskatutako geldialdiak dira ibilgailua bidaiariak sartu eta irteteko beharrezkoa den denboran soilik gelditzen den aldiak, ibilgailuaren barruan txirrina sakatuta geldialdia eskatu delako, edo gidariak geltokitik igarotzean eta martxa moteltzean ikusi duelako bertan bidaiariak badaudela eskua altxatua, ibilgailuan sartu nahi dutela adieraziz horrela.

Linea, ordutegi eta maiztasunak, behar bezala eguneratuak, bidaiarien eskura egongo dira beti geltokietan -hain ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean-, garraio-enpresa eragileen bulegoetan, eta web orrialdeetan. Informazioaren barruan, nolana ere, lehenengo eta azken zerbitzuaren hasierako ordutegia eta bidaien maiztasunak egongo dira. Maiztasuna 20 minutukoa edo hortik gorako tartekoa bada, abiaburuko irteera-ordutegi zehatzak adierazi ahal izango dira.

Garraio-enpresa eragileak informazio hori etengabe zabalduko du, linea bakoitzaren ezaugarrien arabera, sarearen planoak edo beste edozein informazio osagarri emanda, eta horretarako, zerbitzuaren titularra den administrazioaren edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lankidetzak eskatuko du, erakunde horien eskumenak kontuan hartuta.

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude ezarritako irteera-ordutegiak eta maiztasunak betetzera. Eskatutako geldialdiarako adierazitako maiztasun eta ordutegiak orientaziokoak dira, eta, besteak beste, trafikoaren edo klimatologiaren inguruabar txarrek eraginda suerta daitezke. Enpresaren kalitate-irizpideen barruan, finkatutako maiztasunak betetzeko baliabideak ezarri beharko dira, edo, egokia bada, ibilgailuak ibilbideko geltoki batetik ez igarotzeko iragarritako ordua baino lehen.

Zerbitzuen ordutegia eta maiztasuna zehazteko xedez, ibilgailuen barruan sartu diren ekipo eta informazio-panel guztiak sinkronizatuta egongo dira doitasun handiko denbora errealeko erloju baten bidez; erloju hori, halaber, sistemarekin sinkronizatuta egongo da, GPSko NMEA protokoloa bilbean bitartez. Erloju hori izango da ordutegiak era ofizialean markatuko dituenak.

28. artikulua. *Ibilgailuak geltokietan aparkatzea*

Hainbat lineak partekatzen dituzten geltokietan, bi ibilgailu edo gehiago elkartzen direnean, ulertuko da geltokira iritsi den bigarren ibilgailua, lehenengoaz gain, bidaiariak sartu eta irtetea onartzeko arauzko lekuan dagoela.

Hirugarren edo laugarren dauden ibilgailuetako gidariak ez dituzte ateak irekiko, harik eta lehenengo lekura (geltokiseinalearen parean) edo bigarrenean (atzetik datozen autobusetakoren batek bertan jarraitzen badu) iritsi arte. Ibilgailua bigarren lekuan gelditzen denean, gidariak egiaztatu beharko du geltokian ibilgailura igo gabe geratu den inor ez dagoela.

Ibilbideko geltokietan egiten den geldialdia bidaiariak sartu-irteteko beharrezkoa dena soilik izango da.

Geltoki terminaletan aparkatzen denean (gidariak atsedena hartzeko arauzko denboran eta ibilgailua iristen denetik ezarritako ordutegiaren arabera irten den arteko tartean salbu), sartzeko ateak irekita egongo dira, bidaiariak sartu ahal izateko.

Adierazitako geltokietan, aparkaldia lau minututik gorakoa izango dela aurreikusten bada, gidariak ibilgailuaren motorra geldituko du, eta martxan jarriko du irten baino minutu bat lehenago. Geltokian motorra gelditzeko beharra betetzeko adierazitako lau minutuko denbora erreferentzia-esparrua da; motorra geldialdi luzeetan gelditzeko betebeharrak moduan ulertu behar da, bidaiari-lekua girtzeko beharrezkoa den aldia alde batera utzita.

Segurtasun-arrazoiak direla medio, debekatuta dago bidaiariak geltokitik kanpo sartu edo irtetea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta egokiak diren baldintzak badaude eta ibilgailuaren barruan zein hortik kanpo dauden erabiltzaileentzat arriskurik sortzen ez bada. Paragrafo honetan araututakoa ez zaio ezarriko ekitaldi berezietan baimendutako geltokien araubideari.

29. artikulua. *Ibilgailuak*

Garraio publikoko zerbitzuari atxikitako ibilgailuak identifikatuta egongo dira zerbitzuaren titularra den administrazioaren irudi korporatiboaren bidez, betiere horren aurka behar bezala arazoitutako kausarik ez badago.

Horrez gain, ibilgailuek emakida-tituluan edo zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen agirian ezarritako identifikazio-elementuak izango dituzte, bai kanpoan, bai barruan.

30. artikulua. *Tarifak eta garraio-tituluak erabiltzeko baldintzak aldatzea*

Tarifak, titulu motak edo horiek erabiltzeko baldintzak aldatzea baimentzen denean, horren berri emango zaie bidaiariei bere garaian.

Txartelen balioaren muga-eguna iritsi baino lehen agortu ez diren baliozko txartelak aldatzea baimentzen bada, ibilgailu guztietan jarriko da horri buruzko informazioa.

31. artikulua. *Publizitatea ibilgailuetan*

Zerbitzuaren titularra den administrazioak ibilgailuen barrualdean zein kanpoaldean publizitatea onartzeko edo debekatzeko aukera ezarri ahal izango du, eta, nolana ere, egokia den irudi korporatiboa errespetatuko da.

Publizitatea ez da trazarik izango ibilgailuak garraio publikoko ibilgailu moduan identifikatzeko. Ez du eraginik izango gidariak ikus-espazioetan, eta ez da baimenduko, inolaz ere, publizitatea ibilgailuaren aurrealdean jartzea.

Publizitatearen edukiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legeria beteko dute, eta bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari zein droga-mendekotasunaren prebentzioari buruzkoa.

32. artikulua. *Higiene- eta erosotasun-baldintzak*

Bai ibilgailuak, bai zerbitzua emateko garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei arreta emateko erabilitako instalazio finkoak egoera onean mantenduko dira, bidaiariak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabili ahal izateko moduan.

Gidariak komunikaziorako eta soinua erreproduzitzeko gailuak zein irrtiak erabiltzen dituztenean, erabiltzaileak ez gogaitzeko moduko bolumenean jarriko dituzte. Nolanahi ere, gogaikarritzat hartuko da 55 LAeq (dB)-tik gorako muga-balioa, ibilgailuko kabinaren barruan neurtuta, atek eta leihoak itxita daudela.

33. artikulua. *Ibilgailuen garbiketa eta mantentzea*

Ibilgailuei, zerbitzuan hasi baino lehen, aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren aldizkako garbiketak egingo zaizkie; era berean, ibilgailuak desinfektatu eta bertako intsektuak hilko dira, ezargarria den araudian xedatutako epeetan.

Halaber, egunero, ibilgailua zerbitzuan jarri baino lehen, garraio-enpresa eragileak egiaztatuko du inklinatzeko sistemek, arrapalek eta plataforma jasotzaileek, txirrinek eta sakagailuek zein ikusizko eta soinu bidezko ohar-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela.

Orobat, ibilgailuak zerbitzuan hasi baino lehen, egiaztatu egingo da atek ireki eta ixteko sistemak, tiket-makinek eta balidatzaileek zein kokapen- eta komunikazio-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela, eta segurtasun-osagai guztiak eskuragarri daudela eta erabiltzeko egoeran (mailuak, kristal-apurtzaileak, su-itxalgailuak, derrigorrezko segurtasun-uhalak, etab.); baita ere, erregai- eta olio-maila, pneumatikoen egoera eta gainerakoak egokiak direla zerbitzua emateko.

Sartu-irteteko arrapala, plataforma jasotzaile, tiket-makina eta balidatzaile, komunikazio- eta klimatizazio-sistemen edo segurtasunaren eraginik ez duen ibilgailuko beste edozein elementuren funtzionamenduan gertatzen den edozein irregularitasun berehala konpondu beharko da urgentziaz. Ibilgailua egoera horretan erabiltzeko baldintza izango da aurkitutako arazoa eta ibilgailuaren ordezkari beste bat jartzeko ezintasunaren arrazoiak zerbitzuaren titularra den administrazioari jakinaraztea, aurkitutako arazoa konpontzeko aurrekusten den epea adierazita.

34. artikulua. *Ibilgailuen segurtasuna*

Garraio publikoko zerbitzuaren ustiapenari atxikitako ibilgailuak, behar bezala homologatutako modeloak izango direnak, funtzionamendu-egoera onean egongo dira, beren ezaugarri teknikoak indarrean dagoen Ibilgailuen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera izango dira, eta ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT) zein emakida-baldintzak bete eta egunean eduki beharko dituzte.

Inolaz ere ez da zerbitzurik egingo segurtasun-baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak erabilia.

35. artikulua. *Ibilgailuak gidatzea*

Gidariak ibilgailuak gidatzeko orduan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea zehatz-mehatz bete beharko dute, eta baita legea garatzen duten araubideak ere.

Gidariak ibilgailua emeki gidatu eta gelditu beharko du, eta geldialdiak zein abiadak astinaldi edo mugimendu zakarrik gabe egingo ditu, bidaiarien eta oinezkoen zein zirkulazioaren segurtasunari bereziki adi.

Oro har, geldialdiak egingo dira ibilgailua espaloiarekiko paraleloan jarrita, eta gainerako ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoari ahalik eta eragozpenik txikiena eginez, bide publikoan ezarritako trafikoaren antolamenduak, garraio publikoaren sustapena dela-eta, autobusei lehentasuna ematen dienean salbu.

36. artikulua. *Istripua gertatzea*

Istripua gertatzen bada, gidariak formalizatuko du partea, gertatutako egintzei buruz ahalik eta informaziorik zabalena eman, eta bidaiariari adieraziko die zein den gorabehera izapidetzeko bide egokia.

Garraio-zerbitzua erabiltzean kaltetuta suertatzen diren erabiltzaileek gidariari eman beharko diote gertatutako egintzen berri, gidaria egintza horiez ohartu ez bada. Ez zerbitzuaren titularra den administrazioa, ez zerbitzua ematen duen enpresa eragilea ez dira erantzule izango erabiltzaileek gertatutakoaren parterik ematen ez badute gerta daitezkeen ondorio negatiboan aurrean, betiere ezinbesteko inguruabarrek gertatutakoaren berri adierazitako moduan ematea galarazten badute.

Halaber, erabiltzaileei gogoraziko zaie erreferentziako garraio-tiketaren egiaztagiria gorde behar dutela.

37. artikulua. *Bidaiariari edota hirugarrenei kalte egitea, istripu baten ondorioz*

Zerbitzua ematen duen enpresak hitzartuak izango ditu indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren aseguruak, istripu baten ondorioz bidaiariari edo hirugarrenei sortzen zaizkien kalte pertsonal edo materialak egoki ordaintzeko.

38. artikulua. *Ibilgailuen edukiera*

Ibilgailuan sartzen den bidaiari-kopurua ez da zirkulazio-baimenean zehaztutakoa baino handiagoa izango. Ibilgailuaren edukiera beteta dagoenean, ez da irekiko igotzeko atea, eta gidariak gorabehera horren berri emango du bere trafiko-zentroan.

Ibilgailuaren barruan, erraz ikusten den lekuan, adierazita egongo dira eserleku-kopurua, zutik joan daitezkeen bidaiarien kopurua, eta, hala badagokio, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonentzat eta mugikortasun murriztua duten gainerako bidaiarientzat erreserbatuta dauden plaza- eta espazio-kopurua.

Zutik doazen bidaiariak garraiatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, dituzten homologazio-ezaugarri teknikoan arabera, eta berariazko arrazoiengatik baimenduta dauden zerbitzuetan.

Debekatuta dago bidaiariak garraiatzea horretarako erabiltzen ez diren eta egokituta ez dauden lekuetan.

39. artikulua. *Garraio-enpresa eragileetako langileen betebeharrak*

Garraio-enpresa eragileetako langileek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

1. Erregelamendu honetan eta derrigorrez bete beharrekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa zehaztasun osoz betetzea.
2. Erabiltzaileekin une oro tratatu zuzena mantentzea, egiten ari diren zerbitzuari lotuta dauden laguntzeko eta informatzeko eskaerei erantzunez.
3. Enpresaren irudi korporatiboa mantentzea eta gutxieneko higie-baldintzak betetzea, bereziki bidaiariekin aurrez aurreko harreman zuzena duten langileek.

Garraio-enpresa eragilearen betekizuna izango da adierazitako betebeharrak nahiz araudi orokorraren ondorioz bidaiariari dagozkien guztiak bertako langileei betearaztea.

40. artikulua. *Tiketa emateko betebeharrak*

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.

41. artikulua. *Tiketaren zenbatekoa itzultzea*

Tiketaren zenbatekoa itzultzea egokia izango da egoera hauetan:

1. Zerbitzua hasi baino lehen eten egiten bada, erregelamendu honetako 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Tiketa alde aurretik erosi eta gero erabiltzailea leihatilan aurkezten bada, ibilgailua irten baino gutxienez hamar minutu lehenago. Ez da itzulketarik egingo ibilgailua jadanik irten denean.

Ibilbidea tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez ordaintzen bada, txartelaren zenbatekoa itzuliko da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak horretarako ezarritako prozeduren arabera.

42. artikulua. Erreklamazio-liburua edota -orriak

Garraio-enpresa eragileek erreklamazio-liburuak edota -orriak jarriko dituzte erabiltzaileen eskura, bidaiariak kexak eta erreklamazioak egin eta zerbitzuaren titularra den administrazioak horien berri izan dezan.

Liburuaren ale bat edo erreklamazio-orrien kopuru nahikoa egongo dira erabiltzaileen eskura leku hauetan:

1. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkoetan.
2. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkorik ez dagoen lekuetan geldialdiak egiten dituzten zerbitzuetako ibilgailu guztietan.

Erreklamazioak egingo dira zerbitzua ohi bezala emateari eraginik ez sortzeko moduan, eta zerbitzua, ahal dela, ez da geldituko. Nolanahi ere, gidariek arreta emango diete adierazten zaizkien erreklamazioei, zerbitzua ohi bezala ematea ez aldatu, ez kaltetzeko moduan eta gainerako bidaiariari eragozpenik ez sortzeko moduan; hori gertatzen bada, erreklamazioa garraio-enpresa eragilean instalazio finkoetan aurkeztuko da, edo ezarritako baliabide elektronikoen bitartez.

Bidaiariak erreklamazioa egin eta garraio-enpresa eragileak erreklamazioa jaso eta gero, garraio-enpresak zerbitzuaren titularra den administrazioari helaraziko dio aipatutako erreklamazioa hogeita hamar egun balioduneko epean, egokitzen jotzen dituen alegazioekin batera, eta erreklamazio-jartzailearen nahia onartzen duen ala ez adierazita.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak egokiak diren neurriak hartuko ditu, garraio-eragile guztiek, pixkanaka, erreklamazioak interneten bidez egiteko aukera eskain dezaten.

IV. TITULUA. GARRAIO-TITULUA

I. KAPITULUA. Garraio-titulua

43. artikulua. Garraio-titulua

Garraio-titulua, behar bezala balidatua, hala badagokio, ibilbide jakin batean bidaiatzeko baimena ematen duen agiria da.

Baliozko garraio-tituluak dira aldiari behingo tiketa, tarifa-sistema bateratuko txartelak, behar bezala balidatuak, doaneko tiket izenekoa, aparteko errekargua ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiria eta une oro zerbitzuaren titularra den administrazioak edo, egokia denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak baimendu dituztenak.

Zerbitzuaren titularra den administrazioak, berez edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bidez, garraio-tituluak sortu ahal izango ditu, eta baita horiek eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak ere.

Garraio-tituluak istripu-kasuetarako egokia den derrigorrezko aseguruaren estaldura darama berekin. Istripua gertatuz gero, aseguru-etxeak garraio-titulua eskatuko du, ibilbidearen zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzeko.

44. artikulua. Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra

Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

Haurrek, bost urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketean garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluak eramatearen titulua izatera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.

Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonen -izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela-, eta itsuen eta aulki gurgildunetan bidaiatzen duten pertsonen laguntzaileek.

Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonen doaneko tiket izeneko eramatea, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.

45. artikulua. *Tiketa ibilgailuan bertan erostea*

Bidaiariak aldi baterako tiketaren zenbateko zehatza ordainduko du, ahal bada; nolana ere, gidaria behartuta dago egokiak diren atzerakoak ematera.

Ibilgailuek zirkulatu beharko dute eskudirua dutela –xehea edo billeteak– atzerakoak eman ahal izateko, erregelamendu honetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ibilgailuetan txeketegia eraman ahal izango da, eta horren bidez eskudirutan eman ezin diren atzerakoak itzuliko dira. Emandako txeketak diru bihurtu daitezke hurrengo egunetik aurrera, garraio-enpresa eragilearen bulegoetan edo zehaztu daitezkeen beste leku batzuetan.

46. artikulua. *Garraio-titulua egiaztatzea*

1. Bidaiariak garraio-titulua erosten duenean, egiaztatu beharko du erositako titulua egokia dela eta, hala badagokio, jasotako atzerakoak zuzenak direla.
2. Bidaia anitzeko tiketak erabiltzen badira edo tarifa-sistema bateratuko txartelaz ordaintzen bada, erabiltzaileak egiaztatu beharko du balidazioa edo kontrola behar bezala egin dela eta egiten ari den bidaiaren datuekin bat datorrela.
3. Tiketaren titulartasuna

Tiketa leihatilan edo interneten bidez saltzeko aukera ematen duten ibilbide luzeko zerbitzuetan, tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez erositako tiketak izendunak izango dira, eta bertan adieraziko da erreferentziako txartelaren zenbakia. Ibilgailuan sartzeko, bidaiariak erositako tiketa erakutsiko dio gidariari txartelarekin batera, bietako datuak bat datozela egiaztatzeko.

Datu horiek bat ez badatoz, edo txartela egiaztatu gabe badago, tiketa era automatikoa ezeztatuko da.

47. artikulua. *Aparteko errekarua ordaintzeko betebeharra*

4. Sarreran kontrolatutako edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa erostera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekarua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke.

Kopuru hori lau lanegunen barruan ordaindu ahal izango da, edo berehala. Berehala ordainduz gero, aparteko errekaruaren zenbatekoa 20 eurora murriztuko da.

Zerbitzuaren titularrak den administrazio publikoak eguneratu ahal izango du artikulua honetan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekaruaren kopurua, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera (KPI).

2. Garraio-enpresa eragileetako gidari eta ikuskatzaileak ahalduz daude aurreko paragrafoan aurreikusitako aparteko errekarua kobratzeko, erabiltzaileak baliozko edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duela egiaztatzen den unean bertan ordaindu nahi badu; hala bada, erabiltzaileari emango zaio egindako ordainketari dagokion ordainagiria.
3. Bidaiariak aparteko errekarua ordaindu nahi ez badu, eta ibilgailua martxan badago, egiten den lehenengo geldialdian jaitsi beharko da ibilgailutik.
4. Bidaiariak aparteko errekarua ordaindu ezin badu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaia jarraitu nahi badu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa-orka beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelirik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularrak identifikatuko da), artikulua honetako lehenengo paragrafoan aurreikusitako aparteko errekarua ordain dezan.

Xede horrekin, bidaiariak behartuta daude beren burua identifikatzera, gidari edo ikuskatzaileari NAN edo agiri baliokidea eta, hala badagokio, oker balidatuta dagoen garraio-txartela erakutsiz.

Bidaiariak ikuskatzeko eginkizunetan laguntzeko betebeharra borondatez betetzen ez badu, zerbitzua ematen duten enpresetako langileek poliziaren laguntza eskatu ahal izango dute.

5. Aparteko errekararen ordainketa egiten ez bada artikuluko honetako lehenengo idatzi-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritako epearen barruan, salaketa jarriko da, egokia den zehapen-prozedurari hasiera emateko.

II. KAPITULUA. Garraio-titulu pertsonalizatua

48. artikulua. Garraio-titulu pertsonalizatuaren balioetasuna eta erabilera

Garraio-titulu, oro har, erabilera pertsonal eta besterenezinekoak izango dira.

Garraio-titulu pertsonalizatua bere izenean erosi duen pertsonak garraio-titulu zaindu eta kontserbatzeko erantzukizuna izango du, garraio-titulu arduraz erabiliko du, eta galtzen badu edo kentzen badiote, ahalik eta azkarren eman beharko du horren berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Erabiltzailearen Arretagunean.

Garraio-titulu pertsonalizatua galdu dela jakinarazten ez den bitartean, bere izenean erosi duen pertsona izango da txartelaren iruzurrezko erabileraren erantzule.

Garraio-titulu pertsonalizatuaren titularra 14 urtetik beherako adintxikikoa bada, gurasoek edo tutoreek gorde eta zaindu beharko dute.

49. artikulua. Garraio-titulu pertsonalizatuaren erabilera okerra edo iruzurrezkoa

Garraio-tituluak aurkeztu egin beharko dira, garraio-titulu pertsonalizatuaren eramaileen identitatea egiaztatzeko agiriren batekin batera, behar bezala identifikatuta dauden ikuskatzaileek edota garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Egoera irregularra gertatuko da garraio-titulu pertsonala eta besterenezina era okerrean erabiltzen denean.

Garraio-titulu oker erabilia egongo da behean jasotako egoeretan, gerora beste egoera batzuk gehitu badaitezke ere:

- a) Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean.
- b) Txartel pertsonalizatuaren jasota dagoen pertsonaren identitatea ez duen beste pertsona batek erabiltzen duenean.
- c) Txartel pertsonalizatu faltsutua denean, edo txartelean jasotako edo inprimatutako informazioa aldatu denean.
- d) Jaisteko orduan ez balidatzea, beste zona bateko geldialdian jadanik egin delako, egindako ibilbidearen truke tarifa txikiagoa ordaintzeko helburuz.
- e) Tarifa-sistema bateratuaren beharpen handiagoak lortzeko helburu bakarra duten ekintzak egiten direnean.
- f) Txartel pertsonalizatua erabili duen pertsonak uko egitea bere identitatea egiaztatzeko behar den agiria erakusteari, ikuskapen-zerbitzuek edo garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean.

Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean, txartela erosi duen pertsonak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu beharko dio akatsa konpontzeko.

Ikuskatzaileek eta garraio-enpresa eragileetako langileek txartelak kenduko dituzte oker edo iruzurrez erabiltzen direnean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatuzko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

50. artikulua. Zigorrek garraio-titulu pertsonalizatuak oker erabiltzeagatik

Erabilitako garraio-titulu tarifa-sistema bateratuko txartela denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak izango da txartelak oker edo iruzurrez erabiltzeagatik zigorrek ezartzen dituenak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatuzko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera.

V. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

51. artikulua. Zehatzeko araubidea

Erabiltzaileek nahiz garraio-zerbitzua ematen duten enpresa eragileek dituzten betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta horren ondorioz, Autonomian indarrean dagoen legerian eta, bereziki, lurreko garraioak eta kontsumitzaile zein erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dituen legerian aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

Erregelamendu honetan jasota dauden eta adierazitako legerian berariaz jasota ez dauden betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta erregelamendu honetan adierazitakoaren arabera zigortuko da.

52. artikulua. *Eskumena*

Erregelamendu honetan ezarritako arau-hausteak egiteagatik zehapen-espedienteak hasi, izapidetu eta ebazteko eskumena izango dute legez edo araubidez eskumen hori esleitua duten organoek.

Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteak gertatuz gero, eskumen hori egokituko zaio arau-haustea eragin duten egintzak gertatu diren zerbitzu publikoaren titularra den administrazio publikoari.

53. artikulua. *Erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-hausteen definizioa eta sailkapena*

Arau-hauste administratiboak subjektu erantzuleek burututako egintzak edo ez-betetzeak dira, erregelamendu honen arabera tipifikatu eta zigortuta daudenak.

Arau-hausteak arin, larri edo oso larri moduan sailkatuta daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 140.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- a) Ibilgailuan baimendutako gehieneko okupaziora iritsi denean, bidaiariei sartzeko debekua ez betetzea.
- b) Ibilgailuak dituen sartu-irteteko sistemak ez erabiltzea, mugikortasun murriztuko pertsona bat bertan sartu edo irten behar denean.
- c) Zerbitzuak irauten duen bitartean, erregelamendu honetako 6. artikuluan aurreikusita dauden derrigorrezko irisgarritasun-sistemak aktibatuta ez edukitzea.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Mugikortasun murriztuko pertsona bati erreserbatutako eserlekua ez uztea, mugikortasun murriztua ez duen beste pertsona bati hala eskatzen dionean. Era berean, arau-haustea izango da, erregelamendu honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, erreserbatutako eserleku bat okupatzen ari den erabiltzailea enpresa eragileak eserleku hori uztera ez behartzea, eserleku hori erabili behar duen mugikortasun murriztuko pertsona bat dagoenean.
- b) Bigarren aulki gurpilduna kokatzeko espazioa erreserbatuta ez edukitzea, mugikortasun murriztuko bidaiariren batek erregelamendu honetako 11. artikuluan aurreikusitako erreserba egin badu.
- c) Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetan etxeko animaliak bertan sartzeari buruzko 21. artikuluan zehaztutako baldintzetakoren bat ez betetzea.
- d) Erregelamendu honetako 25.e artikuluan adierazitako debekua haustea.
- e) Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.g., 25.l. eta 25.p. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- f) Erregelamendu honetako 25.k artikuluan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- g) Erregelamendu honetako 32. artikuluan ibilgailuaren barruko giroari buruz zehaztutako baldintzak ez betetzea.
- h) Tiketaren zenbatekoa itzultzeko betebeharra ez betetzea, itzulketa hori egokia denean erregelamendu honetako 41. artikuluari jarraituz.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Fardelak daramatzaten bidaiariei sartzeko debekua ez betetzea, erregelamendu honetako 19. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
- b) Etxeko animaliak daramatzaten bidaiariei sartzeko debekua ez betetzea, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.
- c) Erregelamendu honetako 24.j. artikuluan ezarritako higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituzten bidaiariei ibilgailuan sartzeko debekua ez betetzea.
- d) Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.h. eta 25.i., 25.j. eta 25.m. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste horiek egitea ez galaraztea.
- e) Erregelamendu honetako 25.f. artikuluan zehaztutako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.
- f) Aparteko erretegia ez ordaintzea erregelamendu honetako 47. artikuluan ezarritako epearen barruan.
- g) Eta oro har, erregelamendu honetatik espresuki eratorritako obligazio eta debeku guztien ez-betetzeak, arau-hauste larria edo oso larria ez badira.

54. artikulua. *Erantzukizuna erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-hausteak egiteagatik*

1. Garraio-enpresa eragileek edota bertako langileek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna emakidaren edo baimenaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoarena izango da, alde batera utzita erantzukizun hori sortu duten ekintzak edo ez-betetzeak enpresek edo enpresako langileek burutu dituzten; hala ere, beren ustez egokiak diren egintzak ondoriozta daitezke arauak berez hautsi dituzten pertsonen aurka.

2. Bidaiariak arauak hausten dituztenean, erantzukizuna bidaiariena izango da.

18 urtetik beherako adingabeak egindako egintzen erantzukizuna aitortzen denean, erantzule solidarioak izango dira, adingabearekin batera, gurasoak, tutoreak, hartzaileak eta legezko edo izatezko zaintzaileak, hurrenkera horretan, horiei guztiei ezarritako betekizuna betetzearen, hau da, 18 urtetik beherakoei egotzen zaien administrazio-zehapena prebenitzeko betebeharra.

Erantzukizun solidarioa ezarri den isunaren ondoriozko diruzkoa izango da hertsiki, eta, bidezkoa bada, sortutako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.

3. Nolanahi ere, arau-hauste independentetzat hartuko dira ibilaldi desberdinetan egiten direnak, nahiz eta arau berak edo antzekoak hautsi.

Hala ere, araua hautsi duten egintzek garraio-enpresa eragilearen bulegoetan egiten den jarduera administratiboarekin zerikusi zuzena dutenean, edo erabilitako ibilgailuarekin, eta ibilgailuaren abiagunea zen enpresa-egoitzara itzuli arte zuzendu ezin direla frogatzen denean, egintza horiek arau-hauste bakartzat hartuko dira, nahiz eta bien bitartean egindako ibilaldietan eginak izan.

55. artikulua. *Erregelamendu hau betetzeko baldintzak ikuskatzea eta egiaztatzea*

1. Garraio-enpresa eragileek ikuskatu ahal izango dute bidaiariak nola betetzen dituzten erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak; hala ere, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek ere ikuskapena egin ahal izango dute.

2. Aipatutako enpresa eragileetako langileak baimenduta daude adierazitako betebeharrak nola betetzen diren zaindu eta ikuskatzeko. Hautemandako arau-hausteen berri eman beharko dute egokia den salaketaren bidez; eta, egokia bada, zehapen-espeditentea irekiko da, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Adierazitako ikuskatzaileek eginkizun horiek betetzen dituztenean, beren izaera egiaztatzen duen agiria aldean izango dute, eta erakutsi egin beharko dute, bidaiariren batek hala eskatzen badie.

3. Ikuskatze-lanak egiten dituzten garraio-enpresa eragileetako langileek ez dute agintaritza-izaerarik; bai, ordea, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek.

56. artikulua. *Zehatzeko espeditenteari hasiera ematea*

1. Erregelamendu honetan arau-hauste moduan tipifikatutako egintzak edo urraketak egiteagatik zehapena jartzeko ahalmena ofizioz hasiko da, eskumena duen organoak hala erabakita, bai bere ekimenez, bai beste organo batzuek eskaera arrazoitua egitearen ondorioz, bai salaketaren bidez.

2. Beste organo batzuen eskaera arrazoituak barnean izango ditu arau-haustea izan daitezkeen egintzen kontaketa, horien tipifikazioa, data, egintzak gertatu ziren egunak edo denboraldi jarraitua, eta, ahal dela, ustezko erantzuleen identifikazioa.

Eskaera arrazoitua aurkeztea ez da loteslea izango zehatzeko ahalmena duen organoarentzat; nolanahi ere, eskaera aurkeztu duen organoari jakinarazi beharko dio prozedura ireki den ala ez.

3. Salaketa zehapen-espeditenteari hasiera emateko modu bat izan daiteke.

Salaketak, berak bakarrik, ez du salatzailea bihurtzen zehapeneko prozeduran interesa duen alderdi. Salatzaileak prozeduran izango duen parte-hartze bakarra izango da prozedura ireki den ala ez jakiteko eta, egokia bada, amaiera emateko ebazpenaren berri izateko eskubidea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzea arautzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera legitimaziorik ez badu eta zehapen-prozedurari hasiera ematea eskatzen ez badu.

4. Zehapen-prozedurak, halaber, alde interesdunak hala eskatuta hasi ahal izango dira, banakako edo taldeko legezko eskubide edo interesen titularra dela egiaztatzen badu.

Hipotesi horretan, ezargarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudia.

57. artikulua. *Zehatzeko ahalmena gauzatzea*

1. Aurreko artikuluan araututako moduetakoren batean salatzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapen-espeditenteak izapidetuko dira ustez urraketa diren egintza edo ez-egiteak burutu diren unean ezargarria den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

2. Prozedura hasten denetik sei hilabeteko epean ebazpena jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legerian ezarritako moduan eta ondorioekin.

Aurreko atalean adierazitako araudian ezartzen diren kasuetan ez ezik, prozedura interesdunei egoztekoak diren arrazoiengatik geldirik dagoen bitartean ere eten egingo da sei hilabeteko epe hori.

58. artikulua. *Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak*

1.- Arau-hauste arinak ohartarazpenaz edo 450 euro arteko isunaz zigortuko dira.

Arau-hauslea berrerorlea bada, ez da bidezkoa izango ohartaraztea, eta isuna jarrita zigortuko da.

2.- Arau-hauste larriak 451tik 1.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

3.- Arau-hauste oso larriak 1.001etik 2.000 euro arteko isunez zigortuko dira.

4.- Zehapenak alderdi hauek kontuan hartuta mailakatuko dira: egintza arau-hausleak gizartean duen oihartzuna, nahitasuna, babestutako ondasun juridikoan arau-haustea eragindako kalteen izaera, legez kanpo lortutako onuraren norainokoa eta jokabide arau-hauslearen errepikapena edo ohikotasuna.

Berrerotzea izango da araua hautsi duen pertsonak urtebeteko epean izaera bereko urraketa bat baino gehiago egin duenean eta hala aitortu denean ebazpen irmoaren bitartez.

5.- Zehatzeko ahalmena duen administrazio publikoak jarriko ditu isunak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidez, ezargarriak diren arauen arabera.

6.- Erregelamendu honetan jasotako arau-haustea, era berean beste legezko xedapen batzuetan edo arloko araudian jasota daudenak, berariazko legeriaren arabera zigortuko dira.

7.- Egokiak diren zehapenak ezartzea eta hirugarrenei sortutako kalte-galerak ordaintzeko egon daitekeen betebeharra ez dira elkarri lotuta egongo.

59. artikulua. *Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa*

1. Arau-hauste oso larriek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, larriek bi urte igarotakoan, eta arinek sei hilabete igarotakoan.

2. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarritako zigorrak hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, arau-hauste larriak egiteagatik ezarritakoek bi urte igarotakoan, eta arau-hauste arinak egiteagatik ezarritakoek urtebete igarotakoan.

3. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da arau-haustea egin zen egunaren biharamunetik hasita. Arau-haustea jarraitutasunez egiten denean, epe hori zenbatuko da arau-haustea izan zen azken egintza egin zen egunetik hasita, edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasita.

Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da prozedura administratiboa hasten denean, ustezko erantzuleak horren berri izanda. Preskripzioa berririo hasiko da, epe osorako, ustezko erantzuleari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean, edo prozedura erantzukizun-aitortzarik gabe amaitzen den egunaren hurrengoan.

Prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

4. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da zehapena ezartzeko ebazpena bide administratiboan irmo egiten den egunaren biharamunetik hasita.

Zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazteko prozedura hasten denean, zigortutakoak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, zigortutakoari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean.

Betearazteko prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago.

Zehapenaren preskripzioa geldiaraziko du, halaber, epaileak betetzeko behar hori eteteak, eta epe osoa berriro zenbatzen hasiko da epailearen etendura kentzen den egunaren biharamunetik hasita.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. *Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetzak*

Garraioak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzak sustatuko du, zerbitzu horietarako erabiltzen diren ibilgailuek askatasunez zirkula dezaten, eta garraio publikoko geltokiak, erreserbatutako erreak eta garraio publikorako erabiltzen diren gainerako bideak libre mantentzea daitezen.

Era berean, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoari eta enpresa eragileei lagunduko diete, bidaiariren batek ezargarriak diren betebeharrak eta debekuak bete ez dituztenean eta bere jokoera zuzentzen ez duenean.

Bigarrena. *Erregelamendu honi segimendua egiteko jarraipen-batzordea*

1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrek adostuko du erregelamendu honen jarraipena egiteko batzorde bat sortzea, erregelamendua indarrean jartzen denetik hilabeteko epean.

2. Aipatutako jarraipen-batzordea honela osatuta egongo da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat eta kontsultaziorako kide diren tokiko erakundeen bi ordezkari, erregelamendu hau ezargarri zaien bidaiariren errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileen lau ordezkari, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bi ordezkari, eta irisgarritasuna edo mugikortasuna mugatua duten pertsonen bi ordezkari.

Batzar Orokorrek, aipatutako jarraipen-batzordea sortzea adosten duenean, Batzordearen barruan garraio-enpresa eragileak eta irisgarritasun edo mugikortasun mugatua duten bidaiariak nahiz bidaiariren errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza bera ordezkatzeko dituzten pertsonak izendatuko ditu.

3. Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira, besteak beste: erregelamendu honen aplikazioa aztertu eta ebaluatzea, eta, aldi berean behingo ebaluazioari jarraituz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari bertan aldaketak egiteko proposamenak aurkeztea.

4. Jarraipen Batzordeak bere barne-araudia onartuko du, bidezkoa bada, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza arautzen duten estatutuen arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bidaiariren errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek urtebeteko epea izango dute, erregelamendu hau argitaratzen denetik hasita, bertan irisgarritasunari buruz ezarri diren ezaugarri teknikoetara egokitzeko.

Modu iragankorrean, ibilgailuek soinu bidezko ohar-sistematik ez duten bitartean, gidariek jakinaraziko diete ibilgailuaren barruan dauden eta ikusmen-urritasuna duten pertsonen alde aurretik adierazi dioten geltokira iritsi direla.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta daude erregelamendu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheagoko xedapen orokorrak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik 15 egun balioudun igarotzen direnean.

Bigarrena. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek behar bezala zabalduko dute erregelamendu hau bertako langileen artean.

I. ERANSKINA

Bizikletak eramatea

Bizikleten sarrera-erregimena Zarauzko hiri barneko garraio publikoan honakoa da:

Bizikletak sartzeari onartuko da, nahiko toki dagoenean eta horretarako aukera ematen duten ibilgailuetan bakarrik, eta ondorengo linea eta geltokietan:

- 1. linea: Bizkaia kaleko geltokitik (Urkidi kalerantz) Barandiaran kaleko geltokira arte.
- 2. linea: Bixkonde kaleko geltokitik (Urkidi kalerantz) Hiruerreketako aparkalekuko geltokira arte.

II ERANSKINA

Etxeko animaliak eramatea

Etxeko animalien sarrera-erregimena Zarauzko hiri barneko garraio publikoan honakoa da:

- Ibilgailuaren barruan sartzeko baimendutako etxeko animaliak honakoak dira: espezie ta ezaugarri guztietako txakurrak eta katuak, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izan ezik.
- Baimendutako linea, geraleku eta ordutegiak honakoak dira: guztiak.
- Baimendutako animalien garraio-baldintzak Araudi honetako 21. artikuluan espresuki jasotakoak dira.

11.- HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA (HAZ) JARTZEA: LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA; LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ETA LANPOSTUEN FUNTZIOEN ESKULIBURUAREN ALDAKETA

2014ko apirilaren 8an egindako osoko bilkuran Zarauzko Udalak behin betiko onespena eman zion Udaleko, haren erakunde autonomoetako eta udal sozietateko Plantilla Organikoari eta Lanpostuen Zerrendari. Akordio hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2014ko apirilaren 28an.

Bestalde, 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran Udalbatzak erabaki zuen Zarauzko Udaleko eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, bai eta ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA ere.

Antolakuntza berrian helburu bat jarri da: arreta zerbitzua behar berrietara egokitzea, eta tresna eraginkorrago batean bihurtzea, behar horiei erantzuteko. Hori dela-eta, desagertu egingo da orain arte udal departamentuetan arreta zerbitzua emateko zegoen modua, eta bereizi egingo dira "kudeaketa" eta "arreta".

Horregatik sortu da departamentu edo zerbitzu berri bat: "HERRITARREN ARRETA ZERBITZU INTEGRALA". Hala, herritarrei arreta zerbitzu integrala emango zaie, Zarauzko Udalarekiko harremanetan. Horrez gain, tramitazio administratiboko funtzio batzuk ere egingo ditu, udal arloekin hala adostu ondoren, elkarren artean egindako lankidetzeta-hitzarmenen bidez.

Helburu horrekin, 2014ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen tramite administratiboak hasiera hertarren arreta zerbitzu hori jartzeko, eta gogoeta prozesu bat hasiera zerbitzu horren sorrerari buruz. Gainera, programa diseinatu eta bultzatzeko arduradun teknikoak izendatu ziren.

Prozesu horretan bertan, Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) arautzeko ordenantzaren zirriborroa egin da. Udalbatzarrak hasierako onspena eman zion 2014ko urriaren 26an egindako bilkuran, eta dagokion tramitazioa bukatu ondoren indarrean sartuko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.

Herritarren arreta zerbitzu horrek etorkizunean, jarri ondoren izango dituen funtzioak aztertzen dira ordenantza horretan.

Horrekin lotuta beharrezkoa da Zarauzko Udalak, legezko mekanismoen bidez, Udaleko lanpostuen zerrendan aldaketak egitea zerbitzu berrirako behar diren lanpostuak jartzeko, hala xedatzen baita ordenantzaren lehen xedapen gehigarrian eta azken xedapenetako bigarrean.

Lanpostuen zerrendek une oro antolakuntzaren behar errealak adierazi behar dituzte, eta, beraz, izaera dinamikoa dute, eta etengabe egokitu behar izaten dira Herri Administrazioaren helburuak betetzeko behar aldakorrei erantzuteko.

Herritarren Arreta Zerbitzua sortzeko beharrezkoa da ondoren adierazten diren lanpostuak amortizatzea:

- Departamentua: Gizarte Zerbitzuak:
 - o Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria (1.1.64 kodea)
 - o Oinarrizko arretaren kudeaketa administraria (1.1.136 kodeko dotazio 1)
- Departamentua: Idazkaritza:
 - o Herritarren arretako kudeaketa administraria (1.1.145 kodea)
 - o Telefonista informatzailea (1.1.14 kodea)
- Departamentua: Ekonomia/Diruzaintza
 - o Zerga-bilketako arretaren kudeaketa administraria (1.1.28 kodeko dotazio 1)
- Departamentua: Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuak
 - o Herrilan, azpiegitura eta zerbitzuetako arretaren kudeaketa administraria (1.1.149 kodea)
- Departamentua: Hirigintza eta Ingurumena
 - o Ingurumeneko kudeaketa administraria (1.1.148 kodea)

Eta HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA sortzea, adierazten diren lanpostu hauekin:

- Departamentua: Herritarren Arreta Zerbitzua
 - Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko arduraduna (postu bat)
 - Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea-Informatzailea (5 postu) (*)
(* Soil-soilik Zarauzko Udaleko eta "Zarauzko Kirol Patronatua" eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

Lanpostu sortu berrien lanaldi araubideari buruz, berriz aztertu da lanpostu horien deskribapen fitxetako funtzioen eskuliburuan jarritako lanaldi araubidea (goian adierazitako osoko bilkuran onartutakoa). Hala, Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzua jartzeko programa diseinatu eta bultzatzeko lan-prozesuaren baitan, beharra sortu da zerbitzu hori arratsaldeko ordutegira zabaltzeko, asteko une jakin batzuetan.

Horren helburua da zerbitzua Zarauzko herritar gehienek ordutegiarekin bateratzea. Horregatik sortu da lanpostu horien deskribapen fitxetako funtzioen eskuliburuko lanaldi mota aldatzeko beharra.

Aurrekoa ikusita, eta Koordinazio informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- "ZARAUZKO UDALAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA" onartzea.

Bigarrena.- Lanpostuen Zerrenda aldatzea, era honetan:

a) Lanpostu hauek amortizatzea:

- Departamentua: Gizarte Zerbitzuak:
 - Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria (1.1.64 kodea)
 - Oinarrizko arretaren kudeaketa administraria (1.1.136 kodeko dotazio 1)
- Departamentua: Idazkaritza:
 - Herritarren arretako kudeaketa administraria (1.1.145 kodea)
 - Telefonista informatzailea (1.1.14 kodea)
- Departamentua: Ekonomia/Diruzaintza
 - Zerga-bilketako arretaren kudeaketa administraria (1.1.28 kodeko dotazio 1)
- Departamentua: Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuak
 - Herrilan, azpiegitura eta zerbitzuetako arretaren kudeaketa administraria (1.1.149 kodea)
- Departamentua: Hirigintza eta Ingurumena
 - Ingurumeneko kudeaketa administraria (1.1.148 kodea)

b) Lanpostu hauek sortzea:

- Departamentua: Herritarren Arreta Zerbitzua
 - o Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko arduraduna (postu bat)
 - o Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea-Informatzailea (5 postu) (*)

Departamentua	HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA
Lanpostuaren izena	HERRITARREN ARRETA ZERBITZUKO ETA KALITATEKO ARDURADUNA
Dotazioa	1
Lanpostu mota	Bakana
Hornidura sistema	Izendapen librea
Sailkapen taldea	A1
Destino osagarria	23
Berariazko osagarria	20.145,38 euro urteko (14 hilekotan)
Eskala / Azpieskala	21
Titulazioa	536
Baldintza bereziak	
Hizkuntza eskakizuna	4
Derrigortasun data	2014/11/26
Lanaldi araubidea	Normalean lanaldi jarraitua, zatituarekin txandakatuta
Dedikazio araubidea	Orokorra

Departamentua	HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA
Lanpostuaren izena	HERRITARREN ARRETA ZERBITZUKO AGENTEA - INFORMATZAILEA
Dotazioa	5
Lanpostu mota	Ez bakana
Hornidura sistema	Lehiaketa (*)
Sailkapen taldea	C1/C2
Destino osagarria	18
Berariazko osagarria	15.727,87 euro urteko (14 hilekotan)
Eskala / Azpieskala	13
Titulazioa	300
Baldintza bereziak	
Hizkuntza eskakizuna	3 (Hizkuntza Politikan tramitatzeko dago)
Derrigortasun data	2014/11/26
Lanaldi araubidea	Normalean lanaldi jarraitua, zatituarekin txandakatuta
Dedikazio araubidea	Orokorra

(*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat eta "Zarauzko Kirol Patronatua" eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

Hirugarrena.- Zarauzko Udaleko eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoetako "ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA" aldatzea, eta, bereziki, 112. eta 113.

fitxak. Horien lanaldi mota hau izango da: "Normalean lanaldi jarraitua, zatituarekin txandakatuta".

Laugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak ebazteko.

Bosgarrena.- Aurrekoa bete ostean, lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuak (toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak) 127. artikuluan, bai uztailearen 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak) 16. artikuluan xedatzen dutenaren arabera.

ZARAUZKO UDALEAN HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) JARTZEAREN ONDORIOZ LANGILEAK BIRBANATZEARI BURUZKO MEMORIA

190/2004 Dekretuak, lanpostuak betetzeari buruzkoak, 37.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egin da memoria hau. Dekretu horrek esaten du birbanatzeko ebazpenak langileei buruzko plangintzarekin loturik emango direla, eta erabakitako neurria justifikatzen duen memorian egiaztatuko direla zerbitzuaren beharretan oinarritzen direla.

1. TESTUINGURUA

1.1 HAZ INTEGRALA JARTZEKO PROZESUAREN JATORRIA.

Administrazio publiko bateko giza baliabideen plangintza egiteko, oinarrizko premisa batetik abiatu behar da beti: agindutako zerbitzu publikoa betetzerakoan ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu eta lortzea, ordenamendu juridikoa errespetatuta eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako teknikak eta neurriak erabilita. Eta hori guztia indarrean dagoen legedian aurreikusitako honako agindu hau jarraituta egin behar da: administrazio publikoak interes orokorrak era objektiboan zerbitzatu behar ditu, eta eraginkortasun-, hierarkia-, deserdiratze-, kontzentrazio eza- eta koordinazio-printzipioen arabera eta lege eta zuzenbideari erabateko men eginez, jarduten du.

Adierazitako testuinguru orokor horretan, 2014ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Herritarren Arretarako Bulego Integrala ezartzeko prozesuari ekitea eta, horretarako, EUDEL eta IVAP erakundeek diseinatutako Prestakuntza eta Tutoretza Planean parte hartzea. Horrek zenbait aldaketa dakartza. Batetik, fisikoak, zerbitzuaren kokapena dela-eta; eta bestetik udal egituraren eta giza baliabideen dotazioan.

Bestalde, Zarauzko Udala bere antolamendua aldatzeko prozesuan sartuta dago une honetan. Aldatzen ari da udal departamentuetako organigrama eta lanpostuen eta horien funtzioen konfigurazioa, eta, bereziki, Herritarren Arreta Zerbitzua, herritarrentzako zerbitzu integral modura osatzen ari dena.

Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran onartu zuen udal antolaketa berri hori.

1.2 HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) SORTZEKO PROZESUA

Udal antolaketa berriaren testuinguru orokor horretan, oinarrizkoa zen herritarren arreta zerbitzu bat (HAZ) sortzea, herritarrei arreta zerbitzu integrala emateko, Zarauzko Udalarekiko harremanetan. Horrez gain, tramitazio administratiboko funtzio batzuk ere egingo ditu, udal arloekin hala adostu ondoren, elkarren artean egindako lankidetzeta-hitzarmenen bidez.

Helburu horrekin, 2014ko martxoaren 7an egindako bilkura hartan, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen tramite administratiboak hastea herritarren arreta zerbitzu hori jartzeko, eta gogoeta prozesu bat hastea zerbitzu horren sorrerari buruz. Gainera, programa diseinatu eta bultzatzeko arduradun teknikoak izendatu ziren.

Prozesu horretan bertan, Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) arautzeko ordenantzaren zirriborroa egin da. Udaltzarrak hasierako onespena eman zion 2014ko urriaren 26an egindako bilkuran, eta dagokion tramitazioa bukatu ondoren indarrean sartuko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.

Herritarren arreta zerbitzu horrek etorkizunean, jarri ondoren izango dituen funtzioak aztertzen dira ordenantza horretan (funtzio horiek hurrengo atalean zerrendatu dira).

Horrekin lotuta beharrezkoa da Zarauzko Udalak, legezko mekanismoen bidez, Udaleko lanpostuen zerrendan aldaketak egitea zerbitzu berrirako behar diren lanpostuak jartzeko, hala xedatzen baita ordenantzaren lehen xedapen gehigarrian eta azken xedapenetako bigarrean.

Era berean, gero plaza horiek bete beharko dira legez jarritako prozeduren bidez. Memoria honetako hurrengo atal batean definituko da nola.

1.3 HERRITARREN ARRETA ZERBITZUARI JARRITAKO FUNTZIOAK

Diseinatu denaren arabera, zerbitzu horren funtzioak orokorrean honakoak dira, ordenantza arautzailearekin bat etorritik:

- A.- Udalari eta udalerritari buruzko informazio emateko funtzioa.
- B.- Kudeaketa funtzioa.

Hauek dira informazio funtzioak:

- Pertsonak hartzea eta arreta ematea, behar duten orientazioa eta laguntza bisitaren lehenengo unean emateko eta, bereziki, bulegoak eta funtzionarioak non dauden esateko.
- Orientazioa eta informazioa ematea. Helburua da gai hauei buruzko argibide eta laguntza praktikoa ematea: prozedurak, tramiteak, proiektuen betebeharrak eta dokumentazioa, egin nahi diren jarduerak edo eskaerak, edo zerbitzu publiko bat jasotzeko edo prestazio baten onuradun izateko informazioa.
- Informazioa ematea prozeduren tramitazio egoerari buruz, eta adieraztea udal espedienteetara eta dokumentuetara iristeko edo horietan parte hartzeko eskubidea baliatu dezaketela, jendaurrean daudenean.

Ondorengo gaietako buruzko informazio administratiboa:

- A. Erakunde eta unitate administratiboen identifikazioa, helburuak, eskumenak, egitura, funtzionamendua eta kokalekua.
- B. Herritarrek egin nahi dituzten proiektuei, jardueri edo eskaerei buruz xedapenek agindutako betekizun juridikoak edo teknikoak.
- C. Prozeduren tramitazioa, zerbitzu publikoak eta prestazioak, eta administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek jakin behar dituzten datuak. Osagarri modura, eman egingo da, baita, udalaz gaindiko zerbitzu eta tramitei buruzko informazioa, herritarrentzat interesgarria dela pentsatzen bada.
- D. Prozeduraren edo haren zati baten ezagutza, jendaurrean dagoenean. Interesdunek, gainera, nahi dituzten alegazioak egin ahaliko dituzte.
- E. Artxibo administratiboetan dauden erregistroak eta dokumentuak eskuratu ahal izatea (espediente baten zati direlako), adierazpidea edo euskarri materiala edozein dela ere (grafikoa, soinua edo irudia), baldin eta espediente horiek eskaera egiten den egunerako amaituta badaude eta erregistro horiek dagoeneko ez badira operatiboak egun horretan.

Hauek izango dira kudeaketa funtzioak:

- Prozedura administratiboetako dagokienez: espediente baten hasierako dokumentazioa jasoko da, arazulorrela xedatu denean. Tramite eta ebazpen jarduerak ere egingo dira, berehalako erantzuna eskatzen duten presazko kontuak eta gauza sinpleak direnean.
- Herritarrek ondorengo helburuekin egindako ekarpenak edo iradokizunak jasoko dira: zerbitzuen kalitatea hobetzeko, etekina areagotzeko edo gastu publikoan aurrezteko, tramiteak errazteko edo beharrezkoak ez direnak ezabatzeke, edo gizartearen eta administrazioaren arteko harremanetan gogobetetasun maila handiagoa ekarriko duen beste edozein neurri ezartzeko.

- Funtzio administratiboen funtzionamenduan izandako atzerapenengatik, arretarik ezagatik edo beste edozein jarduera irregularrengatik herritarrek egindako kexak eta erreklamazioak jasoko dira.
- Zerbitzu publikoei dagokienez: herritarrek egindako deiak eta aberia abisuak jasoko dira.
- Herritarrei lagunduko zaie, eskaerak egiteko eskubidea erabiltzen.

HAZek egingo dituen ekintzak ondorengo 4 ataletan sailkatzen dira, ordenantza honen ondorioetarako:

- A.- Berresteko edo egiaztatzeko ekintzak.
- B.- Eguneratzeko ekintzak.
- C.- Ezagutzazko ekintzak.
- D.- Jarduera ekintzak.

2. LANGILEEN PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZA PROGRAMA.

2.1. SARRERA.

Indarrean dagoen legediak esaten du Administrazioak interes orokorrak era objektiboan zerbitzatu behar dituela, eta eraginkortasun-, hierarkia-, deserdiratze-, kontzentrazio eza- eta koordinazio-printzipioen arabera eta lege eta zuzenbideari erabateko men eginez jarduten duela.

Printzipio horiei erantzuteko, administrazio publiko bateko giza baliabideen plangintza egiteko, oinarritzko premisa batetik abiatu behar da beti: agindutako zerbitzu publikoa betetzerakoan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea. Eta hori guztia ordenamendu juridikoa errespetatuta eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako teknikak eta neurriak erabili.

Horrek esan nahi du 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuarenak, 69 artikuluan aurreikusitakoaren baitan sartzen dela giza baliabideen planifikazioa. Artikulu horretan planifikazio-helburuak eta -tresnak jasotzen dira eta esaten du administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi direla, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eraginkortasunez jarduteko. Horretarako, langile-kopurua egokitu behar dela, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide sustapena eta mugikortasuna eskaini.

6/1989 Legeak ere, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, esaten du Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzaketela, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langile ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratatuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte bere baitan. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, baita gobernu organoek langilego-politikarako finka ditzaketan irizpideen arabera ere.

Tokiko eremuaren arloan, 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarrienak, 90 artikuluan esaten du plantillak arrazoizkotasun-, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioen arabera izan behar direla, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri behar direla.

2.2 LANGILEEN PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZA.

2014ko irailaren 24an egindako bilkura horretan bertan Zarauzko Udalak erabaki zuen udal antolakuntza berria onartzea, bai eta Giza Baliabideen Plana ere (2014), giza baliabideak antolatu eta arrazionalizatzeko planaren baitan.

Plan horretan dagoeneko jasota zegoen herritarren arreta zerbitzu integral berriari aurre egiteko behar ziren giza baliabideak egokitzeko beharra.

Zehazki ondorengo lanpostuen amortizazioa sartu zen:

- Idazkaritza: Herritarren arretako kudeaketa administraria (1.1.145 kodea)
- Idazkaritza: Telefonista-Informatzaila (1.1.14 kodea)
- Ekonomia / Diruzaintza: Zerga-bilketako arretaren kudeaketa administrari bat (1.1.28 kodea)
- Herrilan, azpiegiturak eta zerbitzuak: %50 dedikazioa duen Arreta kudeaketaren administraria (1.1.149 kodea)
- Hirigintza eta ingurumena: %50 dedikazioa duen ingurumeneko kudeaketaren administrari erdia (1.1.148)
- Gizarte ongizatea: oinarritzko arretako kudeaketaren administrari bat (1.1.136 kodea)

Era berean, Gizarte Zerbitzuetako Teknikariaren postua ere (A1 taldekoa) amortizatzen da (1.1.64 kodea).

Planean jasota zegoen, baita, amortizatzen ziren lanpostuetako plazen titularrak, zerbitzua zela-eta, beste lanpostu batzuetan atxikiko zirela, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak xedatutakoarekin bat etorritz.

Era berean, ondorengo lanpostuak sortzea aurreikusi da:

- Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko Arduraduna; dotazioa: lanpostu 1.
- Herritarren Arreta Zerbitzuko (HAZ) Agentea-Informatzailea; dotazioa: 5 lanpostu.

Langileak birbanatzeko teknikaren bidez aldaketa nabarmen bat egin nahi da, zerbitzu publikoa emateko moduan eta giza baliabideen erabileran. Horrenbestez, beharrezkoa da langileen plangintza berrian lortu nahi diren helburuak diseinatzea.

- Giza baliabideak optimizatu, erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuak mantendu edo gehitzeko, eta plantilla egokitu zerbitzu publikoaren egitura berriaren arabera.
- Udaleko lanpostuen zerrenda aldatu, eta onartutako antolakuntza berrira egokitu. Antolakuntza berrian honako arlo eta lanpostu hauek sortzen dira: arlo funtzional berria (HAZ), bost (5) lanpostu berri administrazio bereziko eskala, azpieskala administratiboan eta bat (1) administrazio berezia, azpieskala teknikoan.
- HAZen sortutako lanpostuek bete beharreko funtzioen katalogoa jarri.
- Lanpostu bakoitzeko funtzio-zerrenda bat banatu, Udaleko arlo funtzionaltako administrazio bereziko, azpieskala administratiboko gainerako langileei. Zerrenda hori dagoeneko onartuta dago udal antolakuntza berrian.
- Arlo funtzional desberdinetan dauden langileak HAZ arlo funtzional berriaren zerbitzu-beharren arabera birbanatu, lanpostuak betetzeko legezko mekanismoen bitartez.
- Langileak birbanatzeko irizpide objektiboak jarri; esate baterako, gaitasunak, prestakuntza, esperientzia eta antzinatasuna.
- Aldez aurretik garbi utzi giza baliabideak planifikatu eta antolatzeo programak ez duela ekitaldi ekonomikoan gasturik gehituko, ez eta langile kopurua handituko ere.
- Aldez aurretik zehaztu lanpostu berriei jarritako ordainsariak behin-behinekoak izango direla, harik eta Udalak lanpostuen balorazioaren prozesu orokorra egiten duen arte.
- Zerbitzu sortu berrian arituko diren lanpostu berrietan atxikitako langileei emango zaien prestakuntza zehaztu.

2.3 LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.

ARAUDI ESPARRU APLIKAGARRIA

Egin beharreko aldaketak adierazi baino lehen, lege esparru aplikagarriaren testuinguruan sartu behar ditugu. Horrenbestez, diseinatutako helburuak lortuko dituen berrantolakuntza egiteko, beharrezkoa eta oinarritzkoa da langileen plangintza berri bat egitea eta lanpostuen zerrenda aldatzea. Lanpostuen zerrenda aldatzeko legezko xedapenetan sartzen bagara, ondorengo lege eta prozedurazko kontuak aipatu behar dira:

Oinarritzko esparru gisa, 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua onartzen duena. Lege horrek 69.2 artikuluan esaten du administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeo planak onartu ahal izango dituztela, plan horien barruan, "besteak beste", honako neurri hauek hartuta.

b) Lana antolatzeo erabiliko diren sistemak eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak zehaztu behar dira.

Erkidegoko araudian ere, 6/1989 Legeak, uztailearen 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak (16/1997 Legeak, azaroaren 7koa aldatutakoak), 18 artikuluan esaten du:

1. Egitura organikoan egin daitezkeen aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien lanpostuen zerrendak onartzea ere eskatuko du. Nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko dira lanpostuak.
2. Unitate edo Zuzendaritza Zentro bati atxikitako lanpostu ez singularizatuak, zerbitzuko premien arabera, Sail edo Erakunde Autonomo bereko eta ezberdineko beste Unitate edo Zuzendaritza Zentro batzuei berratziki dakizkieke, herri berean. Beteko dituzten egitekoak ordura arte gaineratuta zituztenen antzekoak izango dira.

Lege horrek berak (6/1989) honako hau xedatzen du 50. artikuluan:

1. Estatutuko lanpostu zerrendaren egonkortasunari utzi gabe, lanpostua betetzea ez da funtzionarioek eskuratutako eskubide bat izango.
3. Lanpostua lehiaketaren prozeduraren bidez lortu duten funtzionarioak euren lanpostutik aldatu ahal izango dira gerora sortutako arrazoengatik, lanpostuaren edukia aldatu delako (lanpostu-zerrenden bidez edo horietan aurreikusitakoagatik), baldin deialdiaren oinarri izan ziren kasuak aldatzen badira.

Bestalde, prozeduraren aldetik oinarrizko interesa dauka 7/2007 Legeak 37.1 artikuluan esaten duenak. Alegia, ordezkari sindikalekin negoziatzeko gaiak direla

c) ...giza baliabideak antolatzeke planak eta planifikazio-tresnak.

37.1 artikulua horrek berak esaten du negoziatzeko gaiak direla hauek ere:

k) Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarrietan eragina dutenak, baldin eta horiek arautzeko lege-mailako arauak izatea beharrezkoa bada

m) Hauei dagokienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugikortasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.

Arau hori irakurrita ondorio batera iristen da: lanpostuak betetzeko edozein akordio hartu aurretik beharrezkoa dela Zarauzko Udaleko langileen ordezkariekin negoziatzea.

Eskumenei dagokienez, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubideko Oinarriak arautzen dituenak, 22.1 i) artikuluan esaten du Udalbatzari dagokiola lanpostuen zerrenda onartzea. Beraz, udal organo horrek onartu beharko ditu horri egindako aldaketak ere.

LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA, HASIERAKO EGOERA.

Orain arte Lanpostuen Zerrenda aldatzeko legezko esparrua ikusi dugu. Lege horiek hainbat tresna ematen dituzte langileak antolatzeke eta aldaketa horiekin plangintza berri bat sortzeko. Hori egin ondoren, hemendik aurrera, egitura horretan zein aldaketa egingo diren diseinatu behar da.

Herritarren Arreta Zerbitzuan sartutako lanpostu berriei ondorengo edukia eman zaie:

– **Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko Arduraduna:**

- Herritarren informazio eta arreta bulegoa planifikatu, zuzendu eta kudeatu, zerbitzua etengabe hobetzeko proposamenak egin eta zerbitzuaren ildo operatiboak finkatu.
- Bere kargu dauden langileen jarduerak zuzendu eta gainbegiratu, langileen artean lan-zama behar den bezala banatuz, eta langile horien egutegiak kudeatu.
- Zerbitzuaren helburuak bete diren kontrolatu aldian-aldian, horien arduradunekin.
- Orokorrean Udalbatzari aholkuak eta babesa eman; horretarako, kudeaketaren arrazionalizazio eta hobekuntzari buruzko informazioa emango dio, eta jarduteko orduan antolakuntzaren gaitasun, ahalmen eta baliabideekin koherenteak diren irizpide orokorrak aplikatuko dira (lotura sistemak, planifikazio sistemak eta adierazleen arabeko kontrola, etab.).
- Antolakuntza hobetzeko prozesuen garapena bultzatu eta zuzendu (prozesuen definizioa eta berrantolakuntza, kalitate sistemak, hobekuntza ekipoak, informazio sistemak, zerbitzuen karta, prozesuen homogeneizazioa, protokoloak argitu, barruko lan-sarea indartu, etab.).
- Udaleko zerbitzu desberdinen barruko kudeaketa erraztuko duten tresnak eta erremintak diseinatu, eta langile guztien esku jarri kudeaketa hobetzeko eta lanpostuen funtzioak garatzeko informazio guztia.
- Jardueren eta zerbitzuen urteko memoria prestatu, eta, aldian-aldian, egindako jardueren txostenak egin, bai eta behar diren gainerako txosten eta dokumentuak ere (akordio proposamenak eta/edo araudiak, idatziak, iragazkiak, ofizioak...).
- Antolakuntza hobetzeko proposamenak egin.
- Departamentuko aurrekontuen proposamena prestatu, eta horien kudeaketa eta segimendua egin.
- Bere zerbitzuetara atxikitako edo lotutako ondarea kudeatu.
- Departamentuko gainerako langileei behar duten laguntza dokumental eta teknikoa eman, eta beharrezkoak diren koordinazio-bilerak egin horiekin.
- Beste departamentuetako teknikari eta politikariek behar diren hartu-emanak eduki.

- Bere departamentuko diru-laguntzak kontrolatu eta kudeatu.
 - Udalaren web-orriko eta beste euskarri batzuetako (sare sozialak, etab.) informazioa, bere jardute-esparruari dagokiona, kontrolatu eta landu, eta etengabe eguneratzen dela ziurtatu, Informazio eta Komunikazio Teknologietako (IKT) Departamentuarekin batera.
 - HAZeko gainerako lanpostuei behar duten laguntza dokumental eta teknikoa eman, eta beharrezkoak diren koordinazio-bilerak egin horiekin.
 - Leihatilan sortzen diren kontsulta, kexa edo informazio eskaera konplexuenak konpondu, eta herritarrari atenditu Herritarren Arreta Zerbitzuko agenteak-informatzaileek hasiera batean konpondu ezin izan dutenean.
 - Herritarren Arreta Zerbitzuko informatzailearen lanak egin, zerbitzuak hala eskatzen duenean.
 - Gainerako departamentuen solaskide izan, departamentu horiek Herritarren Arreta Zerbitzuari informazio egiazkoa eta eguneratua emateko sistema bat bultzatu eta gainbegiratu, eta informazio hori azkar, garbi eta era probetxugarrian biltzeko prozedurak eta bideak proposatu.
 - Udalak sustatzen dituen ekintza eta ekitaldien publizitatea diseinatu eta kudeatu HAZerako, Turismo departamentuarekin estuki koordinatuta, eta udal iragarkien/ediktuen taula kudeatu Idazkaritza Departamentuarekin koordinatuta.
 - Zerbitzuak zuzendu eta horien kalitatea gainbegiratu, eta Udal barruko kalitate metodologiak eta prozesuak aztertu, diseinatu eta aplikatu.
 - Sindikoaren funtzioak objetibotasun, irizpide-askatasun edo independentzia osoarekin bete, Udalbatzaren konfidantzapean. Horien artean nabarmentzekoak dira:
 - Udal zerbitzuen jardueraren edo jarduera ezaren aurrean babesik gabe sentitzen diren pertsonen atenditu, informatu eta orientatu.
 - Udalak ondo funtziona dezan zaindu, eta Udaleko gainbegiratzaile eta kolaboratzaile gisa jardun, haren funtzionamendua hobetzen laguntzeko.
 - Interes publikoko zerbitzu azpikontratatuak edo zeharkako kudeaketa bidez emandakoak ondo funtzionatzen duten zaindu.
 - Udaleko edozein departamenturi gomendioak eman, iradokizunak egin eta gauzak gogorarazi.
 - Partikularren eta Udalaren arteko akordio eta kontziliazio formulak proposatu, hala dagokionean.
 - Kasu jakin batzuetan ofiziozko gomendioak eman eta txosten bereziak idatzi, Udalbatzak hala eskatuz gero.
 - Aldeen arteko bitartekari-lanak egin, hala onartzen badute.
 - Batzordeetan eta bileretan parte hartu, zerbitzua dela-eta hala eskatzen zaionean.
 - Zerbitzuak eskatzen dituen kontratazioen proposamenak egin, beharrezkoa denean baldintza teknikoan agiriak idatzi; zerbitzuarekin lotutako kontratazio espedienteen esleipen proposamenak egin; eta kontratazio-mahaian parte hartu, hala eskatzen zaionean edo gaia dela-eta beharrezkoa denean.
 - Bere departamentuko bulego-materiala hornitu eta zaindu.
 - Bere lanpostuaren eta/edo titulazioaren sailkapenaren arabera, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartu, hala eskatzen zaionean.
 - Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera badira.
- **Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea - Informatzailea:**
- HAZera bertara joanda edo beste bitarteko batzuen bidez (telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo web-orria, sare sozialak...) HAZera jotzen duen jendeari atenditu eta eskatutako informazioa eman; argibideak ere eman eskatu dituzten zerbitzu eta izapideen inguruan, eta betiere beharrezko laguntza guztia eskaini uneoro.

- Udalean bertan, eta/edo leihatila bakarrek edo antzeko hitzarmenak tarteko, beste administrazio batzuetan aurkezten diren eskabideak eta dokumentazioa erregistratu eta eskaneatu eta erregistroko arduradunari pasatu, erregistroko fitxa bete eta dagokion moduan banatzeko.
- Zergadunaren aurrean dagozkion gestioak egin: leihatilan kobratu, bere zerga-egoerari buruzko informazioa eman eta egiaztagiria prestatu, ordainagiria egin, etab.
- Leihatilan bertan jakinarazpenak egin, arrazoi desberdinen ondorioz ezin izan zaionean jakinarazpenik helarazi zergadunari.
- Teknikariekin egoteko alde aurretiko txanda sistema erabili, sistema hori jarrita badago.
- Zerbitzuko kudeaketa eta izapide lan administratiboak egin, arduradunaren agindupean eta hark emandako jarraibideen arabera, eta, bereziki, biztanleen erroldako, udal ogasuneko (kobrantzak, likidazioak, etab.) eta normalizatuak izan daitezkeen gainerako udal zerbitzuetako izapide berehalakoak egin.
- Planteatzen diren galdera eta eskaerak aztertu, eta horietatik izaera espezifikoak dutenak bidali Departamentura, betiere aurretik txanda hartuta edo beste sistemaren bat erabilia, baldin eta halakorik jarrita badago.
- Aplikazio informatikoan biztanleen kexu eta iradokizunak sartu, dagokion departamentuan izapidetu eta kudeatu ditzaten.
- Dokumentazioa entregatu (hirigintzako ziurtagiriak, ondasunei buruzkoak, txosten teknikoak, obra-lizentziak, errolda-agiriak, etab.).
- Altarekin eta aldaketekin zerikusia duten izapideak egin Udalaren zerbitzu telematikoetan.
- Udalean eta/edo beste administrazio publiko batzuetan eragina izan behar duen dokumentazioa konpultsatu, leihatila bakarrek hitzarmenak egonez gero.
- Departamentuko arduradunari lagundu iragarki-taulan jartzekoak diren iragarkiak mantentzen eta kontrolatzen, eta eskatu dituzten erakundeetara bidaltzeko diligenziak egiten.
- Kudeatzen dituzten datu-baseetan aldaketak sartu, ondoren egiaztatu eta eguneratzeko.
- Hainbat lan osagarri egin (fotokopiak, koadernaketak, dokumentuak banatu, etab.).
- Bere lanpostuaren eta/edo titulazioaren sailkapenaren arabera, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartu, hala eskatzen zaionean.
- Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, betiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera badira.

2.4 LANPOSTUAK BETETZEKO LEGEZKO FORMULA APLIKAGARRIA: LANGILEAK BIRBANATZEKO PROZESUA.

Giza baliabideen plangintza prozesuan aplikagarria den legezko esparrua eta horren irismena zehaztu ondoren, Lanpostuen Zerrendan sortuko diren lanpostu berriak betetzeko zein teknika instrumental zehatz erabiliko den aztertu behar da. Lanpostu horiek beste udal arlo batzuetako langileekin beteko dira.

Hain zuzen ere, 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak eta erkidegoko legea garatzen duenak, 2 artikuluan honakoa arautzen du, lanpostuak betetzeko sistemen xedeaz:

Lanpostuaren zereginetan jarduteko gaitasunik handiena duen izangaia hautatzea da lanpostuak betetzeko sistemen helburua, betiere era horretan herri zerbitzuak egoki eskaini daitezten eta onura orokorra lor dadin. Aipatutako xedea lortzeko asmoz, bete behar diren lanpostuei dagozkien merituak balioetsiko dira.

3.1 artikuluan honako hau esaten du:

Lehiaketa edo izendapen askeko prozedura bidez beteko dira funtzionarioentzat gordetako lanpostuak, horien eginkizunen arabera lanpostu-zerrendek ezartzen dutenekin bat etorriz.

3.2 artikuluan honako hau esaten du:

Halaber, lanpostuak beteko dira ere bai zerbitzu beharregatik langileen birbanatzearen bidez bai arrazionalizazio programa baten ondoriozko langileak berrizendatzeko prozesuaren bitartez.

Lanpostuak betetzeko, dekretuan zerrendatutako mekanismoak ikusi ondoren, ondorengo moduak erabiltzeko aukera dagoela ondorioztatzen da:

Giza baliabideen birbanaketa, 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak, 37 artikuluan adierazitakoa; **lanpostuen berraxikipena**, 39 artikuluan adierazitakoa; eta **langileen berrizendapena**, arrazionalizazio programa baten barruan (41 artikulua). Denak nahiko antzekoak badira ere, funtsezko aldeak ikusten dira. Horrenbestez, **giza baliabideen birbanaketa** irudiaren alde egingo da.

Aipatu behar da **giza baliabideen birbanaketaren** bidez betetzen badira lanpostuak, egin nahi den moduan, eragindako langile funtzionarioak administrazioan hutsik dauden beste lanpostu batzuetan atxikitzen direla (eta ez lehendik zeuzkatenetan).

Lanpostuen berraxikipenak irismen txikiagoa du, eta funtsezko alde hau du birbanaketarekin. Berraxikipenetan ez da funtzioetan alde nabarmenik gertatzen, lanpostuak betetzeko erregelamenduaren arabera. Erregelamenduak esaten baitu egingo diren funtzioek ordura arte jarritakoen antzekoak izan behar dutela, eta, beraz, berraxikitako lanpostuak betetzen ari ziren funtzionarioek ordura arte zeuzkaten funtsezko lan-baldintzekin jarraituko dute.

Ezaugarri horrek erabat bereizten du egin nahi den eta memoria honen xede den langileen birbanaketaren irudiarekin; izan ere, nahiz eta HAZek bere gain hartuko dituen zerbitzu berrian atxikitako langileen funtzioak edo horietako asko, berez, askoz eduki zabalagoa izango du, eta horrek esan nahi du aldatutako langileek izango dituzten funtzio asko guztiz desberdinak izango direla aurreko lanpostuarekin alderatuta. Hau da, jatorrizko lanpostua eta destinakoa guztiz desberdinak izango dira.

Bestalde, birbanatuko diren langileek ordura arte zeuzkaten oinarritako lan-baldintzak aldatu ahalko dira, Lanpostuen Zerrendak horri buruz ematen dituen zehaztapenen bidez (batez ere, ordutegiari dagokionez). Horrenbestez, ez da "fitxa-mugimendu" bat bakarrik izango edo lanpostuak zerbitzu batetik bestera mugitzea, berraxikipen batean bezala, baizik eta langileak beste postu batzuetan birbanatuko dira.

Era berean, legearen 41 artikuluan adierazitako berrizendapenaren irudiari buruz adierazi behar da irudi horrek irismen handiagoa duela, birbanaketaren erdi-bideko irudiarekin edo lehen komentatutako irismen txikiagoko berraxikipearekin alderatuta, izan ere berrizendapena berariazko arrazionalizazio programa baten barruan egiten da. Ez da zerbitzuaren beharretan oinarrituta justifikazio-memoria baten bidez egindako langile-planifikazio baten esparruan egiten. Aitzitik, berraxikipenaren irudia ezartzen duen programak aldi berean giza baliabideen arrazionalizazio ona garatzeko behar diren beste irudi batzuk ere eduki ditzake bere baitan.

Arrazionalizazio programa horretan, 42 artikuluan adierazitako neurriak sartzen dira, eta besteak beste hor dago berrizendapena ere. Antolakuntzan askoz irismen handiagoa dakar, HAZ zerbitzuaren sorrerarekin lortu nahi dena baino. Horregatik baztertu da lanpostuak betetzeko irudi hori.

Lanpostuen birbanaketaren irudian zentratzen bagara, 190/2004 Dekretuak honakoa dio 37 artikuluan:

1.- Giza baliabideen kudeaketa on eta eraginkorra izan dadin, edota zerbitzuak egoki ibili daitezzen, bereizi gabeko lanpostuetan atxikitako langileak bete gabe dauden beste lanpostu batzuetan atxiki daitezke, betetzen ari direna ez beste lanpostuetan hain zuzen, baldin eta lanpostu berrien eskakizunen jabe badira eta honako irizpideok kontuan harturik:

a) Birbanaketaren ondorioz funtzionarioak beteko duen lanpostuak, destino osagarriaren mailari dagokionez, lehenago betetzen ari zenaren berdina izatea. Gainera, lanpostu berriak, lanpostu-zerrendetan, lehenago betetzen ari zenaren betetzeko sistema berdina, eduki behako du.

b) Birbanaketak berez herriz aldatzerik ez ekartzea, doakionarekin adostasunik badago salbu. Kasu guztietan kontuan hartuko da geografikoki hurbiltasunik handiena egotea.

2.- Birbanatzeko ebazpenak langileei buruzko plangintzarekin loturik emango dira, eta erabakitako neurria justifikatzen duen memorian egiaztatutako zerbitzuaren beharretan arrazoituko dira.

38 artikulua honakoa dio horri buruz:

1.- Funtzionarioak lanpostu berria lehenagoaren atxikipen berdinez beteko du.

2.- Urteen kalkulua, Araudi honen 10. artikulua jasotakoa, birbanaketa egin zenean betetzen ari zen lanpostuan langilea behin betiko izaeraz sartu zeneko egunean hasiko da.

3.- Giza-baliabideen birbanaketaren ondorioz bere lan-lekua aldatu behar duen funtzionarioak, eskubidea izango du gai horri buruzko arauetan kontzeptu horregatik ezartzen diren kalte-ordainak jasotzeko

Bestalde, Udaltzuek, Zarauzko Udaleko langileen 2008-2010eko lan-baldintzak arautzen dituenak, honela dio 107 artikuluan:

1.- Funtzionarioari gordetako lanpostuen hornidurarako sistemak hauek dira:
e) Langileak birbanatzea.

2.- Lanpostuen hornidurarako sistema indarrean dagoen legediaren arabera egingo da.

2.5 HAZ HORNITZEKO GARATUKO DEN PROZEDURAZKO PROZESUA

Aurrez esandakoarekin bat etorritik, prozedurazko ibilbide hau jarraituko da Herritarren Arreta Zerbitzu berria sortu dela-eta egin nahi den langileen birbanaketan:

- Prozesu hau justifikatzeko memoria deskriptibo hau egin.
- Zarauzko Udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu, jarraitu beharreko prozesuari buruz. Memoria honetan adierazi da prozesua. Prozedurazko hurrenez hurrenengo urratsen berri emango zaie.
- Koordinazioko informazio-batzordearen irizpena.
- Udaltzuekaren akordioa, lanpostuen zerrenda aldatzeko.
- Plazak sortzeko akordio hori jendaurrean jarriko da GAOn.
- Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betikoa izango da. Bestela, alegazio horiek ebazti beharko dira, Udaltzuekaren berariazko akordioen bidez.
- HAZeko lanpostuak betetzeko barne-prozesua:
 - * Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko Arduraduna, berrizendapenaren bidez.
 - * HAZeko Herritarren Arretako Agente-Informatzailearen lanpostua barne sustapen bidez betetzeko oinarriak egin.
 - * Oinarri horiek ordezkari sindikalekin negoziatu, alde aurretik negoziatu ez badira.
 - * Tokiko Gobernu Batzarrak oinarriak onartu, Zarauzko Udalean indarrean dagoen eskuordetzari jarraiki.
 - * Oinarriak udal barruan argitaratu, eta epe bat ireki langileek parte hartzeko eskaerak aurkez ditzaten.
 - * Eskaeren behin-behineko zerrenda onartu, eta hala badagokio behin betikoak ere bai, eta parte hartzeko eskaeren balorazioa egiteko eguna jarri.
 - * Eskaeren balorazioa egin, horien artean lehentasunak jarri eta sortutako postuak langile zehatzei izendatu.
 - * Alkatetzaren dekretua, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) sortutako lanpostu berrien birbanaketa egiteko.

2.6. LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN BIDEZ HAZ-EN SORTU BEHARREKO LANPOSTUAK: ANALISIA.

7/2002 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua onartzen duenak, 73.3 artikuluan esaten du lanpostuak ezaugarrien arabera taldeetan sailkatu ahal izango direla, hautaketa, prestakuntza eta mugikortasuna antolatzeko.

Horri buruz esan behar da, HAZen lanpostu zehatz batzuk sortzeko helburu horretan, lanpostu horiek taldeetan sailkatuko direla zerbitzu sortu berri horretan. Horrek esan nahi du HAZen sortutako lanpostuaren funtzioak definizioz zehaztu behar direla.

Kontzeptuari dagokionez, lanpostua honela definituta dator: jarduera eta funtzio berari buruzko zeregin multzoa, pertsona bakar batek egiten duena. Lanpostuak, beraz, zereginak eta pertsonak lortzen ditu. Horrenbestez, lanpostua tresna bat da, batetik, antolakuntza egituratzeko, eta bestetik, bere funtzioak betetzen direla bermatzeko eta langileek antolakuntzaren baitan izango dituzten aldaketak, igorak, ordainsariak eta karrera bermatzeko.

Horregatik da lanpostua jardueren multzo bat. Horregatik zehaztu behar dira jarduerak, eta deskribatu. Lanpostuei jarritako zeregin eta jarduera guztiak identifikatu behar dira, baita horien antolakuntza edukia ere.

Hori guztia hastapen batetik abiatzen da: sortuko diren lanpostuak **polibalentek** izango dira, hau da, HAZen atxikitako funtzionario guztiek funtzio berdinak izango dituzte (zerbitzu berriari orokorrean jarritakoak). Horrek esan nahi du lanpostuak homogeneoak izango direla eta, horrenbestez, trukagarriak. Ia kasu guztietan, beraz, HAZeko lanpostuek funtzio berdin-berdinak izango dituzte.

Herritarren Arreta Zerbitzuan sortuko diren lanpostuak C1/C2 taldekoak izango dira (administrazio orokorreko eskala, azpieskala administratiboa) eta azpieskala administratiboko funtzionarioek bete ahalko dituzte, funtzionario horien funtzioen esparruan sartzen direlako zerbitzuaren funtzioak eta bertan atxikitako lanpostuak.

Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko Arduradunaren postua, ordea, A1 taldekoa izango da (administrazio bereziko azpieskala teknikoak).

Sortuko diren lanpostuak (euren izaera eta funtzioen arabera bete nahi direnak) Zarauzko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioek betetzeko sortzen dira, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 19.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Lanpostu hauek dira:

– ONDORENGO LANPOSTUAK SORTZEA

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA:

- Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko arduraduna (postu bat)
- Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea-Informatzailea (5 postu) (*)
(*): Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat eta “Zarauzko Kirol Patronatua” eta “Zarauzko Turismo Bulegoa” erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

Lanpostu hauek amortizatzen dira:

– ONDORENGO LANPOSTUAK AMORTIZATZEA

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

- Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria (1.1.64 kodea)
- Oinarrizko arretaren kudeaketa administraria (1.1.136 kodeko dotazio 1)

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

- Herritarren arretako kudeaketa administraria (1.1.145 kodea)
- Telefonista informatzailea (1.1.14 kodea)

DEPARTAMENTUA: EKONOMIA/DIRUZAINZTA (0302)

- Zerga-bilketako arretaren kudeaketa administraria (1.1.28 kodeko dotazio 1)

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

- Herrilan, azpiegitura eta zerbitzuetako arretaren kudeaketa administraria (1.1.149 kodea)

DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA, PLANGINTZA ETA INGURUMENA (11)

- Ingurumeneko kudeaketa administraria (1.1.148 kodea).

Aurrez aipatutako lanpostuen amortizazioak berekin ekar dezake karrerako funtzionarioak lanposturik gabe geratzea. Hori gertatzen bada, beste departamentuetan geratutako lanpostu hutsetan kokatuko ditu Udalak soberakin horiek, atxikipen berriak eginda.

Bestalde, Herritarren arreta zerbitzuko agente-informatzailearen postuei dagokienez, kontuan hartzen bada amortizatutako diren lanpostuetan egun betetzen dituzten funtzioak gero beteko dituztenen antzekoak direla (herritarren arreta eta informazioa), hornidura prozesua egin ondoren bat edo beste hutsik gelditzen bada, egun amortizazioaren xede diren lanpostuak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioak atxiki ahalko dira lanpostu horietan, ordezkaritza sindikalarekin dagokion negoziazioa egiteari eta neurri horiek hartzearen premia eta beharra justifikatzeari utzi gabe.

2014ko LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA

– POSTU HAUEK AMORTIZATZEA

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIOA	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
1.1.64	Gizarte Zerbitzuetako teknikaria	1	E	C	A1	21	13.558,39 16.898,64	21	536		4	2006/06/28	1	1
1.1.136	Oinarrizko arretaren kudeaketa administraria	1	E	C	C1	16	14.064,63	13	300		3	2007/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIO A	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
1.1.145	Herritarren arretako kudeaketa administraria	1	E	C	C1	16	14.064,63	13	300		3	2008/01/25	1	1
1.1.14	Telefonista informatzailea	1	E	C	C2	15 16	12.964,61 14.064,63	13	200		2	1993/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: EKONOMIA/DIRUZAINZTA (0302)

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIO A	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
1.1.28	Zerga-bilketako arretaren kudeaketa administraria	1	E	C	C1	16	14.064,63	13	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIO A	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
1.1.149	Herrilan, azpiegitura eta zerbitzuetako arretaren kudeaketa administraria	1	E	C	C1	16	14.064,63	13	300		3	2008/01/25	1 (% 50)	1

DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA, PLANGINTZA ETA INGURUMENA (11)

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIO A	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
------	-------	-----	-----	----	----	-----	--------------	-----	----------------	--------------	----	-----------------	----	------

1.1.148	Ingurumeneko kudeaketa administraria	1	E	C	C1	16	14.064,63	13	300		3	2008/01/25	1 (% 50)	1
---------	--------------------------------------	---	---	---	----	----	-----------	----	-----	--	---	------------	----------	---

– POSTU HAUEK SORTZEA

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

KOD.	IZENA	DOT	L.M	H.	ST	DO.	B.O. (14)	E/A	TITULAZIO A	BALD. BEREZ.	HE	DERRIG. DATA	LA	DED.
	Herritarren Arreta Zerbitzuko eta Kalitateko Arduraduna	1	B	L	A1	23	20.145,38	21	536		4	2014/11/26	2	1
	Herritarren Arreta Zerbitzuko Agentea-Informatzailea	5	E	C (*)	C1/C2	18	15.727,87	13	300		3	2014/11/26	2	1

(*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat eta "Zarauzko Kirol Patronatua" eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

Une honetan, gaueko hamarrak direnean, **batzarburu** jaunak bilkura eten egin du, atsedeen txiki bat egiteko; eta, hamar minutura, hamarrak eta hamarrean, berriro bilkurari ekin diote.

12.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Astiko jolasgunean herri-lanaren kontzesioa esleitzeko eskuordetza bertan behera lagatzea

Ondoren, Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek irakurri du berak aurkeztutako proposamena. Hona hemen testua:

ASTIKO JOLASGUNEAN HERRI-LANAREN KONTZESIOA ESLEITZEKO ESKUORDETZA BERTAN BEHERA LAGATZEA

Pasa den urriaren 29an, Udalbatzarrak erabaki zuen ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, HELBURU DUEN HERRI-LANAREN KONTZESIOA kontratatzeke espedientea eta administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea.

Seigarren puntuan onartu zen Tokiko Gobernu batzarrari ematea kontratua esleitzeko eskuordetza.

Kontuan izanda kontratu honek 30 urteko iraupena izango duela, ez da zentzuzkoa gur eustez Udalbatzarraren kontrola sahiestea esleitzeko orduan.

30/1992 Legeak, bere 13.6 artikuluan, esaten du eskudun organoak edozein momentutan eraginik gabe utzi dezakela eskuordetza.

Hori guztia kontuan izanda, Ezker Anitza-IUren zinegotziak Udalbatzarrari hurrengo akordio proposamena luzatzen dio:

ASTIKO JOLASGUNEAN TABERNA-JATETXEAREN ERAIKIN BERRI BAT EGITEA ETA AISIALDIKO INSTALAZIOAK EGITEA, BAI ETA HORI GUZTIA USTIATZEA ERE, HELBURU DUEN HERRI-LANAREN KONTZESIOA esleitzeko onartutako eskuordetza bertan behera uztea eta berriro Udalbatzarrak berreskuratzea eskumen hori.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

b) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: AP-8an panel akustikoak jartztea

Era berean, berak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri du Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi andreak. Honela dio:

MOZIOA AP-8 AUTOBIDEAN PANEL AKUSTIKOAK JAR DITZATEN ESKATZEKO

2009. urtean gure alderdiak aurrekontu-akordio bat lortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta baldintzetako bat zen AP-8an, Zarautz parean, babeserako panel akustikoak jartzea.

Akordio hori aplikatuta, 2009. urtean, AP-8 autobideak sortzen zuen zaratari buruzko azterketa akustiko bat eskatu zuen BIDEGIk, eta baita panel horiekin zein babes-aukera zeuden aztertze ere. Ondorioa izan zen pantaila horiek eraginkorrak zirela Itxasmendin eta Orokietan, eta zertxobait gutxiago Azken kalean.

Ikerketa hori gorabehera, BIDEGIk berak bakarrik erabaki zuen pantaila horiek jartzea autobideko ordainlekitik baskula dagoen tokiraino. Justifikatu zuten esanez, Orokietaren eta Azken kalearen parean, pantailak jarri behar ziren tokiari eragin egingo ziola AP-8 autobidean egitekoak ziren hirugarren errailak eta, horregatik, ez zutela zentzuzkoa ikusten pantailak jartzea “handik urte batzuetara” kendu behar izateko.

Bost urte pasatu dira, eta Foru Aldundia panel akustikoak jartzen ari da Azken kalearen parean, halaxe eskatzen ari baitziren bertako bizilagunak eta baita Udalbatzarra ere.

Dena dela, Foru Aldundiak ez ditu oraindik bere konpromisoak eta lege-betebeharrak bete, eta, hala, Orokietako bi eraikinetan, eta Pagoeta kalean dauden eskoletako jolastoki eta etxebizitzetan AP-8 autobideak ateratzen duen zarata jasaten jarraitu beharko dute.

Era berean, AP-8 autobidean, Zarautz parean, hirugarren erraia egiteko proiektua bertan behera utzi behar da formalki eta behin betiko, ingurumenaren aldetik eta urbanistikoki oso eragin larria izango luke eta.

Horregatik, bada, Ezker Anitza-IU alderdiak honako akordioa hartzeko eskatzen dio Udalbatzarrari:

Lehena: Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Bidegiri eska diezaiela AP-8 autobidean, Zarautz parean, hirugarren erraia eraikitze aukera ofizialki eta behin betiko baztertze, udalerriko bi zonen erdian 6 erraietako muga batek sekulako eragina izango lukeelako ingurumenean.

Bigarrena: Foru Aldundiari eta Bidegiri eska diezaiela AP-8 autobidean, Zarauzko autobidearen zaratak eragindako zona guztietan, pantaila akustiko guztiak jartzeko, batez ere, Pagoeta kalean eta Orokieta Herri Eskolaren bi eraikinetan.

Hirugarrena: Akordio honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, Batzar Nagusiei, Bidegiri eta Zarauzko herritarrei.

Gaia bozkatzearen ondorioz, bozketa bakoitzean jasotako emaitzaz, Udalbatzarrak ERABAKI DU proposamenaren 2. eta 3. puntuak onartzea eta 1. puntua atzera botatzea.

c) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Herri-garraioaren tarifak merkatzea

Azkenik, zinegotzi berak bere hirugarren proposamena irakurri du. Hona hemen testua:

MOZIOA HERRIKO GARRAIOAREN TARIFA MERKA DEZATELA ESKATZEKO

Zarautzen bidaiarientzat udal autobus-zerbitzua daukagu, eta, batez ere, Vista Alegre auzoari zerbitzua ematen dio, bere ezaugarri orografikoengatik mugitzeko zailtasun handienak bertan daudelako.

Duela gutxi, MUGI txartelen bidez egiten den ordainketa-sisteman sartu da herriko garraio-sistema hori, eta sistema horrek deskontuak egiteko aukera ematen du zerbitzua askotan erabiltzen den kasuetan.

Hauexek dira herriko garraio-sistemaren tarifak

- Ordainketa eskudirutan: 1,15 euro
- Ordainketa MUGI txartelaren bidez:
 - Hilean 1 eta 20 bidaia bitartean: 0,63 € bidaia bakoitzeko
 - Hilean 21 eta 50 bidaia bitartean: 0,48 € bidaia bakoitzeko
 - Hilean 51 bidaia edo gehiago: 0,11 € bidaia bakoitzeko

Kontuan izanda aurreko prezioa bidaia bakoitzeko 0,30 € ingurukoa zela, tarifa berriek hilean 51 bidaia baino gehiago egiten dituztenei egiten die mesede, eta ez da batere ohikoa horrenbeste bidaia egitea.

Egoera horrek batez ere Vista Alegreko bizilagunei eragiten dienez, bizilagun horiek eskatu dute egoera hori aztertzeke, gutxienez auzo horretan beste irisgarritasun-baldintza batzuk eduki arte, esate baterako, Aldapetan proiektatuta dagoen igogailua.

Horregatik, bada, Ezker Anitza-IU alderdiak honako akordioa hartzeko eskatzen dio Udalbatzarrari:

LEHENEA: ALDATZEKO herriko garraio-zerbitzuaren prezio publikoa, eta honako tarifa hau jartzeko:

- Ordainketa eskudirutan: 1,10 euro
- Ordainketa MUGI txartelaren bidez:
 - Hilean 1 eta 20 bidaia bitartean: 0,48€ bidaia bakoitzeko
 - Hilean 21 eta 50 urte bitartean: 0,35€ bidaia bakoitzeko
 - Hilean 51 bidaia edo gehiago: 0,11€ bidaia bakoitzeko

BIGARRENA: ESKATZEKO Udal Gobernuari dagozkion tramiteak egin ditzala aurreko erabakia benetan gauzatzeko.

HIRUGARRENA: Akordio honen BERRI EMATEKO Vista Alegreko bizilagunen elkarte guztiei.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

d) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Urtetako zabortegia ixtearen alde

Hurrena, BILDU taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen mozioa:

URTETAKO ZABORTEGIA IXTEAREN ALDE

Azaroaren 19an Eusko Jaurlaritzak Zubietako TMB planta egiteko baimena ukatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Honek, ondorio nabarmenak ditu herrialdean hondakinen kudeaketari dagokionez hainbat arazo sortuko dituelako.

Hau guztia ez da baldintza teknikoen gainean egin. Izan ere, TMBak bazuen ingurumen baimena. Aurreko diputazioak (EAJk) eskatu zuen, errauste planta oinarri zuen azpiegitura multzoaren barruan. Jaurlaritzak onartu egin zuen, baina, orain, baimen hori luzatzeari uko egin dio, proiektu hartan «funtsezko aldaketak» egin direla argudiatuta.

Proiektu hartan aldaketa handi bat egin da: errauste planta kentzea, hau da, kutsadura, errauste toxiko eta gas kutsatzaileen sortzaile nagusia. Ingurumena zaindu behar duen Ingurumen Sailarentzat ontzat emateko modukoa izan beharko luke horrek. Izan ere, tramitazioa hasieratik hasteak ingurumenean kalte handiagoa sortuko baitu, zabortegiak segituan ezingo direlako itxi.

Modu politikoan ari da Jaurlaritza, beste aspektu batzuetan bezala, alderdi jakin baten intereserako erabiliz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bizilagunak ordezkatzeko dituen erakundea. EHBILDU-ren kontra egiteko bere obsesioan, EAJ-k berriro ere, herritarren interesak alde batera uzten ditu, Gipuzkoako hainbat herrietan, bizilagunek hondakinak gaika jasotzeko egiten ari diren esfortzua eta lana ez dute aintzat hartu nahi eta berdin die zabortegiak luzaroan irekiak jarraitu izatea, honekin opzio politiko bat egurtzeko aukera badute. Horretan datza EAJ-ren ardura.

ESKATZEN DUGU

1. TMB planta gauzatzeko baimena ukatzeko erabakia berraztertzeke eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari.
2. Jaurlaritzari erakunde publikoa alderdi interesekin ez erabiltzeko eskaria luzatzen diogu. Ingurumen gaiak sentsibilitate handiko gaiak dira eta arduragabekeria izugarria da gai hauek alderdikieriaz erabiltzea.

3. EAJren erabaki honek Zarauztarrak nabarmen kaltetu ditzake. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, eman beharreko urratsak eman ditzala, Gipuzkoako zabortegiak iragarritako epeetan itxi daitezen.
4. Honako mozio hau hedabideetara eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailera bidaltzea eskatzen dugu.

Mozioa eztabaidatzen ari zirela, **Irma Domingorena** andrea bilkuratik joan da.

Udalbatzarrak, gehiengoz, aurreko mozioa onartzea ERABAKI DU.

Azaroaren 26ko gaueko hamabietara iritsita, batzarburu jaunak bilkurari amaiera eman dio, Errregelamendu Organikoak 63. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Izan ere, artikulua horretan ezartzen baita bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko direla.